



→ 46
Aldatu da Iparraldeko
mapa politikoa

2012ko ekainaren 21a | XXXII. urtea | 569. zenbakia

www.ttipi.net

Herriko bestak
San Ferminak
Azpilkueta eta Lesakan

BERTSOLARITZA → 10
Joanes Illarregi leitzarra
Nafarroako txapeldun

BERA → 23
Frankismoaren biktimak
omenduko ditu Udalak

BAZTAN → 44
Udal Gobernu Taldearen
urtebeteko balantzea

SARA → 45
Usopop jaialdia
uztailaren 7an



BAZTANDARREN BILTZARRA | Jantoki komisioko arduradunak Ilgandean mahaiak zerbitzatu eta biltzen laguntzeko animatu nahi dituzte gazteak

Besta honek lan aunitz du gibeletik egiteko eta herritarren partehartzea ezinbertzekoa da. «Probatzen duenak seguru errepikatuko duela», diote konbentziturik. **ELKARRIZKETA → 3**



Etxetik atera eta harremanak lantzeko aukera ederra eskaintzen du jubilotekak. Gorputza eta burua trebatu bidenabar, laguntasunaz gozaten dute.

Berako Jubilotekan 17 lagun biltzen dira astean bitan

«Goiza ustekabeen joaten zaigu»

Ekainak 28 | Sexu Askatasunaren Aldeko Eguna

Leitzan, Sexu Askatasunaren Aldeko Taldeak egitaraua prestatu du

Arratsaldeko 8etan *Ogiyik karri etzun semia* antzezlan eskainiko da zineman eta ondotik afaria (12 €) Torrean. → 38



Ane PETRIRENA | Txapelduna

300 metroan Espainiako txapelketa irabazi du

Kadete mailako atletismo txapelketa irabazi berri du Zaragozan Ane Petrirenak, 15 urteko sunbildarrak. Orain arteko marka ere hobetu du. → 48



ZOKKETAK → 54



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58ra**

WEB 2.0 PROGRAMA: ON-LINE MARKETINA ETEentzat

Zer da?

Komunikazioan eta on-line marketinean presakuntza, aholkularitza eta jarraipen pertsonalizatua eta banan-banakoa izartzeko programa da:


- Komunikazioan sartzeko eta interneten presentzia edukitzeko estrategia.
- On-line marketinari eta web-analitikari buruzko aholkularitza.
- Web ikusapenaren ebakuntza-teknika buruzko aholkularitza.

Nola garatzen da?

TALDE PRESTAKUNTZAKO SAIOAK:

Enpresak on-line marketinako estrategiko proiektuak garatzeko aspertuz eta heberakunak eskura dituzten.

ORDAIA	DATA	ORDUAK
1	Hire enpresako web orria hobetuz: WEB egitura, kargutegia, erabiltzaile-erantzun eta hobieragailuak.	2012-10-18 9:00-14:30
2	Nola optimatu web orriaren posizionamendua: SEO - SEM.	2012-10-18 9:00-14:30
3	Enpresaren 2.0 erantzun: soto eta jabetasuna zabalduz, promozionatuz.	2012-10-23 9:00-14:30
4	Web analitika on-line inbertsioaren iturriaren neurtzea.	2012-29-10 9:00-14:30



Nori dago zuzenduta?

Mendialdean kargutegian handia duten sektore bateko ETEek, azken kontsumitzaileari bideratutako produktua eta zerbitua ematen dituztenak, eta:

- On-line marketin-plani bat zuzartzeko eta garatzeko interesa dutenak.
- Negotioan 2.0 marketinaren teknikak ezazi nahi dituztenak.
- Beren merkaturak zabaltu nahi dutenak.


BANAN-BANAKO LAN SAIOAK:

EGITZEN DIBI LANAK	DATA
1 Enpresaren banakoko analisia, egoeraren eta premien diagnostikoa.	uztaila - ekia
2 Bultzapena izateko: hobierri berrakuntza eta hobieragailuak martxan egotea.	Urria - Abendua

CEDERNA - GARALUR Elkarfeia

Haremanetarako: Oskia Lazkoz

Tel. 948 54 70 10
www.cederna.es
sakana.admon@cederna.es



ttipi txartela

harpidetza baino merkeagoa da



+ ttipi-ttapa aldirkaria doan
42 dendetan deskontuak
hamabostero zozketa izugarriak

40euro
- 10euro

30euro

*215eko deskontuak
errentaren
atorpenen*

TTIPI-TTAPAren urteko kuota 32 euro biko da.
TTIPI TXARTELA duzuek, 30 euro pagatuko dute urtearen azkenean.
Errentaren Atorpenarekin 10 euro itzuliko izaitzen

AUTO eta BIZIKLETA Inbentarioak: Berruztu | Dabocost | Estren-Bike | Semeleira | Zuzen-Motor
 AUTO ESKOLAK: Sempin ARGAZKI-DENDAK: Ayta | Doko | Mena | Zaku
 ARDOP-DENDAK: Bakiak | Eduena | Espalbe | Iping | Juan J. Pkolas | Kattabingori | Kutsula
 BITXI-DENDAK: Euzko ESTETIKA ZENTROAK: Annala | Arria | ETXETRESNAK: Alzet
 HAIHURRIN GAUZEN DENDAK: Pofaki. JATETXEAK: Pizate Ota | (Euzko) Pizate
 KINOLEGIAK: Leialde (30) Kintokop. KIROL-DENDAK: Agara | Izate | Zola
 LENTZERIAK: Faltagoria | Maritza. LIBURU-DENDAK: Inbentario | Mamen
 NUTRIZIOA eta DIETETIKA: Oria | Kintok | Erika. OPARI-DENDAK: Alzet
 OPTIKAK: Izate | Dabocost. PENTSIKAK: Mena. TIMOTEGIAK: Juan
 ZAPATA-DENDAK: Ota | Kintok

Komisio edo batzordeetan banatuta dauden 20-25 lagunek antolatzen dute urtero Baztandarren Biltzarra. Urtarrilean hasten dira prestatzen. Aurten uztailaren 21ean eta

22an, bi egunez, eginen den besta haundi honek, ordea, lan aunitz du gibeletik egiteko eta Baztandarren Biltzarra Elkartetik kanpoko herritarren laguntza eta partehartzea ere

ezinbertzekoak dira. Sukalde-jantoki komisioan, adibidez, zerbitzatzeko gazteak behar dituzte Baztandarren Biltzarra egunerako, ia 1.600 laguni bazkaria emateko 120 lagun.

Maite DENDARIETA, Lorea ATXA, Lurdes ELIZEGI eta Elisa ALMANDOZ | Baztandarren Biltzarreko jantoki komisioa

«Iduri du lanean aritzeagatik gaizki pasatu behar dutela, eta ez da hala»

G. PIKABEA | BAZTAN

Nola antolatzen duzue ia 1.600 lagunendako bazkaria?

Aitzinetik eskaerak eginen ditugu eta lanik gehiena aitzineko astean izaten da. Azken finean, ia 1.600 bazkaltiar dira eta dena ahalik eta erosoan izateko moduan antolatu behar da. Hamasei laguneko mahaiak izaten dira eta hortaz, dena hamaseinaka sailkatzen dugu: platerak, tenedoreak, basoak... Eta hori dena lehenik garbitu egin behar dugu. Ortziralarekin, piperrada prestatzeko produktua xehatu behar ditugu, biharamunean piperrada egiteko dena prest utziz. Zerbitzari bilketa ere egin behar dugu, eta kuadrilla, distantzia eta adinaren arabera, mahai batean edo bertzean antolatu. Igandean mahaiak paratzeko ere laguntza behar izaten dugu.

Zerbitzariak biltzea izaten da zuendako lanik zailenetako bat, ezta?

Erabiltzen dugun sistemaren arabera, 120 lagun beharko genituzke dena ongi ateratzeko, 96 mahai dira eta mahai bakoitzeko zerbitzari bat eta lau mahaiak arduradun edo mahaiburu bat. Baina 75 inguru izaten dira. Duela urte batzuk zerbitzarien adina arras altua zen eta sistema hori paratu zen martxan. Orain zerbitzariak gero eta gu-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Maite, Lorea, Lurdes eta Elisak osatzen dute sukalde-jantoki komisioa.

tiago dira eta jende kopuru berdinari ematen zaio jatera. Gainera, zerbitzariak arras gaztetxoak dira, 13-15 urtekoak. 12 urterekin gurasoek haurrak ikusten dituzte eta ez direla zerbitzatzeko gai pentsatzen dute, eta 16 urterekin beraien burua haundi ikusten dute eta herritarrekin bazkaltzera joan nahi dute. Zerbitzari guti izanda, daudenei lan gehiago egitea tokatzen zaie, bortz lagunena lana bik eginez. Horrela, lehenago erretzen dira eta ez dira gehiago etortzen. Arazoa beharrezko zerbitzariak apuntatuta soluzionatuko litzateke. Dendako lana errezagoa izanen litzateke eta aise

GAZTEEI DEIA

«Bederen probatzeko erranen genieke gazteei. Esperientzia polita da eta denen artean egin beharrekoa. Hurbil daitezela Baztandarren Biltzarreko astean elkartera, txartelak salduko diren egunean izan ezik, arratsaldero elkartean egonen garelako. Horrez gain, herrietako arduradunei apuntatzeko zerrendak banatuko dizkiegu eta Elizondon ere zerrendak utzi ditugu. E-postaz ere apunta daiteke: baztandarrenbiltzarra@hotmail.com».

gehiago gozatuko genuke. Iduri du lanean aritzeagatik gaizki pasatu behar dutela, eta ez da horrela, arras ongi pasatzen da. **Gazteak zerbitzatzera animatzeko saiakerak egin dituzue...**

Bai. Gan den urtean herri bakoitzeko arduradun bat hartu genuen bere herriko gazteak animatzeko. Baten bat lortu genuen baina... Baztandarren Biltzarrean denok izaten dugu lana: Guraso Elkarteko mahaiak paratzen dituzte, ostatuan herri guztiek kolaboratzen dute eta gazteen lana zerbitzatzeko da. Zerbitzearen truke bazkaria eta sari bat ere ematen zaizkie. **Zer erranen zeniekete**

gazteei?

Bederen probatzeko, eta probatzen badute seguru errepikatuko dutela, ongi pasatzen delako. Esperientzia polita da eta denen artean egin beharreko gauza. Eta norbaitek mahai jakin bat zerbitzatu nahi badu ez du horretarako arazorik izanen. Hurbil daitezela Baztandarren Biltzarreko astean elkartera, txartelak salduko diren egunean izan ezik, arratsaldero elkartean egonen garelako. Horrez gain, herrietako arduradunei apuntatzeko zerrendak banatuko dizkiegu eta Elizondon igerilekuan, Kilikin, Mabelen eta Fantxiken zerrendak utzi ditugu. E-postaz ere apunta daiteke baztandarrenbiltzarra@hotmail.com-era idatzita. Bertze mezu bat ere bidali nahi diegu bazkaltiar guztiei, bazkaldu ondotik mahaiak biltzeko eskatuz. Azken hiru urteotan, guk bakarrik bildu ditugu mahaiak eta guretako 96 mahai dira, baina 16 lagunendako mahai bakarra. **Zerbait gaineratuko zenukete?**

Antolakuntza denei irekia dagoela, eta edozein komisiotan lagundu nahi duena elkartera ager dadila aitzineko astean. Kontua ez baita batzuk besta egiteko bertzeek lan egitea. Denek dena eginez ahalik eta hobekien besta egitea baiziki.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Berako Jubilotekan parte hartu dutenetako batzuk, Ramoni Ordoki arduradunarekin.

GIZARTEA → LAGUN HAUNDIAK ELKARTEAN BILTZEN DIRA 17 LAGUN ASTEAN BITAN

Aisialdi aktiboa lantzeko ateak zabalik ditu Berako jubiloteka zerbitzuak

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuak bultzatzen du, Berako Udalaren laguntzarekin

Zenbait herrietan haurrak ludotekan biltzen diren bezala, Beran erretiroa hartu dutenak eta autonomia gutti duten bertzeko batzuk

jubilotekan biltzen dira astean bitan. Garrantzitsuena elkarrekin egoteko toki bat izatea da, jarduerak eta ariketa ezberdinak eginez.

Aitor AROTZENA

Bortzirietako Jendarate Zerbitzuen Mankomunitateak bulkatzen duen lana, familia eta norbere bizitza pertsonalaren bateragarritasun hitzarmenaren barruan jubiloteka zerbitzua eskaintzen hasi zen duela lau urte Beran eta Lesakan. Hasiera hartan, hiru hilabetez bakarrik eskaintzen zen zerbitzua, urritik abendura. Bigarren urterako, Lesakan eskaintzetik utzi zen eta Berako Lagun Haundiak elkarrekin hasi ziren elkartzen

hiru hilabete horietan, astean bi egunez. Aurretan, Berako Udalak emandako dirulaguntza dela medio, ikasturte osoan eskaini dute zerbitzua. Beraz, urtariletik ekainera egin dute eta uztaile eta abuztuko atsedenaldiaren ondorengatik, berriz ere irailetik abendura segida izanen du. Zehazki, astearte eta ortziralean biltzen dira, 10:00etatik 12:30era.

Jubilotekaren helburua, erretiroa hartu dutenak kulturaz, denboraz libreaz eta giza harremanetaz gozatzeko

kalitatezko eremu bat izatea da eta, aldi berean, hauek zaintzen dituzten familiek ere beraien lanerako eta aisialdirako asti gehiago izatea. Arduradun lana betetzen duen Lesako Ramoni Ordoki psikologoak aipatu digunez, «Gizarte Zerbitzuetatik sortutako eskaintza bat izan zen eta Jokin Apeztexea teknikariak lan handia egin du hor. Familiaren laguntza behar zuen jendea elkartzeko leku bat eskaintzea zen hasierako helburua, bidenabarkoan

familia ere deskargatzeko, baina zerbitzu hori zabaldu egin zen eta adin bateko edozein pertsona edo aisialdi aktiboa landu nahi duen edozein pertsona ere hartzen du orain. Hasieran jende gutti hasi zen. Lehenbiziko urtean zortzi pertsonekin edo bukatatu izanen genuen».

Honela, astearte eta ortziraleko egitarau berdintsua izaten dute erretiratuek. 10:00etatik 10:15era ongi etorria; 10:15etik 11:00etara jarduerak fisikoak, artikulazioa, baloiak, pilotak...; 11:00etatik 11:15era gosaria, elkartzen diren guztiak gehien estimatzen dutena, kafea edo zumoa hartzeaz gain, kontu kontari aritzen

baitira, atsedenaldi tiki batekin; 11:15etik 12:15era estimulazio kognitiboa (burua), jokuekin, margoketarekin edo kartetan jokatzeko eta 12:15etik 12:30era, lasaitasunera buelta eta despedida. «Goiza us-tekabean joaten zaigu» dio arduradunak.

Bortzirietako Mankomunitatek ere jarduerak garrantzitsuak dela us-te dute. «Sozialki aurrerapen handia da», dio Jokin Apeztexea teknikariak. Etorkizunera begiratzeko goiz da, «astetik atera, krisia dela eta, aldaketak dau-delako, baina pena litzateke zerbitzua galtzen uztea, erabilzaileek estimazio handian baitute jubiloteka».

JUBILOTEKA → ERABILTZAILERAK KONTENT

«Lehentasuneko zerbitzua da guretzat eta ez dugu utzi nahi»

Segida emateko irrikitan daude

A. AROTZENA

Batzuentzat astean bitan aski da, bertze batzuk gehiagotan ere bilduko lirateke, baina inork ez du jubiloteka desagertzetik nahi. Lehentasuna ematen diote erabiltzaileek eta Javier Biurrarenak dioen bezala, «zerbitzu hau desagertzea pena litzateke, geronek gehixeago ordainduta ere aitzinera segitu beharko dugu heldu den urtean». Begoña Zozaiak mugikortasun arazoak ditu eta boluntariotzan ari den Juantxo Villanuevaren laguntza behar izaten du Zalain Zokotik Lagun Haundiak Elkartera mugitzeko, eta ordubete guttiago egoten ahal da, baina, hala ere, «hagitz gustora egoten naiz». Anttoni Etxeberriak buruan

«alaitasun bat» sentitzen du, «uste nuen nere bizian egin ditudan antzerkiak eta bertze gauzak akautuak zirela eta orain ikusten dut gauza gehiago egitea posible dudala». Pilar Fernandezentzat «egun gehiago izatea ere ongi etorriko litzai-guke, bertzela egun osoa aienekazaudelako. Krisiaren aitzakian hau kentzea pena handia litzateke, osasunerako mesedegarria delako, ez kapritxo bat. Ongi bageunde lanean ariko ginatke oraindik. 89 urteko Terexa Etxeberste igantziarrarentzat ere «hagitz goizpasa polita» izaten da jubilotekakoa. M^a Jesus Diazen erranetan, «heldu den urtean ere segitzea gustatuko litzaidake, hasieratik bainago jubilotekan».



ASTEAN BITAN

«Ni bakarrik bizi naiz eta astean bitan baino gehiago izanen balitz ere ez zait axolarikan, baina igual bertzeentzat gehiegixko izanen litzateke».

Terexa ETXEBESTE



OSASUNGARRIA

«Krisiaren aitzakian hau kentzea pena handia litzateke, osasunerako mesedegarria delako, ez kapritxo bat. Ongi bageunde lanean ariko ginatke oraindik».

Pilar FERNANDEZ



GOSARIA INPORTANTEA

«Batzuk gimnasia hagitz ongi egiten dute, nik ez, baina ahal dudana egiten dut eta gero gosaria, hori arras inportantea da, elkarrekin egoteko».

Begoña ZOZAI



ELKARTASUN HANDIA

«Elkartasun handia izaten dugu eta elkarbizitza aunitz lantzen da. Etxe batera denak elkartuko baginen ere, ederki moldatuko ginen».


Anttoni ETXEBERRIA



GIMNASIAK ON

«Batez ere gimnasia egitea hagitz ongi heldu zait, aldaketa handia sumatut, eskuak gogortzen hasiak zitzaizkidan eta orain aunitzez hobea».

Javier BIURRARENA



JENDE ATSEGINA

«Etxetik ateratzeko eta jende atseginarekin topo egiteko modua da ludoteka, goiz osoan entretenitua egoten naiz eta horrek laguntzen du».

Maria Jesus DIAZ

RAMONI ORDOKI, PSIKOLOGOA ETA JUBILOTEKAKO ARDURADUNA

«Etxetik atera eta harremanak lantzeko aukera ederra eskaintzen du jubilotekak»

«Elkartzeko toki bat eskaintzen du jubilotekak; ariketa fisikoa egiten dugu gorputza fisikoki pixka bat lantzeko, adinarekin gogortzen joaten garelako; burua landu, baina nerretzat garrantzitsuen elkarren arteko harremanak lantzea da. Auniztan, adin batera ailegatzen garen bakarrik gelditzen gara, etxetik atera gabe eta harreman sozialak galtzen joaten dira. Elkarren arteko harreman horiek ez galtzeko modu bat da jubiloteka, solasteko, etxetik kanpora ateratzeko... giro polita sortu da eta horrek laguntzen du». Jubilotekako ardura duen Ramoni Ordoki lesakarraren solasak dira. Bere erranetan, jubilotekan parte hartzen

duen pertsonentzat denbora llaburrean lehentasunezko zerbitzua bilakatu da: «Lehenbiziko urtean Lesakan eta Beran egin zen, baina Lesakan utzi eta Beran segitu dugu egiten. Urtero urtero, hasierako zortzi pertsona horiek mantendu dira, baina jendea gehitzen joan da. Iaz, irailtik abendura eskaini zen eta 21 pertsona bildu ziren. Momentu honetan 17 lagun biltzen gara. Lehentasuneko zerbitzua da aunitzentzat, hilabetean 30 euro kobratzen zaie eta halere, prest daude horretarako, diru hori ordaintzeak mezezi diela uste dute». Etorkizunera begira, berriz, «guk nahi dugu segida izatea, parte hartzen dutenek ere nahi dute eta



Ramoni Ordoki.

ea nolapaitere lortzen dugun segida ematea. Pena litzateke indarra hartu duenean, diru kontuengatik moztu behar izatea», erran digu arduradunak.



Nire txanda
Ruben GARATE

Saihesbidea

Artikulu hau irakurriko denerako albistea so-lastua, murtxikatua, irentsia eta digeritua egonen da, baina ekainaren 15ean gai hauxe dugu hizpide: Irurita-Elizondo saihsbide zoragarria eta bere inaugurazioa. Ongi estudiatu eta meditatua dagoela pentsatu nahi dut, eta gero teknikariak buelta pare bat emanen ziotela egin aitzinetik, baina horren guztiaren ondotik, *Scalextrik* eta *Port Aventura*ren jarraitzaile sutsuak zirela ondorioztatu dut. Lehengo batean, Bagordira nindoala, juxtu saihsbidea gurutzatzen duen biribilgunera ailegatu baino lehen, *Stampidan* igoa nintzela iruditu zitzaidan, igo eta igo, nora zoazen jakin gabe eta bapatean biribildunean zaude. Inauguraziorari dagokionez, inork ez genuke nahi guretzat teknikariak bakar-bakarrik egin behar izan zuen lana. Agertu ez zirenek edo aldegin zutenek beraien arrazoiak izanen zizuten, baina gelditu zenarentzat txalo bat. Ez dut inor kritikatu, epaitu edo mindu nahi, baina ai ama!

«Inork ez genuke guretzat nahi teknikariak bakarrik egin behar izan zuen lana»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Aitzakiarik gabe: Paña! Paña!

Dagoeneko ez dugu aitzakia bila ibili beharrik. Kanpoan gaudela galtzea nahi dugula erran eta etxean, gola sartzen duenean saltoka hasita ez dugu lotsatu beharko... Xabi Alonso ari dela, Puyol ari zela, hurbilen eta gehien ezagutzen dugun ligakoak direla... Kroaziaren kontrako partidari, jostailuzko trikornioarekin animatzen zuen zaleak ireki dizkigu begiak: Ra-ra-ra!

Nabarmentzekoak



Itsaso FAGOAGA
Espainiako Kopan txapel-dun

Skeet Olinpikoan Europako txapelketan fin ibili ez bazen ere, Espainiako kopa zazpigarren urtez segidan irabazi du lesakarrak. Orain, aita izanen du arerio Nafarroako txapelketan.



Bittoriano ARZUAGA
Urrozko eskulangilea

Ongi merezitako omenaldia jaso zuen herrian, ekainaren 16an egin zen Artisauen Egunaren baitan. 87 urterekin, haria egiten eta hari horrekin jantzi bereziak eskuz egiten segitzen du.



Mikel GARTZIA
Heriotza mendian

Malerrekako euskara teknikaria Peruko Aungate mendikatean izandako istripuan hil zenekainaren 11n. Mankomunitaterako lanean 12 urte zituen eta heriotzak samina sortu du.

Atzera begira → 2003.07.03 / TTIPI-TTAPA 353. zbk



Elizondoko San Francisco Javier ikastetxeak 25 urte

Elizondoko San Francisco Javier ikastetxeak 25 urte bete zituen 2002-2003 ikasturtean eta aitzaki horrekin Isabel Ibarrola zuzendariarekin eta Trinitxu Ariztia eta Idoia Goñi irakasleekin izan zen TTIPI-TTAPA. «Baztan osoko 600 ikasle, orai ikasleak Elizondo eta eskolarik gabeko herrietakoak dira» aipatu zuen zuzendariak. «Elkartasun, konfidantza eta tratu handiagoa dago orai irakasle eta ikasleen artean, baina neurria hartu behar» zaiola uste zuen Trinitxu Ariztiak. Idoia Goñi irakasle eta ikasle ohiaren arabera, «gaurko hurrek dena daukate eta guk gehiago baloratzen genituen gauzak, lortzeko zailagoak zirelako».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usosa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Martin Larraide, Juan Mari Barriola.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tira 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2012ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria38€	Europa56€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka32€
Ipar Euskal Herria56€	Amerika eta Australia124€	Leitza16€



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Gure xoko maitia

Joseba URROTZ

Bada bere burua 'munduko biztanletzat' jotzen duenik, inongo lurrarekin loturarik ez duenik, eta han edo hemen bizitzea axola etzaionik. Gehienok ordea, jaio eta hazi garen xoko hori izaten dugu matte, eta ezta gauza berria euskaldunok gure lurrarekiko dugun lotura. Aipatu dut lurrarekiko lotura, baina gauza baiko-rra edo ona al da lotura? Gustatzen ote zaigu lotuta egotea?

Saiatuko naiz bertze kritika bat gehiago ez egitten, hortaz galderak edo aipamen batzuk eginen dittut, eztabaida edo guttienez pentsamenduak mugitzeko asmoz, juzkurik gabe, ateak idekitzeko asmoarekin baizik.

Ematen du inguru malkartsu hauetan nekazaritza eta abelzaintzatik bizi beharrak, baserrietan, bakarti xamar, lan haundiz, zailtasun eta neke haundiz, izaera barnerakoi eta hotz xamarra izatera eramane gaituela. Hala ikusten gaituzte behinik behin kanpotar aunitzek, behar bada gu ez gara konturatzten. Noski, alde onak ere baditugu gure izaeran, baina hoiiek ez dira minak, penak edo arazok sortzen dittuztenak.

Seguru badagoela inor bere penak edo ahuleziak kontatzera ausartzen ez dena, bertzean aitzinean ahul agertzeari beldur diogulako.

Zenbat gelditu izan dira baserri eta etxeetan gurasoak zaintzen, euren bikote edo familia izan gabe, guraso eta baserriari zerbait zor diogulakoan? Zenbat gizaseme erdi alkoholiko, ardi bordan ihes lekua dutela,

ardo botilarekin batera, etxean giro ez delako? Senarraren guraso eta senide ezkongabeak zaintzean nekatu eta aspertuak dauden emazteak...

Zer erranik ez homosexual sentitzen direnak, nori azaldu hori? Bereziki sentiberak diren pertsonak eta bertzeak bezain zakarra ez izateagatik burlak jasotzen dittuztenak? Zergatik agertzen dira hainbat gauza gordin mozkozten garenean? Borrokak, auto istripuak, zakarkeriak...

Aitarene papera ere bete behar izan duten ama gogorak, euren lekutik kanpo dauden atta ahulak... Nondik dator hau dena?

Hitz guttitan argitzeko zaila da azaldu nahi dudana, baina sufritzen duenak uste dut badakiela zeri buruz ari naizen.

Jatortasun osasungarriari eutsi bai, baina min egiten diguten hainbat molde etsiak mugitu eta agertzeko beharra ere badagoela uste dut.

«Hitz guttitan argitzeko zaila da azaldu nahi dudana, baina sufritzen duenak uste dut badakiela zeri buruz ari naizen»

Itsasoa

Jexux BULDAIN

Eguralda hobetzen hasi bezala, itsaso inguruak jendez betetzen dira. Bertan, une politik bizitzen dira eta gainera indarberritzearen sentsazioak eskuratzen ditugu. Txikitan, gogoratzen naiz, itsasoa urruti sentitzen nuela eta egunen batean ezagutuko nuenaren itxaropenarekin egoten nintzen. Gaur egun, dauden errepideekin, erraza egiten zaigu itsasorantz gerturatzea eta jende asko bezala, ahal dudanean gerturatzen naiz.

Itsasoa deskribatzeko modu asko daude. Ni, Leitzakoa izanik, garai batean leitzar batek deskribatu zuen modua aipatuko dizuet. Baserri bateko nagusi zaharra ohean zegoen eta medikuak egun gutxi barru hil egingo zela aipatu zion. Agureak, etxeko bizilagunei deitu zien eta hil aurretik, itsasoa ezagutzeko ilusioa zuela aipatu zien. Morroiari aipatu zion, ea prest egongo zen Donostiara gerturatzeko, itsasoa ikusi eta berari kontatzeko. Morroiak, behar zituenak bizkarrean hartu eta oinez abiatu zen Donostiara. Egund pare batean ailegatu omen zen. Hirugarren eta laugarren egunak, itsasoari begira pasa omen zituen eta beste bi egunetan, etxerantz bueltan. Etxera ailegatu zenean, ikusmina ikusgarria zen. Etxeko bizilagunez gain, inguruko baserrietako jendea, apaiza eta medikua gerturatu ziren. Morroiak, itsasoa deskribatu aurretik, agurearengana gerturatu zen. Ohe ondoan zegoen eserlekuan eseri eta agurearen begiak, goizeangoiz eguzkiak izaten duen dizdira antzeko espresioa zutela ikusi zuenean, morroiak itsasoa deskribatu zuen. Bertan zeudenak, itsasoaren deskribapena oso luzea izango zela uste zuten. Itsasoa bera oso handia da eta neurria kontuan hartuta, deskribapena ere halakoa. Morroiak, zegoen ikusmirarengatik harrituta egon arren, itsasoa honela deskribatu zuen: «Itsasoa, geldirik egoten ez de ur-zelai handi bat da».

Lehen esan bezala, itsasoa deskribatzeko modu asko daude. Itsasoak, bakoitzari modu ezberdin batean sentiarazten gaitu. Edo gu, modu ezberdin batean sentitzen gara itsasoaren aurrean.

Itsasoa erabat mugimenduan dago. Itsas-ertzean jartzen gara eta mugitzen ez bagara, olatuak gainezka egingo digute.

Denbora gutxian, olatu asko ikus ditzazkegu. Zaila da, olatu bakoitzari esanahi bat bilatzea eta erraza olatu guztiei esanahia bilatzea. Olatu bakoitza, momentu bat da eta olatuak, momentu bakoitzen batuketa. Gauza da, olatuekin bizitzen gustura sentitzen garela eta kontuan edukita bertara gerturatzen den jendea, festa handietan egoten den zalaparta sortzen da.

Gure izaerak, badauka itsasoarekin zerikusia. Beti mugimenduan gaude. Itsasoko olatuak bezala, olatu bakoitzaren batuketa eginda, gure bizitza eraikitzen dugu. Batzuetan, gure barruan dauden olatuak erraz menperatzen ditugu eta beste batzuetan, oso handiak dira eta gainezka egiten digute.

Behar bada hau ez da zientifikoa, itsasoa ulertu eta ezagutzen badugu, gure burua gehiago ezagutuko dugu.

Irakurleak mintzo

Agur Mikel,
lankide eta
lagun

Malerrekako Mankomunitateko lankide-lagunak

Gero arte batekin agurtu ginen, uztailean berriro ikusiko ginelakoan. Us-tekabea, gero arte hori, guk nahiko genukeen baina gehiago luzatu zaigu, baina iritsiko da. Bitartean, Perurako bidai horretarako zeneukan ilusio eta pozaren oroitzapenekin geldituko gara hemen. Baita gazi-gozokak jaten genituen bitartean pasatutako momentu goxo guzti horiekin. Lankide zinen bai, baina baita laguna ere. Elkarrekin lanean pasatutako urte guzti hauek, elkarbanatutako hizketa, haserre, ilusio, iribarrak... ditugu betirako gordeak. Ez zara nolana hiko "tipoa" izan ezta izango ere. Euskarak batzen gintuen, baita elkarlan eta iza-tea berak ere. Beti izango zara gure bit-hotzetan.

Gartzi

Marga E, Marga M. eta Kontxi (Doneztebeko IKA Euskaltegiaren izenean)

Malerrekako euskararen mendizalea zinen, gailur aniztetera ailegatua zinen eta hori gurekin konpartitu duzu. Euskararen gailurrak konkistatzean Malerrekako euskararen mendia altxatu duzu (bertze batzuekin batera). Zuk altxatutako men-

dia zoragarria da: plan-gintzaz, Malerrekako kantuz ekimenaz, ipuin lehiaketaz, kale neurketaz, itzulpenaz... bete da go, hori guzia hemen gelditu da (lekuakoa hartuko dugu). Gailur honetatik denetatik ikusten da: laino beltzak, baita ilusioa, euskaltzaletasuna, etorkizuna... ere. Euskararen mendizale bikaina, lankide aparta, gizon handia... Plazerra izan da zurekin batera lanean aritzea. Euskaltzaleok, politikoki-poliki zure gailurrera edo tontorrera ailegatu-ko gara eta, han, zurekin, elkartuko gara. Gure bihotzen gailurra aspaldian zapaldu zenuen, bertan, zure granponak eta pioletak arrastoa utzi dute. Agur Mikel, agur Gartzi.

Leitzan ere
sexu askatasunaren alde

Itziar Saldias eta Saioa Iraola (Leitzako Sexu Askatasunaren Aldeko Taldeko kideak)

Ekainaren 28a Sexu Askatasunaren aldeko eguna izanik, pertsona orok bere sexualitatea askatasunez bizitzeko eskubidea duela aldarrikatu nahi dugu; bereizkeria egoerak alboratu eta eskubide urraketa eta sexu identitate aniztasuna errespetatu, eta gainera, gay, lesbiana eta transexualok ditugun eskubideak aitortu eta bermatzea ezinbesteko egin beharra dela uste dugu. Parez-parez ditugu bote-



Bota bertsoa
Joanes ILLARREGI (Leitzako bertso eskola) • Doinua: ETaren su-etenetik

Ikasturte bukaera

<p>Gizarte, gazte, euskera, frantsesa eta natura guztiak aprobatazea izandu dugu helmuga ta orain ideia asko etortzen zaizkit burura ba, adibidez hondartza, pistina edota ura orain pozik sartuko naiz ur epeletan barrura nahiz eta gogor lan egin azkenerako heldu da kurtsoa bukatu da ta disfruta dezagun uda.</p>	<p>Aspalditikan gogoak dauzkat oporretarako zeren gu gelditu gara klasez, azterketez bapona nahiz eta gai batzuetan ibili nahiko exkaxko ikasturtetik udara pozik egin dugu salto ta kriston gogoak ditut bertso-udalekutako ta nola oporrek diren urte oso baten gako orain nahiko baditugu merezi ditugulako.</p>
---	---

redun kontserbadore ultra eskuindarrak, sexualitate eredu androzentriko heretosexual tradizionaletik kanpo kokatzen den, garen ororen aurka joaz: espainiako gobernuan batzuk; dekretuen bidez jendartean ematen ari diren aldaketa sozialak, sexualitate bizitzeko erei dagozkionak ere, ezkutarazteko eta ukatzeko dekretuak egiten: euren telebistetan bizitzak markatzen duten norabide, ibilbidetik ateratzen den oro gutxiesten. Krisi ekonomiko eta sozialaren aurrean, balore batzuen (elkartasuna, adeitasuna, askatasuna) krisia sustatzen ari dira botere-gune politikoetatik eta hauen esku dau den bitarteko guztien bi-dez (adibidez, hezkuntzan ideologizazio eskuindarra) honela, balore diskriminatzaileak sustatzeko doktrinamendua martxan jarrit. Instituzio patriarkalentzat, baina jendartean oro har, pertsonok hartzen ditugun erabakiak ez dira ber-

din ikusarazten eta ez dituzte epai sozial berdinak: bereizkeriak daude. Ez da berdina gay exekutibo bat izatea edo etxe-ko langile lesbiana bat, edo sexu langile transexuala. Lesbiana izatea zailtasunez betetako aukera dela gogorazi nahi dugu: oraindik orain, jendarteak epaitzen zaituelako, etxean zein kalean, amaizatea baldintzatzen dizutelako, sortu nahi duzun familia eraketa mugarazten dizutelako, kalean erasotzen zaituztelako.

Honegatik, ezinbestekoa iruditzen zaigu, txintxoak eta gaiztoen banaketaren aurrean oso garrantzitsua da lesbiana, gay, transexual edo hegemonikotik at kokatzen diren adierazpen guztiak ikusaraztea bai Leitzan eta baita, Euskal herrian eta mundu zabalean ere. Honela, Leitzan, ekainaren 28aren harira egingo diren ekimene-tan parte hartzea, gonbidatuta zaudete denak!

Jendarte eredu justuago bat lortze bidean herri-erorok badugu zer egin eta.

Urtetako borroka eraman gaitu, gaur, gay, lesbiana eta transexualok Leitzan ere ditugun aukera, eskubideen jabe izatera, oraindik, gure eskubideen benetako bermea lortze alde-ara lana asko dago egiteko herrian, kalean, gatzetxean, ikastetxean, zein instituzio publiko politikoetan ere.

Doneztebeko
kazerolada
sutan dago

Marga ERDOZAIN (Doneztebe)

Mikel AAAAA..., Marga Erdozain Azpilikueta, 72660123 JENA duenak, zuregana jotzen du zera adierazteko:

1.- Hemen duzu nire ize-na eta abizenak, zureak ez ditut, zure mezuari ize-

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

Irakurleak mintzo

na paratzea atzendu zai-
zu eta, hurrengoan jar-
tzea eskertuko nizuke.
2.- Eskubide osoa duzu
idatzi duzuna eta pen-
tsatzen duzuna adierazte-
ko (ez anonimotik, nos-
ki), baina nik ere bai, es-
kubide osoa dut garbi
adierazteko Hezkuntza-
tik ezarriko diren murriz-
keten kontra nagoea eta,
ni bezala jende gehiago,
(ia 300 sinadura ditugu
lekuko eta bertze horren-
bertze instantzia).
3.- Murrizketen kontra-
ko ekimenetan askata-
sun osoz parte hartu dut
eta ez dut inor behartu ez
konzentratzera, ez sina-
tzera ezta zapiak edo ka-
zeroladan parte hartze-
ra.
4.- Ni ere ama naiz eta
eskubide osoa dut gure
umeak zapi gorri eta ka-
zerola batekin eskolara
bidaltzeko. Zuk ere, Mi-
kel, eskubide osoa duzu
zure semea-alabak es-
kolara igortzeko zapiak
gabe eta kazerola gabe,
lasai matematika ari-
tak egiten dituzte. Gure-
ak beste gehiketa motak

ikasiko dituzte: elkartu-
suna, aldarrikapena bai-
ta komunitate baten inda-
rra gehitzen edo suma-
tzen ahal direla ikasiko
dute ere.
5.- Eskubide osoa duzu
baina nik zure eskubide-
ak ez ditut zapaldu eta
zuk, mehatzuren bidez,
kazerolada ludikoa, bai-
men guztiak izaten ahal
zituena, eskakizunaduna
eta jende anitzen gusto-
koa zena zapuztu duzu.
6.- Guraso elkartearen par-
te hartzera gonbidatu na-
hi zaitut, horrela eztabai-
datuko dugu aurrez au-
rrez eta jakinda nor za-
ren, ni nor naizen daki-
zun bezala.
7.- Ez dakit kazerolada
eginen den baina, Mikel,
jakin ezazu murrizketa
horien kontra lanean bu-
ru-belarri ariko naizela eta
indarrak metatuko ditu-
dala kontra segitzeko.
Zergatik? Ba, gure seme-
alaben etorkizunak
kezkatzen nauelako eta
kalitatezko hezkuntza uni-
bertsean sinesten du-
dalako eta horren alde
borrokan ari naizelako.

11 galdera labur

Nor dugu Izaskun Danboriena?

Galdera zailenarekin hasi zara! Per-
tsona normal bat, kirolaria eta az-
pilkuetarra.

Baduzu afiziorik?

Eskubaloia.

**Eskubaloian ala bankuko lanean
moldatzen zara hobekien?**

Hori batetik, nagusiak eta bertetik,
entrenatzaileak erran beharko luke.
Baina eskubaloia gustukoagoa dut.

BKT ala Oberena?

Oberena izan da nire azken taldea,
baina BKT beti nire etxea izan da.

**Krisi garaian hainbertze aipatzen
dira bankuak... Zuk banku barre-
netik nola ikusten duzu krisia?**

Momentu txarrean gaudela eta
oraindik luze ganen dela. Zonal-
de honetan oraindik ez da sobe-
ra sartu, okerrera etortzekoa dela
uste dut.

**Iruñeko eta Lesakako sanfermi-
nek ez duten zer dute Azpilkueta-
koek?**

Lasaitasuna eta trago bat lasai eta
gustura hartzeko aukera ederra.

Bestetako ekitaldirik gustukoena?

Zikero-jatea, dudarik gabe.

**Zein da danbolin-nausi izateak
ematen duen buruhausterik haun-
diena?**

Gehienbat, zein egunetan paratu
bestak eta egun bakoitzean zer an-

tolatu pentsatzea. Herri ttikietan
bestak lau egun nahiko eta sobera
dira, baina motz gelditzen da dena
egun horietan sartzeko eta dene-
taz oroitzea ere ez da erraza. Aur-
tengo bestak arras nobedosoak
heldu dira, danbolin-nausi gisa az-
ken urtea dugunez, gauzak egite-
ra animatu gara.

Azpilkuetako tokirik bereziena?

Zuaztoi, nire auzoa, dudarik gabe.

Bizitzeko toki bat?

Azpilkueta.

Amets bat?

Momentu txar hauek, orain pasa-
tzen ari garen kri-
sia eta istorio
hauek guztiak,
pasatzea eta
normaltasu-
nera pasat-
zea.



Izaskun DANBORIENA → Azpilkuetako gaztea



MERKEALDIA Martzutzak-en

- Berokiak, jakak, txamarak...: -%30, -%40
- Galtzak: bat -%20 | bi -%30
- Kamisetak: bat -%20 | bi -%30
- Soinekoak eta ganak: -%30, -%50
- Jertseak eta txoketak: -%30, -%50
- Haurren arropa: bat -%10 | bi -%20 | hiru -%30

Bidasoa, 12 | BERA • 948 631 425

KULTURA

BERTSOLARITZA → NAFARROA MAILAN

Joanes Ilarregi leitzarrak irabazi du 14 urte artekoen eskolarteko sariketa

2. saria ere
Beñat Altzelai
leitzarrak
eskuratu zuen

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, ikasturte amaierarekin batera, Nafarroako Bertso Eskolak beren eguna ospatu zuten ekainaren 9an Larrainzarren. Ikasturte honetan Nafarroako bertso eskoletan aritu diren haur eta gaztetxoak elkartu ziren, eta giro onean pasatu zuten eguna.

Hainbat jolas eta ekimenez gain, aurtengo Nafarroako Eskolarteko Ber-

tsolari Txapelketak ere egin ziren.

Goizean 14 urte artekoena egin zen eta Joanes Ilarregi leitzarrak eramane txapela. Bigarren sailkatua ere leitzarra izan zen, Beñat Altzelai. Arratsaldean, berriz, 14 eta 18 urte bitarteko eskolartekoa egin zen, bederatzirekin. Barañaingo Mikel Lasartek jantzi zuen txapela eta bigarren postua Maddalen Lopez lesakarrarentzat izan zen.

Lau bertsolariok Nafarroako ordezkariak izan ziren hilaren 16an Agurainen (Araba) egin zen Euskal Herriko sariketan.



ARGAZKIA: BERTSOZALE ELKARTEA
Bertso eskoletan ari direnak elkartu ziren ekainaren 9an Larrainzarren.



ARGAZKIA: BORTZIRIETAKO BERTSO ESKOLA

Baztan-Bidasoko bertso paper lehiaketako sariak banatu dituzte

Bortzirietako Bertso Eskolak eta Berako Kultur Batzordeak Bortzirietako Euskara Mankomunitatearekin batera antolatutako XXV. Baztan-Bidasoko bertso paper lehiaketako epaimahaiak saridunak jakitera eman ditu. Guztira 78 lan entregatu dira eta horien artean, A kategorian, Lesakako Ane Telletxea lgoak lehen saria eskuratu du eta Ane Fagoaga Moreno beratarrek bigarrena. B kategorian, Azkaineko Aitor Servier-Etchechurik irabazi du eta Doneztebeko Beatriz Maritorea Ganboa bigarren izan da. C kategorian, Lesakara joan dira bi sariak: lehena Mikel Telletxearentzat eta bigarrena Gorka Sanjurjorentzat. D kategorian, azkenik, Julen Zelaiea beratarrek lehenbiziko saria eskuratu du eta Iban Garro lesakarrak bigarrena.



ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

Euskarazko eskola-lehiaketen sariak banatu ditu Gobernuak

Nafarroako Gobernuak 2011-2012 ikasturterako deitutako euskarazko eskola-lehiaketen sariak banatu zituen ekainaren 8an. Aurkeztutako 1.570 lanen artean, 23 saritu dituzte eta aunitz eskualdekoak dira. Narratiba-mailan, Leitzako Erleta ikastetxeko Leire Erbitik bigarren saria eskuratu du Lehen Hezkuntzan eta Berako Labiaga ikastolako Ainhoa Aguilarrek bigarren saria lortu du Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan. Deklamazio, irrati-gidoi eta podcast lehiaketan, Erleta ikastetxeko Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklokoen Txori basoko banda txikia izan da saritua. Azkenik, bertso idatzien lehiaketan, Berako Ricardo Barojako Lorena Perez (Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa) eta Erleta eskolako Oiherr Altzelai (Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa) sarituak izan dira.



ARGAZKIA: BERTSOZALE ELKARTEA

14 urte artekoak. Txapelarekin Joanes Ilarregi.



ARGAZKIA: BERTSOZALE ELKARTEA

14-18 urtekoak. Txapelarekin Mikel Lasarte.

LESAKAko bestak 2012

uztailaren 6tik 10era



ITURBENA



KAFETEGIA - OGITARTEKOAK - BOLLOAK
T 619 188 360 / KOSKONTAKO BIDEA, 5 / LESAKA


ETXEPARE anaiak
Igaltzeritza orolarraren
Ongi pasatu bestak!



Berrina, 22 • LESAKA
948 637 431 • 608 576 504

TALLERES FRAIN
LESAKA Tel: 948 637 538
Ongi pasa bestak!

IRU BIDE Landaregi, Auzoa
Berrina, 3
LESAKA
Tel: 948 637 537



GARBILEKU
Garbitegia Lesaka
Plaza Berria, 10 • LESAKA • T. 948 637 438

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Ongi pasa Sanferminak
Otsango auzoa • LESAKA | T. 948 637 826



eh
HOTEL CHURRUT
Churrut jatetxeak besta zoriontsuak
opa ditzkizue eta urte osoko gure menuak
ezagutzera gonbidatzen zaituztegu:

- Eguneko menua asteleneretik ostiral eguerdira arte (14,00€)
- Asteburuko menuak (25,00€)
- Tailoentzako menuak
- Jaunartze, ezkoniza... menuak
- Menu pertsonalizatuak eta neurria egokituzak
- Sasoiako produktuekin osatutako karta

Foruen plaza BERA | tel.: 948625540
www.hotelchurrut.com

LESAKAKO
bestak 2012



EGITARAUA

Ekainak 29 ortzirala

20:00 Lesakako Musika Bandaren kontzertua Eskol Ttikiko aparkalekuan.

Ekainak 30 larunbata

15:30 Ilasmendiko tiro-eremuan Plater Tiro Lehiaketa Pagolleta Ehiza Elkarteak antolatua. 16:00 Arkupe elkarteak antolatua, haurren pilota erakustaldia.

Uztailak 1 igandea

12:00 Profesionalen pala partidak. 17:30 Trikitixa Txapelketa Plaza Zaharrean.

Uztailak 6 ortzirala BEZPERA EGUNA

12:00 Herriko Etxetik botako den altxaferoak emanen die hasiera bestei. Txistulari, soinulari, trikitilari eta haur ttikien danborradak girotuko dituzte karrikak. 12:00 Ezkil jotzea. 17:30 Frontoian, Tantarumairu Dantza Taldearen erakustaldia. 20:00 Peñen ordezkariak altxaferoa bota ondotik, danborrada nagusia abiatuko da erraldoi eta buruhandi, danbor-jole eta soinulari, eta Lesakako Bandaren itzulia karrikaz karrika. 22:00 Herriko musika taldeen emanaldia; Askatu eta Arma Tiro Punk. 00:00 Musika Plaza Zaharrean, TRIKIDANTZ taldearekin.



Gara San Fermin!

udana
salazones
*Importazioko
bahuila gasarua,
gocatu eta kongelatu*



Alkaiaga Ind. • Lesaka • T. 948 631 538 • F. 948 631 550

ainhoa
estilista

Ongi pasa bestak!

ORAIN EGUNA
Astearterik ostiralera:
09:30-13:30 | 16:00-19:00
Larunbatetan: 09:00-14:00
Asteleneretan itxia

T. 948 638 170
ORAIN: Albistur, 63B LESAKA





Uztailak 7 larunbata SAN FERMIN EGUNA

08:30 Ezpatadantzarien meza isila. Joan-etorria Txistulari bandaren laguntzaz eginen da. **10:30** Udaltzatza Ezpatadantzari eta Musika Bandarekin batera, herriko ikurrak aitzinean dituztela abiatuko dira Herriko Etxetik elizara. Mezan, Lesakako Abesbatzak parte hartuko du. Ondotik prozesioa eta, elizara itzuli ondotik, Udaltzatza bere segizioarekin Eskolttikira jaitsiko da Onin errekaaren bi aldeetan egiten den ZUBIGAINEKOA ikustera. Bandera-arbola doinuari dagokion ikurrin-agurra zubi gainean. Agur edo dantza bera Plaza Zaharrean, ikurra Herriko Etxera igan aitzinean. **18:00** Bezperak; Elizarako eta Elizatik joan-etorria Meza Nagusira bezala eginen da. Bezperetan, Lesakako Abesbatzak kantatuko du. Bezperen ondotik eta ohiturari jarraituz, Ezpatadantzari taldeak MUTILDANTZA, NESKA-DANTZA, AURRESKU eta JOTAK dantzatzeko ditu Plaza Zaharrean. **19:30** Plaza Zaharrean, bertso jaialdia, Arrano Elkarteak antolatua. *Errimak Exkaxko* bardo txapeldunen agurra. Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Julio Soto eta Xabier Silveira. Aurkezlea: Garazi Conde. **Gauez** Musika Plaza Zaharrean, ENDARA DJs taldearekin.

Uztailak 8 igandea PEÑEN EGUNA

09:00 Peñen gosaria. **10:00** Peñen danborrada, Pasai Txarangarekin. **12:00** Betizuak, Plaza Zaharrean Pasai Txarangarekin. **17:00** Plaza Zaharrean haurrentzako ikuskizuna. **18:00** Peñen kontzentrazioa Peñen jeitsierarako Pasai Txarangarekin. **21:00** *etatik aurera* Musika Plaza Zaharrean TXIMELETA taldearekin.



Lesaka margoak
 • Pinturak, marrazkiak, grabatuak
 • Erakusketak
 • Erakusketak, erakusketak, erakusketak
 • Erakusketak, erakusketak, erakusketak
 948 637 554 / 948 637 475 • posttutundak@kattagorria.com

MIKEL UBIRIA
ESKABAZIOAK | GARRAIOAK
 948 637 8037
 Tel: 948 637 214
 Muz: 918 716 222
 608 779 641
 Bitriña plaza, 8 - LESAKA

Pippirio
berriak, berriak, berriak
 Plaza Zaharra, 26 • Lesaka
 T. 948 63 80 37

FAGOAGA HARATEGIA
 Aupa San Fermín !!
 Alkazar 12 - 948 6378 69 - LESAKA

ongi pasatu bestak!
IZARRA OKINDEGIA
 PLAZA ZAHARRA 12-13
 31770 LESAKA NAFARROA
 TEL: 948 637 855

kattagorria
 Antzerkia, erakusketak
 %10 *antzerki taldeentzako* *erakusketentzako* deskontua
 Ezagutu gure online dendat
www.kattagorria.com
ongi pasatu bestak!

Juan Luis
OTXOTEKO
 Pintorea
 Gora San Fermín !!
 Eskatu aurrekontua konpromisoarik gabe:
 Bitriña, 26 3B - LESAKA - T. 948 637 902 - M.678 993 818
 otxotekopintura@yahoo.es

LEGARRA

egunkariak | aldizkariak | liburak | oharak | albakoa
 irratia | gaitortasunak | jardueraak | jaiak | zuzenbidea
ORAIN A3 NEURRIAN ERE PLASTIFIKATZEN DUGU

Bestetan egunero irekia: 08:30-13:00

T/F. 948 63 70 30 - Albistur, 9 - LESAKA
 lesaka@legarra.org



BORTZIRI UNIOI ANAIAK

Sokaberako arzak
ONET PASA BESTAK!
 Bortziri eta LESAKA

Tel.: 948 637 260 - 637 220 891 - Fax: 948 637 811



-TELLETXEA-

Lorazaintza

- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatze sistema automatikoak -
- Kimaketak -

John Telletxea Nekazaritza Injeneriaren Teknikaria
 LESAKA • T. 619 418 683
 john.telletxea@bortziri.com
 www.telletxealorazaintza.com



ruth

ILU AFAMDEGIA

948 637 436
LESAKA

Besta
 zoriontsuak
 opa dirakizuegu!



LESAKAKO bestak 2012

Uztailak 9 astelehena HAURRAREN EGUNA

10:30 Haur eta gurasoen danborrada Pasai Txarangarekin. **11:30** Haurrentzako entzierroa kartoizko zezenekin ikastolatik plazara. **12:00** Haur animazioa, 'Gorriti', Eltzeta plazan. **12:00** Betizuak, Plaza Zaharrean, txarangarekin. **17:00** Plaza Zaharrean haurrentzako tailerrak eta Patxi Perezen emanaldia. **18:00** Frontoian, eskuzko pilota partida profesionalak. **Arratsaldez** Pasai txaranga karriketan. **23:00etatik aurrera** Musika Plaza Zaharrean TRIKI TA KE taldearekin.

Uztailak 10 asteartea BIKOTEEN EGUNA

10:00-12:00 Haurrentzako tailerrak Koskontako Bideko Plazan. **11:30** Haurrentzako entzierroa kartoizko zezenekin Bittiriako plazara. **11:30** Zahar Etxeko lorategian Nafarroako Jotak, VOCES DEL EBRO taldearekin, San Fermin Elkarteak antolatua. **12:00** Betizuak, Plaza Zaharrean, Pasai Txarangarekin. **14:00** Herri bazkaria Eltzetan. **18:00** Plaza Zaharrean, Nafarroako Jotak, VOCES DEL EBRO taldearekin. **18:00** Eskoltzikitiki Txakainera kalejira Musika Bandarekin. **20:00** Txakaindik jeitsiera, ZORTZIKO doinuarekin. **Arratsaldez eta gauetz** Musika Plazan MODESTOrekin. **03:30** Jai-Hilak Pasai Txarangarekin.




esarte

Santiago 83 B bajo
 31700 Elizondo
 T 948 581 907
 www.precocinadosesarte.com



Gaizka SARASOLA | Presoen senidea

«Lagunekin eta familiarekin afaldu edo trago batzuk hartzea faltan somatuko dute»

Presoen senideek izanen dute aurten Sanferminetako lehen suzrietako bat botatzeko aukera eta horien ordezkari gisara, Gaizka Sarasolarekin izan gara. **«Lehen jendearen onarpena bagenuen, –dio Gaizkak– baina orain udalarena ere bai, beraz, erdi ezkutu-tuka, erdi borrokan ibiltzetik jendaurrea irekitzeko eta onarpen horretarako pausu modura ulertzen dugu txupinazoa bota ahal izatea».**

Preso dagoenarentzat, eguneroko dinamikan sarturik, bestetan ez dela aldaketa handi-egirik ere erran digu: **«Bakoitzak berea bitzuko du, baina han eguneroko dinamikan sartuak daude. Halere, noski, oroitzen dira herrian bestak direla eta horrelakoetan nahiago izaten dute etxeoak, senideak eta lagunak bisitan ez joatea, hauek ere bestetaz gozatu ahal izateko, bai baitakite guretzat ere besta egitea garrantzisa dela. Beraiek barrenean igual zerbaitera gonbidatuko dituzte lagunak eta horrelako gauzak, baina eguneroko dinamika horretatik sobera atera gabe».** Ez du uste normalak baino egun tristeagoak direnik ere beraietzat, **«bestak direla oroitu-tuko dira eta lagunak eta senideak besta egiten eta ongi pasatzen ariko direla gogoratuko dute, baina ez dut uste tristeagoak izanen direnik. Beharbada lagunekin edo familiarekin afaltzea, bazkaltzea edo trago batzuk hartzea faltan botako dute»**,

dio. Momentuaren arabera, senideak egun horietan gehixeago oroitzen direla ere onartzen du Sarasolak, **«presoa dagoena noizbait ezpatadantzaria izan bada dantzako momentu horretan igual beraietzat oroitzen zara edo nola egiten zuen dantza gogoratzen duzu. Momentu berexi eta puntual horietan gehiago oroitzen zara, baina urte osoan ere badi-ra momentu puntual horiek, oroitzapen ezberdinak burura etortzen zaizkizun egun berezi-ak. Aunizetan preso dagoenaren bizipenaren arabera izaten dira oroitzapen horiek ere».**

Lesakako presoen senideek banaz bertze 1.600 km egin behar izaten dituzte bisita aldiro. Hortaz, **«Sanferminetan normalean Lesakan bizi ez diren senideek edo lagunak egiten dituzte bisitak, herriko jendea libratzeko modua eskainiz nolapaitere. Aste bukaera guzietan izaten dira bisitak eta egun horietan ‘oporrak’ ematen dizkigute»**, erran digu Gaizkak.



uski ongi pasatu berriak!

MOTA GUZTIETAKO GARBIKETAK

- Bulegoak, portalak, etxeak, irristalak, garbiketa ospakizun eta erakuntza berriak.
- Industria-erakundeetan lan egiten duguz.
- "Fregado en pilano" delakoa.
- Produktu profesionalak erabiltzen dituzten erakundeak.

T. 689 305 221 (Oihana) LESAKA

TXAKAIN
Txakain Txakain
Txakain Txakain

MOTA GUZTIETAKO IBILGAILUAK

EKO TXAKAIN S.L.

LANBARKO HONDAIEN BILLETIA

Gora Fermin

T. 948 625 100 / 948 625 102
Faxa: 948 627 378
Oihana: 28 • LESAKA
www.txakain.com

ZOANSA

ZOANSA

MANA GUZTIEN KONPONKETA

Bonata, 2 - Alkaga Industriakia
LESAKA (Jamara Berak)
Tel: 948 625 555 - Fax: 948 625 505

bixkiak
KIROL ETA MODAKO
a s i e p o d e l a d a

Arreba, 7 B2 • LESAKA
948 638 110

Desigual

KASINO
OSTATUA - RESTAURANTE

jai alai eta pozgarriak izan itzazuen

Plaza Zaharra
LESAKA
948 63 72 87

TRANSPORTES IRIGOYEN
ONGI PASA BESTAK
629 592 215 - Berruñu auzoa, 1 - LESAKA

KATTU Txerema - Jatorriak
ONGI PASA BESTAK
Asteburuetan:
Menuak | Paster Konbinatuak
Ogitartekoak | Hamburgerak
Sandwich-ak
948 627 573 + 618 735 639 + LESAKA

MARMOLES ALKAIAGA, S.L.
Gisa guzietako lanak marmol eta granitoan
ONGI PASA BESTAK
Alkaiaga Ind. Ziobit, 11 (sarrera Beratik) - LESAKA
Tel: 948 631 215 Faxa: 948 631 063
Mug: 609 207 731
marmolesalkaiaga@telefonica.net

ONGI PASA BESTAK
D
««««« H I R U K I D E «««««
Eguzki panelak «» | Burginotz
Industria mantenimendua «»
Aire egokitua «»
T./F. 948 625 395
Alvarez Ind. - Astea, 4-6 Behea - 31770 LESAKA

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- % Langile autonomoak
- % Nekazariak eta mendi langileak
- % Nominak eta Aseguro Sozialak
- % Lan-Kontratutarako laguntzak
- % Enpresa berriz eginduen sortzea
- % Diru-laguntza ezberdinak
- % Kontabilitateak
- % IVA eta IRPF
- % Eremita alorperak
- % Elbarritasun eta jukitazio espedienteak
- % Bidegarritasun planak eta aurkeztuak

LESAKA: Berruñu, 71-behea
Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 404
BURLATA: Lu Viala, 4
Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713
amaia@artekari.com



Matixa OTEIZA | Programaren azal lehiaketako irabazlea

«Dantzariak oinarri duten lanak politak dira, baina zerbait ezberdina egin nahi nuen»

Publizitatea eta Harreman Publikoak ikasten du Euskal Herriko Unibertsitatean Matixa Oteiza, 19 urteko lesakarrak. Lehen aldiz, Sanferminetako kartel eta programaren azal lehiaketara bere lanak aurkeztu ditu eta azal lehiaketan irabazle suertatu da, zintzilikatutako espartzinak agertzen dituen argazki batekin. **«Ezpatadantziarietan oinarrituta egin diren lanak hagitz politak iruditu zaizkit, -aipatu digu- baina zerbait desberdina egiteko gogoia nuen. Lagun batekin kalera ateri nintzen argazkiak ateratzera eta ideia hori atera zen azkenean».**

Sanferminak gogoko ditu eta ahal duen ekitaldi gehienetan gogotsu hartzen du parte. **«Suposatzen dut lesakarrak diren bertze guztientzat bezala, Sanferminak bereziak dira niretzat eta gogoia anitzekin hartzen ditut urtero. Oraingoz ez dut aukerarik izan dantzari izateko, baina peñen egunean eta ahal dudana guztian gogotsu parte hartzen dut»** aipatu digu Frain peñako kide den neska gazteak.

Egunez edo gauez, besta noiz nahiago duen galdetzerakoan zalantza gehiago agertu ditu: **«Ez dakit, ezin dut bat edo bertze aukeratu. Sanferminak gau eta egunez bizitzen dira eta momentu bakoitzak badu bere xarma».** Sanferminetan gehien gustatzen zaion eguna peñen eguna baldin bada ere, **«ekitaldi bat hautatzekotan San Fermin egunean dantzariak dantzatzen duten Zubigainekoa aukeratuko nuke».**

Gaur egungo egitarauan dena gustatzen zaio Matixari, baina posible izanzen balu **«kontzertuak ekartzea gustatuko litzaidake, berbera eta dj-er gain»** jakinarazi digu. Krisi garai hauetan, 400 euroko saria ongi etorriko zaiola ere onartu du Oteizak, **«400 euro ez daude inoiz soberan, baina momentu hauetan inoiz baino gehiago eskertzen dut saria. Sanferminak lasaia pasako ditut».** Gainera,

abuztuan Brasileria joatekoa da ikasketekin segitzera eta ikasturte osoa han eman behar duenez, horretarako ere ongi etorriko da saria. Uztailaren 11n, behin Lesakako sanferminak bukatuta, Iruñera kuku egitera ere joanen omen da. **«Normalean etxean gelditzen naiz bestondoa pasatzen, baina aurten Iruñera joateko intentzioa dugu, gorputzak erantzuten badu behintzat».**



Matixa Oteiza eta Jasone Maritxalar, lehiaketako irabazle suertatu diren beraien lanekin.



Jasone TELLETXEA | Kartel lehiaketako irabazlea

«Sanferminak fotogenikoak dira, baina argazkietarako nahiago ditut inauteriak»

Familiako negozioa izaki eurena, Telletxea argazkidendan laguntzen ttikitari hasi zen Jasone Maritxalar eta 18-19 urterako lanean hasi zen. 45 urterekin, lehen aldiz irabazi du Sanferminetako kartel lehiaketa. **«Bizpahiru aldiz aurkeztu dut—dio berak—. Batean neska dantzarien irudia aurkeztu nuen, baina horizontalean eta joan den urtean nahita bertikalean atera nuen argazkia, kartelean sartu ahal izateko. Ezpatadantzariak ere sartu nituen argazkian, iduriz, neskenak bakarrik ez duelako arrakastarik».** Berak emakume dantzariak aukeratu ditu bere kartelean gai zentral moduan. **«Orain herri bozketarekin beharbada aldatu da, baina lehen ez bazen ezpatadantzariak agertzen hagitz zail zenuen irabaztea, noski. Orain, botazioa popularra denez, badirudi gauza gehiago probatzen ahal direla, baina azken finean dantzariak dira hemengo berezitasuna eta normala da sartzea ere»** aipatu digu Telletxeak. Herri bozketari bidez aukeratua izateak ere poz handia ematen dio, **«hagitz diferentea da, zure lana jendearen gustokoa izan dela erran nahi duelako. Bertze modura badakizu epaimahai bateri gustatu zaiola, baina beharbada jendearekin ez».** Lanbidez argazkilaria, Sanferminak fotogenikoak ote diren galdegin diogu: **«Bai, fotogenikoak dira, baina nahiago ditut inauteriak. Sanferminetan badirudi beti gauza bera ateratzen ari zarela, txuria eta gorria, hagitz zaila da gauza ezberdinak sortzea. Nerretzat argazkiak ateratzeko politagoak dira inauteriak, gauza ezberdinak izaten direlako».** Hori bai, sanferminetan goizero lanera joan behar izaten du, **«baina eguerdi parteko 'marianitoa' eta arratsaldean eta arratsean ere ateratzen naiz, 'nolabaitere' pasatzen dugu astea».** Aspaldi egun horretan ateratzen ez bada ere, Betizuak peñako kide da Jasone. Hiru urtez dantzari ere izan zen, **«denbora hartan nesken kapitaina alkatearen alaba izan behar zuen beti, orain zozketa egiten dute»** gogoratzen du.

Bestetatik politena, Sanfermin goizeko dantzarien abiatzea iruditzen zaio, **«plazatik abiatzen direnean. Peñen jautsiera ere polita da. Bakillak ere aunitz gusatzaten zaizkit. Bada jendea kendu beharko**

zirela erraten duena, baina nerretzat ez!» jakinarazi digu Telletxeak.



BAR FRONTÓN
PLAZA HERRI Nº 39/40/41/42/43 LESAKA

IÑAKI JANARIDENDA
"OKO PATA BESTIA"
Arretxea, 12 • LESAKA • 948 638 287

intzuri OPTIKA
BETIZUA 28 31770 LESAKA
Telefonoa 948 627 550
San Fermin
onak optikazueguz

Barceló BIDAIAK
Plaza Zuzena, 4 LESAKA
948 626 176
info@barcelo.com
OPORRAK GUREKIN

antxordoki
ILKATZARITZA SA ERREKIA
- Aurrepeko tratamenduak
- Ximuren tratamenduak - C tratamenduak
- Oligomanoa
- Tratamenduak jermooestimulagileen bidez
- Zentzua - Erredukzioa
- Funtzioak - Sibilakzioak
- Depilazio elektriko eta zerarekin
- Solariuma
- Eskontza eta bestetako makillajea
- Pedikura
- Manikura
Abiatu 39 LESAKA tel. 948 637 713
Kontsultatu gure eskaintza berriak



INDARRI
Hotz komertziala eta industriala
Aire girotua
Tel: 948 637 335
Mug: 948 101 305 BERA
ONSI PASA BESTAKU



TXIRULA
LOREDENDA
opariak • bitxiak
enmarkazioak
Albistur 39 LESAKA
T. 948 627 542

Dia %
LESACA
Sanferminetan
atorda goxoak
prestatzeko
LESAKAKO DIA
Plaza Berria, 10 - 948 637 335

JAVIER ALZUGARAI S.L.U
Hondeaketa eta Garraio Lanak
ONSI PASA BESTAKU
Nabaz azala | Galdin-bidea 12170 Leizola | BERRA
T. 948 786 448 | F. 948 637 390
www.alzugarai.com



ESKAINZA BEREZIAKI
autoeskola
- INFORMATU ZAITEZ -
Eztegara pasealekua, 26 BERA
T. 948 630 798
e-posta: semperautoeskola@gmail.com
web: Pasa Bestak



KOXKONTA Jabetzea
- Sanferminetako menu berezia -
- Karlo -
T. 948 627 519 • 948 627 503 • 609 801 457
Otsangó auzoa, 1 • LESAKA




Joxe ITURRIA | Gernika eta Durangoko bonbardaketen lekuko

«Gernikakoa ezagunagoa da, baina Durangoko bonbardeoa ere aski gogorra izan zen»

97 urte ditu Joxe Iturriak. 1914ko Santa Zezilia egunean jaio zen Luberrondon, azaroaren 22an. Aita dagoeneko desagertua den baserri hartakoa zen eta ama Ontsalekoa, hau ere desagertua. Sei anai-arrebetan zaharrena, bortz senideak hiltzen ikusi ditu. Gaur egun Garaikomendiko Bideko Ezkuntzan bizi da. Lotsa pixko bat ematen dion arren, aurtan Sanferminetako txupinazoa botatzeko aukera izanen du duela 75 urte Gernika eta Durangoko bonbardaketen lekuko zuzena izan zenak. Soldadokoa egiten ari zela, 22 urterekin, Errepublikako txoferra zen eta bere buru argiarekin garbi gogoratzen ditu une gogor haiek. «**Lehenbiziko bonbardeoa Durangokoa izan zen** (1937ko martxoaren 31n), **gogorra izan zen hura ere. Handik kamioiarekin Gernikara joan eta hangoa ere suertatu zitzaigun, handiagoa oraindik** (1937ko apirilaren 26a). **Donostiatik eskapo heldu ginen, atzeraka-atzeraka eta Durango eta Eibar inguruan gelditu zen frentea. Durangoko frontoian egoten zen Donostiatik-eta ebakuatutako jendea eta han pilaka hil zituzten. Kamioiarekin hilak kanposantura eramaten aritu nintzen. Orduan, errepresalia moduan, kartzelan zegoen eskuineko jendea atera zuten, 12-14 lagun eta kanposantura eraman zituzten fusilatzerara. Hura gogoan gelditu zait, bidean errosarioa errezatzen eta gibeletik fusileroak. Gernikatik gibelka-gibelka Bilbora joan ginen eskapo, gero Santanderrera eta azkenean Asturiasera, Villaviciosa, han hartu ninduten preso. Bi hilabete egon nintzen».**

Asturiasko espetxealditik ateratzeko modua ere berezia izan zen, nazionalen bandoan zeuden hiru lesakarren laguntza izan baitzuen: «**Fabrika zahar batean zegoen 'campo de concentración'**—gogoratzen du—. **Bizarra kentzen ari nintzen, ispilurik ez nuen eta barrika baten urari begira eta han ikusten ditut portaletik barrenera hiru gizon... Hurbildu zirenean ohartu nintzen lesakarrak zirela, Morronbaitako Doroteo Apeztegia, Luis Erkizia eta Martirreneko Prantxisku Oizartabal, ni baino zaharxeagoak hiruak. 'Koño! Goazen hemendikan!' erran zidaten; 'Nola joan behar diagu, ikusko duk guardiak...' nik. 'Ez dik inporta!' haiek eta segidan bueltan ekarriko nindutela erran zioten guardiari. Bere superioarengana joan ziren, ezagutzen nindutela, nere familia reketé zela erranez, kriston gezurrekin... Azkenean behinpin, paper bat eskribitu eta sinatzeko, eskautzen banintzen beraiek kargu egiten zutela eta beraiek joanen zirela kartzelera erranez... Orduan papera egin behar eta inork ez jakiki papera egiten. Eskola gehientsuena neronek nuen, noski, eta neronek idatzi nuen libertadea ematen zidan papera eta eurek firmatu zuten. Kapitaina edo dena delako hari presentatu eta martxa! Gainera, bakoitzak bosna**

Lesaka - Bera
AUTOESKOLA
Eztegara, 12 • BERA | Iturrizubiako plaza 8 • LESAKA
948 630 652 | 948 637 870
ESKAINZA BEREZIAKI
Osakaberrit gaitiak
Gaiaberrit gaitiak
Inerziozko duketa
Ordu berrak BERA n erri
Gora Sanferminak





Joxe Iturria, Ezkuntzako balkoian.

duro eman zidan, orduko dirua zen, eta betirako eskertua egonen naiz. Handik tren militarrean Irunera etorri nintzen, 3-4 egun bai... Goizaldera ailegatu eta Irunen inor ez ezagutzen. Han Arantzako Patziku Bergara taxista topatu eta Lesakara ekarri ninduen. Etxera ailegatu eta hura poza amak, hila nintzela errana baitzioten».

Baina ez ziren han gerrako gorabeherak bukatu Joxerentzat. Bizpahiru egun etxean gorderik eman ondotik, guardia zibilaren kuartelean aurkeztu, handik gerra aitzineko bere destinoa zen Loiolako kuartelera bidali eta handik Gasteizera, *Junta de depuración* delakora: «**Komentu zahar batean kartzeleratuak izan ginen eta handik ateratzen gintuzten juntara eta han kriston palizak, egunero, hilabete batez igual bai. 'Zergatik ez zinen Donostian gelditu?' galdetu eta nik 'ordurako Bilbo aldera ateriak ginelako' eta, 'Bilbon zergatik ez zinen gelditu?', 'Santanderretera ateriak ginelako', aitzakiak paratzen. Behin 'depuratuta' Zaragozara bidali gintuzten trenean hiru lagun, ailegatu eta ez genuela kuartelean presentatu behar! Diru pixar bat bagenuen eta bi egun pasatu genituen juergan, diruak akautu arte, gero kuartelera. Zine-*ra joan ginen batean, eta Nodoan Gernikako bonbardeoa... 'La metralla roja ha deshecho Gernika' erranez, eta gu han egonduak: 'begizak, begizak, nola zabalitzen duen gezurra Franco zerri horrek' erraten genion elkarri.***

Zaragozan koronel baten txofer izan zen, gerraren ondorioz utzitako auto eta kamioiak berreskuratzen. «**Txoferrak izaten genituen gasolina erosteko bale batzuk eta haiekin negoziatioan ere aritzen ginen, taxistei salduz... Kotxearen erremientak ere**

GORA SAN FERMIN!
borzrudo
ZAPARRA - KOPETETA
948 831 521
materiala, bostaketa, lanak, bostaketa, zaparrak, bostaketa, bostaketa

MATIAS MITXELENA
eraikuntzak
Etxeak •
Zorabentzeak •
Telatutak •
T. 948 63 71 82-608 77 79 08 LESAKA

BURBUILA
Bittiria, 36 • LESAKA • 948 638 004

APITTU
ALUMINIO LANAK

- Aluminiozko Leihoak
- Kontraleihoak
- Ateak
- Portxeiko Itxiturak eta barandak

Ongi pasa bestaki!

T./F. 948 638 297
M. 826 312 328
Otsango auzoa
12. pabilioia
31770 Lesaka

JOISA
AROZTEGIA
MAKINA ERREMINTA
ERAIKUNTZA MEKANIKOAK
Barandak, balkoiak, ateak,
hesiak, forja artistikoa, ...
T./F. 948 638 150
M. 646 774 117
ONGI PASA BESTAKI!
Otsango Ind. • 31770 LESAKA • talleresjoisa@hotmail.com

GESTETIKA
BOAZABAL

Ongi jasa bestak!

Abilak: 15
T: 948 63 72 80
31770 Lesaka

BORDA ISOLAMENDUAK

ISOLAMENDUAK
Termiok | Aburriak | Sabor berriak

PLADUR LANAK • Ereberriak • Erekinak
Industria • Dekorazio • Sabe modurak

T: 948 637 566 • M: 609 477 377
LESACA • bordaisolamenduak@telefonica.net

ekhi

Kafetegia Okindega Pasteleria

Tel: 948 637 299
www.ekhi.es

Bizkaia
LESACA

Urdi Lesaka

Lesakako udal kiroldegia

«Gara san firmat eza nagi para bestak!!»

T: 948 637 400 • LESACA • lesaka@unibil.com

LESAKAKO
bestak 2012



saltzen genizkien», dio lesakarrak. Hiru anai gazteagoak gerran zirelako lizentziatu zuten: «Zaragoza-Pamplona autobusa hartu nuen segidan. Tudelan gelditu zen ordubete afaltzeko eta han Lesakako Cecilio Etxeberria txoferra topatu nuen. Lizentziatu nintzela eta hark 'egin behar diagu besta!'. Afaldu, autobusa joan... 'Etzakela aputu!, nik eramanen haut kamioian!', cognac botila hartu biderako eta Lesakara. Belaten guardia zibilaren kontrola, terrible! Ceciliok 'en comisión de servicio' erran eta guardia zibilak 'A sus ordenes' eta segi! Nere denboran behin bakarrik mozkortu nintzen eta egun hartan izan zen. Lesakara ailegatu eta Romualdoren etxera (Kasino), han cognac edo anis botila erosi, hura itxi zenean Rekondoren panaderira eta handik Fonda Jaleora. Biurranako zubi hori mehar xamarra iruditu eta lau patatan pasatu behar izan nuen» dio irrika Iturriak. Gazte denboran ezpatadantzari ere atera izan da Joxe Iturria eta juerga ederrak egina da herriko bestetan: «Zubigainekoa eta arratsaldeko dantzak orain bezala egiten ziren, igual-igual. Sanfermingo laugarrenean Txakaingo besta izaten zen. Gabaz ere egiten zen orduan besta suelta, gorputzak agoantzen zuen bitartean. Albienea etortzen zen ostatuak ixtera, Mamurrogorri deitzen geniona, baina hura ere mozkortzen baitzen ardoa emanda! Ostatuak noizbait ixten zirenean, denak Fonda Jaleora, hark izena ongi paratua zuen! Jende zelebre aunitz biltzen ginen han, infernuko demonioa baino gaixtoagoak batzuk. Batixta Fraile joaten zenean, akabo! Airean denak. Amotrin izaten zen nagusia eta hau ohatzean lo zegoela, Batixta honek astoa bizkarrean hartu eta gainera bota eta ohatzea xehetua, ixkanbila ederra sortu zen!». Bertze egun bateko pasadizoa ere gogoan du Iturriak: «Plazako arratsede musika akautu eta neska laguntzera joan ginen Peruarango Eladio Alzugarai eta biok Arrupekobordara. Bueltarakoan galdu eta bidea ez harrapatzen inondik ere. Noizbait goiko zentralaren kanalea harrapatu genuen, kanalez kanal joan, tuberian beheiti pasatu eta ailegatu ginen herrira». Orain bezala, lehen ere zezenak ateratzen ziren plazan eta baziren estu ibiltzen zirenak, Iturriak aipatu digunez: «Berako fabrikako ingeniero jefea, Angel Garin, beste tan gonbidatu zuen Herriko Etxeak. Zezenak plazan lasterka eta Txomineko ondo horretan, Don Diego Olaetxea medikuak erran zion Garin honeri, 'goazen barrerera, ez gaitzela xexen hauek harrapatu' eta honek, 'ez bazara mugitzen hauek ez dute kasurik egiten'. Etortzen da zezena, sartzen dio adarra galtzaren beheko ondotikan eta uzten du gizona kaltzontzilo zuri luze batzuk ageri!».

IREKI
LEIHOAK

T: 948 630 962
F: 948 625 400
M: 626 313 162

Aluminio R.P.T / PVC
Itxidurak
Kontraleihoak
Barandak | Berandak
Pertsianak | Toldoak

www.irekileihoak.com

Zalain Ind., 8 | BERA
irekileihoak@irekileihoak.com

Berriz ere ingelesa irailerako?
Frantsesa ez duzu zainditu?
Hizkuntzak ez zaizkizu gustatzen?

Tira! Ahantzi dramak...



acorn

Quality Language Learning

Koskontako bidea, 11, behea LESAKA
948 637 135 info@acomlanguages.com
www.acornlanguages.com

ACORN LANGUAGESEn, uda honetan,
nahi duzun hizkuntza
ikasi ahal izanen duzu
modu natural eta dibertigarrian

Ingeles- eta frantses-ikastaro trinkoak,
2 eta 4 astekoak,
gaztetxoentzat bereziki prestatuak

Eta irrikiantza

ingeles-udalekuak + jarduerak
4 ordu egunean astelehenetik ortziralera.
Ingelesezko
2 eskola-ordu + 2 jarduera-ordu:
kirola, artea, sukaldaritza, ipuinak, antzerkia...

Hasiara: 2012/07/02a

MATRIKULA DOHAINIK

(San Fermin Bestak diren bitartean,
eskola itxia egonen da, eta egun horiek
errekuperatu eginen dira)

**Eta ez galdu atzerriko
ikastaroak egiteko
ditugun eskaintza bereziak!**



GORA SAN FERMIN!
Besta zoriontsuak
opa dizkizuegu!

BERA

ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA
LABen
prentsurrekoa.

LANA → LANGILEEN SALAKETAK

Kontratatzera koan Funverako 'diskriminazioa' salatu du LABek

TTIPI-TTAPA

Funveran joan den urtetik honat kontratatzerako orduan dagoen «diskriminazio ideologikoa eta sindikala» salatu zuen LABek ekainaren 20ko prentsurrekoan.

Funveran 2010ean egin zen greba mugagabea nola bukatu zen gogoratu zuen LABeko Koldo Saenzek, «55 egun greba mugagabea egon ondotik eta borroka gogor baten ondotik, zuzendaritzak 4 errelebo

kontratu egitea eta hurrengo 4 urteetako kontratazio guztiak kaleratutako poltsatik egitea eskaini zuen eta gehien goa ados egonik, adostasun batera iritsi zen».

Baina geroztik errealitatea «hagitz bertzelakoa» omen da. Enpresaren egoera hobetzen joan zen eta laister kontratazioak egiten hasiz. LABek hasieratik salatu zuen «enpresak kriterio ideologikoak erabiltzen zituela kontratazioak egi-



ARGAZKIA: TOKI ONA INSTITUTUA

Toki Ona institutukoak Jubilotekakoekin elkarlanean

Gazteen eta adinekoen arteko ezagutza bultzatu eta beraien arteko harremanak hobetzeko, proiektu bat landu dute Toki Ona Institutuko 3. DBHko ikasleek Jubilotekako kideekin. Apirilean hasi ziren lanean, ikasleak binaka jarri eta jubilotekako batekin elkartuz. Hasierako aurkezpenen ondotik, elkarrizketak egin zituzten adinekoei eta gero, bere biografia, historia eta sentimenduak idatzi zituzten. Ekainaren 15eko azken saioarekin bukatu zuten ekimena. Toki Onako ikasleek jubilotekako partaideei beraien biografia-elkarrizketa paperean oparitu zieten. Eta Toki Ona Institutua aipatu dugula, ekainaren 14an Lorenzo Silva idazlearen bisita izan zuten. 65 ikasleren aitzinean bere literatur munduko esperientziak azaldu zituen.

terakoan eta langile batzuekiko diskriminazioa bazela. Zorritzarez, denborak arrazoia eman digu, eta argi eta garbi dago enpresak langile batzuk baztertu eta betatu egin nahi dituela lantegian sartzera koan».

lax, lehenengo aldiz enpresak langile batzuk kontratatu zituen kaleratutako poltsan ez zeudenak, eta bitartean, poltsako batzuk oraindik deitu gabeak zituen, «muga gaindituz eta hitzarmenean onartutakoa baztertu». Egoera «larri» honen aitzinean Ko-

miteak lan ikuskaritzan salaketa paratu zuen eta honek arrazoia eman.

Halere, zuzendaritzak ez omen du atzera egiteko intenziorik eta LABen arabera, «orain gutti gaur berdin gertatu da eta berriro ere egoera salatu beharrene gauden». Aipatu, ekainaren 22an langile batek «sufritzen duen

diskriminazioaren aurka» epaiketa zuela enpresak.

LABek dio «egoera honen kontra borrokatzen bakarrik gaudela, gainontzeko Komiteko kideen babes eta laguntzarik ez daukagulako. Bertze ordezkariak eskatu diete «arduraz joka dezatela eta gaiari behar bezala heldu diezaiotela».



ARGAZKIA: MUSIKA ESKOLA

Piano ikasleak elkartrukeko kontzertuan

Joan den ekainaren 15ean, piano ikasleen elkartrukeko kontzertua izan zen Hondarribiko Carlos V Paradorrean eta Hondarribia eta Astigarragako ikasleekin batera, Isidoro Fagoaga Musika Eskolako ikasleek ere euren saioa eskaini zuten.



ARGAZKIA: RICARDO BAROJA ESKOLA

Sarituak Ricardo Baroja eskolan

Kirol Baloreen Sariak 2012 kanpainaren barrenean, Nafarroako Gobernuak antolatutako ekitaldien sariak banatu ziren ekainaren 14an. Guztira 28 sari banatu ziren, kirolean adiskidetasuna, tolerantzia eta balore positiboak bultzatzeagatik. Euskarazko ipuin lehiaketan, Ricardo Baroja ikastetxeko Onintza Zapiain Abuinek jaso zuen Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko lehen saria, *Azkenean bizikletaz* ipuinagatik (argazkia). Bertze sari bat ere joan da Ricardo Barojara, Nafarroako Gobernuak antolatutako euskarazko eskola-lehiaketan barne. Bertso idatzien lehiaketan, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan ari den Lorena Perezek ere saria jaso baitu.

UDALA → MEMORIA HISTORIKOA

Frankismoaren errepresioa sufritu zutenei omenaldia eskainiko die aurten Udalak

Hilerriko hobi komuna irekitzeko eskatu dio Aranzadiri

TTIPI-TTAPA

Espainiako Gerrak eta Frankismoak Beran eragindako kalteak eta biktimak aintzat hartuta, memoria historikoari zor, errepresioa jasan zutenei omenaldia eskainiko die aurten Udalak. Aralar, Bildu eta EAJren aldeko botoekin eta UPNren abstentzioarekin hartu zuen erabakia ekainaren 12ko batzarrean. 1948ko urtarilaren 8an Udaleko Osoko Bilkurak Franco Espainiako diktadorea herriko seme kuttun eta adopziozko izendatu zuen erabakia baliorik gabe ere utzi du Udalak, eta ondorioz, izendapen hori kenduko du, aldi berean, Francok eta bere erregimenak ordezkatzen dutena gaitzetsiz.

Udalak nabarmendu du 1936ko abuztuaren 2an Bera bonbardatu zutela Francoren aldekoek eta gerran hildako herritarrez gain, sei beratar fusilatu eta bertze lau desagertu zituztela Francoren indarrek: Francisco Arozamena Irazoki, Lucio Aldai Longarai, Faustino Martinez Urteaga, Cesario Seminario Iraizoz, Juan Etxenike Matxiare-

na eta Ecequiel Gomez Rodrigo izan ziren fusilatuak eta Santiago Anadon Cambero, Ramon Balza Loperena, Enrique Berasain Sorondo eta Jose Larraburu Maritxalar desagertuak.

Donostiako Ondarretako kartzelatik preso ekarri eta Berako harrobian fusilatu ondotik Berako hilerrian 130 lagun lurperatu zituztela uste da eta horregatik, hilerriko hobi komuna zabaldu dezatela eskatuko diote Aranzadi Zientzia Elkarteari. Herrian gelditzen diren ikur frankistak berehala kentzeko konpromisoa ere hartu du Udalak.

Dantza ikastaroa

Kultur Batzordeak hip-hop, funky, jazz eta liriko dantza ikastaroa antolatu du aste honetarako, ekainaren 25etik 29ra, 12 eta 16 urte arteko neska-mutuei zuzendua. Kultur Etxean eskainiko da, 11:30etik 13:00etara. Izena emateko epea dagoneko bukatua dago.

Uxanerako 158.000 euroko laguntza

Nafarroako Gobernuak 158.495 euroko laguntza eman dio Enplegurako Nafarroako Aspace Fundazioari Uxane okupazioa zentruaren kudeaketarako, minusbaliotasunen bat eta bereziki garun perlesia duten pertsonen zuzendua.



UTZITAKO ARGAZKIA

Cultura Viva saria jaso du Madrilen Ignacio Larra margolariak

Cultura Viva erakundeak 21. aldiz antolatutako sarien banaketa egin zen ekain hasieran Madrilgo Carlos III.a Unibertsitatean. Arte plastikoen arloko saria Ignacio Larra margolariarentzat izan zen, epaimahaiak ahobatez onartu baitzuen «saritua- ren meritu profesional aparta, bere obraren indarra eta bere sentsibiltate artistikoa». Ignacio Larra margolaria Marga Irazoki emaztearekin eta senide eta lagunekin joan zen Madrilera. Espainiako errege etxeko margolaria den Ricardo Sanzek proposatu omen zuen Larra saridun izatea eta bera izan zen saria eman ziona.



ARGAZKIAK: GOIKO

Altzate bestak

Giro ederrean joan dira aurtengo Altzateko bestak.



ARGAZKIA: KARLOS GARAIKOETXEA

Neska-mutikoen Jaunartzea

Bertze talde honek ere maiatzaren 20an egin zuen Lehen Jaunartzea. Eta Bestaberri Egunean, berriz atera ziren karrikara aurten Jaunartzea egin dutenak. Neska-mutikoen gurasoek eskerrak eman nahi dizkiete herritarrei egun horretan herria apaintzeko egiten duten lanagatik.

LESAKA

KULTURA → ESKOL-TTIKIKO APARKALEKUAN

Musikaren bidez bidaiatzeko aukera emanen du bandak ekainaren 29ko kontzertuan

Hegazkin itxura izanen duen agertokian herrialde ezberdinetako musika joko dute

Aitor AROTZENA

Musika Bandak emanaldi berezia eskainiko du ekainaren 29an, ortziralek arratseko 20:00etan Eskolttikiko aparkalekuan. Kontzertua bidai bat bezala antolatu dute eta aurkezle batzuen bitartez bertze herrialdetako kantak joko dituzte. Antzetzotikak hegazkin itxura hartuko du eta 'azafatek' musikariek beraien doinuaren bidez irudikatzen dituzten herrialdetako janari tipikoak probatzera emanen dituzte. Gainera, leku horietako bakoitzeko dantzak edo ikuskizunak ere taularatu dira.

Komertzioen zozketa

Lesakako Zerbitzu-en Elkarteak, Udalaren eta Nafarroako Gober-

nuaren laguntzarekin egiten ari den kanpainaren baitan, 1.500 euro banatuko ditu ekainean bere establezimenduetan erosketak egiten dituzten bezeroen artean.

Zehazki, 50 euroko 30 erosketa bale, komertzio bakoitzeko baina zozketatuko ditu ekainaren 29an eta sari banaketa ekainaren 30ean egiten da, larunbat arratsaldeko 13:30ean plazan. Egun horretan saria jasotzera joaten ez denak, saria galduko du. Baleak gatzatzeko azken eguna, berriaz, uztailaren 5a izanen da.

Piki sariak Irainera

Nafarroako Gobernuo Hezkuntza Departamentuak bosgarren urtez antolatutako Piki lehiaketako sarietan partehartze onena izan duen ikastetxeari emandako saria eskuratu du Irain eskola publikoak. Gainera, Jontxu Urrusolo Elgorriaga hirugarren izan zen LHko lehen zikloan eta Irati Iriarte Altzugarai bigarren LHko bigarren zikloan.



ARGAZKIA: JAVIER ARRIOLA

399 lagunek egin zuten Lesakako XI Mendi Itzulia


399 mendizalek parte hartu zuten ekainaren 17an Lesakako XI Mendi Itzulian. Horietatik 230 mendizalek ibilbide luzeena aukeratu zuten, 33 kilometrokoa eta gainerako 169k laburragoa, 25 kilometrokoa. Argazkian, Errengan ageri dira batzuk. Beti Gaztek, mendi itzulia antolatzea posible egiteko lagundu duten pertsona eta establezimendu guztiak eskertu nahi ditu lerro hauen bidez.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Txoko-Txiki lehiaketako sariak eman ditu Tanturumairuk

Tanturumairu ikastolak antolatutako XXIX. Txoko-Txiki ipuin eta ilustrazio lehiaketako sari banaketa egin zen ekainaren 8an. Ikastolako bertso eskolakoek emanaldia eskaini zuten, antzerki eta bapateko saio batekin. Sarietako dagokiez, ipuin lehiaketan, mailaz maila Oihana Arruti Terreros, Mattin Borda Albillos, Ainara Etxeberria Terreros, Uxue Urroz Oiarzabal, Uxue Mesa Garmendia eta Julen Otxoteko Arlegi izan ziren irabazle. Ilustrazio lehiaketan, Unax Ordoiki Etxepeteleku eta Jon Apeztegia Lizarralde (1. maila); Aimar Igarzabal Jaunsaras; Maricielo Asto Huaman, Nahia Sanchez Arakues, Nerea Ordoki Etxepeteleku eta Leire Igoa Apeztexea izan ziren saridunak.



HEDABIDEAK → URKO ARISTIREN SAIOA

ETB1eko 'Bizirik!' saio berrian agertuko da Etxalar

Herriko hainbat xoko eta pertsona azalduko dira

Irune eta Itsaso

Uztailaren 8ko gauetan, *Bizirik!* programaren laugarren saioa izanen da eta bertan Etxalar eta Gipuzkoako Bidegoian herriak agertuko dira. Etxalarri dagokionez, herriko zenbait kontu eta pertsonaia interesgarri agertuko dira: Iñigo Lasaga korrikalaria, Roger Bergman eliz ebangelikoko apezta, Xanti Elizagoien, Jose Mari Argarate, Auzolan taldea eta Pello Apeztexea eta meza laguntzailak. Herriko kontuak erakutsiko dituzte. Hala ere, hoberena programa ikustea izanen da.

Zugarramurdiko antzerki taldearen emanaldia

Larunbat honetan, ekainak 30, 21:30ean Euskara Batzordearen eskutik, Zugarramurdiko antzerki taldeak *Akelarre* obra eskainiko du plaza inguruan. Ondotik, Larraburuan kantu

afaria izanen da. Apuntatzeko txartelak salgai daude Herriko Ostatuan eta Elutsan.

Kultur Etxearen udako ordutegia

Ekainaren 25etik aitzinera Kultur Etxea goizetan irekiko da 10:00-etatik 13:40era.

'Urte Berri On, Amona!' filma

Joan den ekainaren 22an, *Urte Berri On, Amona!* filma eskaintzeko azen frontoian. Ez dugu atzendu behar, film honen zati batzuk herrian grabatutakoak direla.

Herri Baratzeko besta

Ekainaren 21eko ilunabarrean, txalaparta doinuekin, edari fresko eta pintxoez, doan gozatzeko aukera antolatu zen. Bertako hazien onurak, desberdintasunak eta gisakoak erakustekoak ziren. Hau dena elkarrengandik ikasteko eta antzinako ezagutzak berreskuratzeko prestatua izan zen.



ARGAZKIAK: ETB


Argazkietan, alde batetik, Iñigo Lasaga korrikalaria ageri da Usategietan bere zakurrekin. Bertetik, Periko Berroeta eta Urko Aristi auzolanaz solasean, Santa Krutz ermitaren inguruko bide batean eta azkenik, Xanti Elizagoienekin kontrabandoaz solasean.



ARGAZKIA: IRUNE ETA ITSASO

Haurren Eguna

Hagitz eguraldi ederrarekin eta giro onean, ekainaren 17an Haurren Eguna ospatu zen. Goizen ikasturtean zehar egindako lanak egon ziren ikusgai frontoian. Meza ondotik frontoian ipuin batzuk irakurri eta ikasle bakoitzari ipuin bana oparitu zitzaion. Gero, bazkal aitzinetik, trikitalariek alaitu zuten giroa. 64 haur eta 28 guraso bildu ziren bazkaltzera. 15:30eko Tatxin eta Tatxan ikuskizuna ere hagitz arrakastatsua izan zen, baita ondotik egin zituzten jokoak ere, 19:00 arte luzatu baitzen eguna. Guraso Elkarteak egunaren balorazio positiboa egin du eta kontent agertu dira irakasle eta ikasleak ere.

**USOA**
Nekazar
kooperatiba

Berriak egindako perisua,
bertza markak eta ekologikoak.
Ongarriak - Burdin trusak
Injektandak - Edanak - Hazak.
Botikak (jerezitatekin)

Etkez ebeko banaketa egiten da
Kalefakzioa eta ibigailuendako gosalda

Tel. eta Faxa: 948 63 52 14 + ETXALAR

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu

© 948 630 763 - Altxate, 17 - BERA

**Javier Manterola**
Taldeko arduradunak
buruzuzen + gaur
kalefakzioa

Tfno: 929449902 • BERA

ARANTZA

UDAKO AISIALDIA → IGANTZIKO IGERILEKUAK

Igantziarren tarifa bera ordainduko dute herritarrek Igantziko igerilekuetan

Udalak akordioa sinatu du Igantziko Udalarekin

Nerea ALTZURI

Udalak Igantziko Udalarekin egin duen akordioa dela eta, aurtun Arantzako herritarrek igantziarren ordaintzen duten tarifa bera ordainduko dute Igantziko igerilekuetan.

Uda osorako abonoa honako hau izanen da aranztar eta igantziarrentzat: 4-10 urte bitartekoek 17 euro ordaindu beharko dute (gainerako herrietakoek 28 euro); 11-18 urteko herritarrek 28 euroko tarifa izanen dute (kanpokoek 42 euro) eta 18 urtetik goitiko herritarrek 40 euro ordaindu beharko dute (kanpotarrek 63 euro).

Izena Herriko Etxean eman beharko da, baita ordaindu ere. Udaletik adierazi dutenez, jendea ez bada apuntatzen hurrengo urtean ez da deskonturik egingen.

Auzolanerako deia

Eskolako gelak auzolanerako pintatzeko deia egin du Udaleko Auzolanerako Batzordeak. Udako hilabeteak aprobetxatuko dira pintatzeko, eta aitzinerago zehaztuko dira egunak. Interesatuak Herriko Etxean eman behar dute izena.

13 neska-mutiko udalekuetan

Eskolako denboraldia pasatuta, orain oporretan daude gazte txoak. Horrela, irailera bitarte, bi hilabete pasatxoko atsedendian izanen dira. Mugimendua nabaritu da inguruetan, gazte txoak dauden bazterrak nabarmenak baitira. Aurten ere, ber-

tze urte batez, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea eta Dindaia Fundazioaren eskutik udaleku irekiak izanen dira uztaileko hilabetean.

Aisialdirako tartea, euskara mingaiean dutela, uztailearen 2an hasiko dute eta hamahiru neska-mutikok goizetako entretenimendua izanen dute. Ttikixegoak edo kozkorxeagoak

izan, denentzako izanen da zer egin. Itxaro Etxague arduradun gisa eta Ana Isabel Telletxea begirale bezala, biak herrikoak, gazte txoen taldearekin ariko dira.

AEK-ko barnetegiak

Udako bi hilabeteetan euskara ikastera etortzen diren lagun kuadrila ere izaten da herrian. Aurten ere, Aterpean, AEK-k antolatutako barnetegiak izanen dira, gure herria hagitz baliagarria baita hizkuntza ikasteko eta bai euskara praktikatzeko ere. Herriko karrika, ostatu eta bertze txokoetan, mugimendua nabaritu da da beti bezala.

Beheko pisuetako bestak

Oraindik garaiz bagabiltza ere, aitzineratu dugu beheko pisuetako edo Ballekasko bestak uztailearen 21ean izanen direla. Egitarauaren inguruko xehetasunak hurrengo aldizkarian emanen ditugu.



ARGAZKIA: MARTIN LEGARRA

Gipuzkoako kostaldea ezagutz

Gipuzkoako kostaldean barna ibili dira aurtun eliza garbitzeko eskurtsioan, Zaurutz, Getaria eta Zumaia aldean. Autobusa betea joan ziren ekainaren 13an, erdia aranztarrek eta bertze erdia igantziarrek eta hagitz gustura ibili omen ziren.

ERROTAZAR
harategia
Berrain
produktuak
Etxepena, 3 - BERA
Tel/Fax: 948 630 052

zalain
RESTAURANTE
Zalain auzoa zig
31780 Bera
t: 948 631 106
w: www.zalain.com

ANTZAZELAK
ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
t: 948 631 117 • Fax: 948 631 167
Inguru erria: BERA
www.antzazelak.com
info@antzazelak.com

Antzazelaak, angeluak, ome antzazelaak, lehoak, asak, arzuak, pizteak, biniak, efozak, moztzak, zokaloak, hamaak, marmazak

XIFRELLI
KANTINA • BAR
Tutxa 1000
31780 BERA

BRANDONEA, S.L.
BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

EUSKARA → ALFABETATZEA

Euskaltegian ibili diren gurasoei matrikularen zati bat ordainduko diete

Guraso Elkarateak eta eskolak ordainduko dute

Kultura Batzordeak kultur emanaldi batera gonbidatuko ditu irakasle, ikasle eta boluntarioak

Joxean ORTEGA

Aurten lehenbiziko aldiz, Euskaltegia eta Solaslaguna programa landu dira herrian eta bi ekimen horietan parte hartu duten ikasle, irakasle nahiz boluntarioei euren gogoia eta euskararen alde egin duten

ahalegina eskertzeko asmoz, bai Udaleko Kultura Batzordeak eta bai eskolak ere ondokoa erabaki dute:

Alde batetik, eskolak eta Guraso Elkarateak euskaltegian parte hartu duten ikasleen gurasoei matrikularen zati bat ordainduko diete, euskaraz ikasten duten seme-alaben guraso erdaldunek egin duten esfortzua saritzeko, eta aldi berean, egoera berdinean dauden eskolako bertze gurasoei hurrengo urtean bide horretan aritzera animatzeko.

Kultura Batzordeak, bere aldetik, euskaltegi-ko eta Solaslaguna programako irakasle, ikasle eta boluntarioak, uda honetan euskaraz egiten diren kultur emanaldietako batera gonbidatuko ditu: Bortzirietan, Gipuzkoan edota



ARGAZIAK: IGANTZIKO ESKOLA

Berrizaundik Sunbillara bizikletaz

Joan den ekainaren 8an eskolako Lehen Hezkuntzako ikasle eta irakasleak eskolatik Sunbillara bizikletaz joan ziren. Foru Poliziak Berrizaunera doan bidea bi norabideetan moztu zuen bitartean, 40 ikasle eta irakasle malda beheiti abiatu ziren trenbideraino. Handik Sunbillara joan ziren, han gosalduta eta buelta Berrizaunera. Gurasoak han zituzten zain eta furgoneta, kamioneta eta remolkeetan bizikletak herrira ekarri zituzten. Bitartean, Haur Hezkuntzako ikasleek eskolan zirkuitu bat egin zuten bizikletaz, semaforoa eta isuna eta guzti. Hagitz ekintza polita izan zen eta eskolakoek errepikatzeke asmoa dutela erran dute.

Nafarroan egiten direnaren antzekoak. Honela, hauek guztiek euskara bultzatzeko eta ikasteko hartu duten konpromisoa azpimarratu eta saritu nahi ditu Kultura Batzordeak, eta bide batez, heldu den urtean horrelako programekin segitzera animatu nahi ditu.

Zuzenketa

Aitzineko alean, igerilekuko aurtengo denbaldiko prezioak jakinarazi ziren. Baina eguneko sarrerak aipatzerakoan, akats bat egon zen. Beheko taula honetan ageri dira egun osokoen prezio zuzenak. Barkatu eragozpenak.

EGUN BAT	Egun osoa	17:00etatik aitz.
18 urtetik goiti	5 euro	2,5 euro
11-18 urte	3,5 euro	1,75 euro
4-10 urte	2,5 euro	1,25 euro

HERNANDE TELEFONIA
HT
ERAKUNTZA LANAK OIORKORREAN
 Zuzenberritasun, aukaritasun, konunak...
 Abiltzetasun, lantzerak, gurasuak...
HT BERA (Nafarroa)
 670 064 744
 948 630 554
 albertaloboa@gmail.com

caroha
 gurasuak irakasleak
 07.00-19.00 orduetan
 948 630 554
 www.caroha.net

BERA Zere inguruak klase guzietako irakasleak (espeturak, zigorriak, erretardatuta, kalaxa...) eta irakasleak laguntza garrantzitsua eskaintzen dute!
GOIKERU Irakasleak irakasleak irakasleak
 Tel: 948 630 554 • Calvo, 40 • BERA

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa
 • Kimi Fisioterapia
 • Osteopatia
 • Masaiak
 • Trafiko istripuetan aholkularitza
 • Istripu eta osasun aseguruak
 • METODO BERRIA
 Umeeentzako arnas fisioterapia
 Itzea 1, behean • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
 Colón Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 632050 • IRUN

SUNBILLA

AISSIALDIA → UDAKO ESKAINTZA

Aste honetan akituko da igeriketa ikastaroetan izena emateko epea

Goizez haurrendako eta arratsaldean helduendako eskainiko dira

Maidar PETRIRENA

Bertze urte batez, hasi da igerilekuko udako denboraldia eta irailaren 15era bitarte irekiak egonen dira. Aurtur ere hiru sorosle ditugu: Ricardo Martinez Martin, Ion Morras Albors eta Leire Pastor Ordoki.

Igeriketa ikastaroak ere izanen dira haur eta helduendako. Goizez haurrendako izanen dira, 10:30etik 11:30era, eta arratsaldean helduendako, 20:00etatik 21:00etara. Interesa

duena igerilekura ager daiteke edo bertzeala, 606 828160 telefonora dei dezake. Ekainaren 30era arteko epea izanen da.

Igerilekuko ordutegia, berriz, 12:00etatik 20:00etara da eta prezioak beheko taulan ageri direnak.

Ane Petrirena bikain atletismoan

300 metroko Espainiako Atletismo Txapelketa irabazi du aurtur ere Ane Petrirena 15 urteko gazteak, eta horrez gain, kadete mailan iaz egin zuen Nafarroako errekorra ere hobetu du. Txapelketan egindako bere lanaren inguruan xehetasun gehiago kiroltako orrietan irakurgai. Zorionak!

PREZIOAK	Egun osoa	hilabetekoa	3 hilabete
6 urte arte	dohainik	dohainik	dohainik
6-12 urte	3,5 euro	16,5 euro	23,0 euro
12-18 urte	4,0 euro	23,5 euro	29,5 euro
18 urte. goiti	5,0 euro	29,0 euro	42,0 euro



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Ekainaren 15ean zabaldu zituzten igerilekuko ateak eta ordukoa da argazkia.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Malerreka Kantuz

Ekainaren 8an Malerreka Kantuz ekimena Sunbillan egitea tokatu zen. Udaletxean elkartu eta handik hasita herrian barna kantuz hainbat lagun Ulibeltzak Elkarteraino joan ziren. Han pintxo batzuk eskaini ziren jateko. Hagitz giro ona izan zen.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Bestaberri Eguna

Bestaberri Eguna ospatu zen ekainaren 10ean. Mezaren ondotik, prozesioa egin zen eguraldiak lagundu zuelako eta bandera dantza ere egin zuen Florentino Gelbenzu zinegotziak. Zorte ederra izan zen, prozesioa akitu eta euria hasi baitzuen.



ARGAZKIAK: ANA URROZ

Museoa eskolako neska-mutikoen lanekin

Ekainaren 12an eskolako ikasleek frontoiko gela batean museo ttikiaren erakusketara egin zuten beraiek egindako lan guztiak erakutsiz.

HEZKUNTZA → MURRIZKETEN KONTRA PROTESTAK

300 sinadura bildu dira murrizketen kontra eta 345 instantzia bidali zaizkio kontseilariari

Eztabaida haundia eragin du gaiak herrian

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak hezkuntza publikoan iragarri dituen murrizketak direla eta, hainbat protesta egin dituzte guraso, ikasle eta irakasleek.

Ikasturtea akitu du te neska-mutikoei baina hori baino lehen, azken bortz aste hauetan murrizketen kontrako hainbat ekintza egin dira: egunero eskolako atean elkarretaratzeak, asanbladak, itxialdiak, pankartak eta zapiak egin, 300 sinadura bildu, Iribas hezkuntza kontseilariari 345 instantzia inguru egin, ekainaren 2ko manifestazioan parte hartu... Joan den astean, murrizketen kontrako bertzelako ekimenak egitea ere aurreikusia zegoen, baina sortutako saltsak tar-teko, bertan behera gelditu ziren. Aipatzekoa da eztabaida dezente eragin duela gaiak.

Errekaren zapia

Herriko bestetan paratzeko zapi gorriak prestatu ditu Erreka Kirol Elkarteak, elkartearen ikurra bordatuarekin. Bortz eurotan paratu dituzte salgai Titi Ostatuan eta kiroldegian.

Merkatarien web orria

Interneteko atari berria estreinatu du Doneztebarrak Merkatarien Elkarteak: www.doneztebarrak.com. Elkartearen inguruko berriak, promozioak, jarduerak, elkartearen bazkideen zerrenda... biltzen ditu webguneak, baita zerbitzuen gida eta Doneztebarrak-eko kideen planoa ere. Euskaraz eta gaztelaniaz kontsulta daiteke informazioa.

Zuzenketa

Aitzineko alean, bestetako programarekin batera Oskar Mindegia-ri egindako elkarrizketa argitaratu zen. Kirol eta kultur zinegotzia dela aipatu zen, baina Oskar bakarrik kirol zinegotzia da eta Juana Muñoz da kulturakoa.



ARGAZKIAK: ERREKA

Giro ederrean joan da Errekaren Eguna

Erreka Elkarteak seigarren urtez bere egun handia ospatu zuen ekainaren 9an eta beti bezala, partehartze handia izan zen. Larunbateko plater nagusia eskubaloiko lauko finala izan zen eta izarren taldea atera zen garaile. Harmailak bete-beteak zeudela, 15 minutuko bi partida jokatu ziren lauko finala hasteko. Lehenbizikoan, Errekako beteranoak eta 88ko kinta izan ziren aurrez-aurre eta gazteak nagusitu ziren. Errekako gaur egungo taldearen eta izarren taldearen arteko lehia, beriz, azken hauek irabazi zuten. Hirugarren posturako lehia, Errekako seniorrek irabazi zieten beteranoei eta final handian, izarren taldea nagusitu zitzaion 88ko kintari. Partiden artean, Errekako dantzariak aritu ziren eta ondotik, hainbat sariren zozketa egin zen. Horrez gain, goizean, Errekako tikiainen eskubaloiko taldeak aritu ziren eta eguerdian bere erakustaldia eskaini zuen Oskar Mindegia eta Noelia Ariztiak gidatzen duten judo eskolak. Arratsean, afaria izan zen Santa Luzia plazan eta gaua aunitz luzatu zen, DJ Luismiren doinuen laguntzarekin. Bezperan, Iñigo Mangado eta Josu Juanenak Marokoko Atlasera egindako bidaiaren ikusentzuneak ikusgai izan zen zineman eta mus txapelketan 35 bikotek parte hartu zuten. Finalan, Liborio Ariztiak eta Fermin Jorajuriak irabazi zieten Mateo eta Txirriri. Zarbo Ibarrolak antolatutako 1 Formula simulatzaileak ere arrakasta izan zuen.

Institutuko ikaslea saritua

Kirol Baloreen Sariak 2012 kanpainaren bame, Kirolean balore positi-

boak bultzatzeagatik Nafarroako Gobernuak saria eman dio Mendaur Institutuko ikaslea den Maitane Oteiza gaztelua-

rrari. DBHko lehen zikloko euskarazko ipuin lehiaketako lehensaria izan da beretako, *Segurtasun kaskoa* ipuinagatik.

ZUBIONDO
Jatetxea
Alasta Karrika
BERA NAFARRA

APARAN, S.A.
BRINOLALA eta ZURAK
Metamina taulak
Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
Txapaz estalitako taulak
Entzimerak
Ate amuntak eta sukaike mogleendakoak
Pintura eta bernizak
Bamurako mogleak eta osagariak
KIT mogleak: esku-erremintak, itab.
Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

ITUREN

HERRIKO BESTAK → EGUNAK HURBILTZEN

Publikoak erabakiko du bestetako kartel lehiaketako irabazlea

Aurkeztutako lanekin erakusketa eginen da

Arkaitz MINDEGIA

Udan sartu garen honetan, gainean dauzkagu herriko bestak. Dena loturik dago, baina aurtengo bestek badute berrikuntza aipagarri bat. Lehenbiziko aldiz, kartel lehiaketa antolatu baitu Udalak. Joan den ekainaren 22an akitzekoa zen kartelak entregatzeko epea. Aurkeztutako lanak erakusketa batean paratuko dira gero, eta publikoak erabakiko du zein den irabazlea.

Bestetako egitarauaren berri hurrengo aldikarian emanen dugu.

Sanjuan bezpera

Bertzelekuetan bezala, gurean ere badago sanjuan suak piztu eta saltoka aritzeko ohitura. Eta aurten ere, San Juan bezperan, izpiritu txarrak uxatzeko biltzekoak ziren. Horretarako aitzineko egunetan kartoia, papera, eskolako koadernoa, belarra... Denak bilduak zituzten. Aurtitzen, adibidez, azken urteetan bezala, Sanjuan bezperako afarria antolatua zuten, Joxeanjel akordeoilariekin dantzarako aukera eman ez.

Sendotza

Larunbat honetan, ekainak 30, Zubietako eta Iturengo gazte kua-drilla batek sendotza egi-



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Eskolan ikasturtea akitu dute

Herriko eskolako haurrek akitu dute ikasturtea, ederki akitu gainera, besta ederra ospatu baitzuten ekainaren 20an. Goizean jolasean ibili ziren algara eta salto artean, eta eguerdian, plazan, karparen azpian bazkaria egin zuten. Ederki pasatuz irailera arte aio erran zioten eskolari. Bertzalde, ikasturte bukaera zela aprobetxatuz, azkeneko astean, Haur Hezkuntzako haurrek erakusketa eder bat egin eta aurkeztu zuten. Beraiek erabakitako proiektuaren inguruan sakontzen aritu dira ikasturtean, zehazki, astronauta eta espazioaz aritu dira, Begoña tutorearen gidaritzapean. Erakusketan urte guztian sakondu dutena ikusi ahal izan zen: Apollo 11ren maketa bat, Miroren inguruan egindako mural bat, astronauten kasko batzuk... Lan txukun eta polita egin dute gure gaztetxoek, baina ezin ahanzi gurasoen laguntza haundia izan dutela.



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

Parkea Aurtitzen

Aurtizko haurrek dagoeneko badute parkea. Aitzineko batean erran bezala, auzolanean eta guraso batzuen lanarekin egin da eta txukun eta ederra gelditu da.

nen du San Martin elizan. 20:00etan izanen

da elizkizuna eta herriko apezaz gain, gotzaina

ere etorriko da gaztetxoek sendotza ematera.

SAHARAZTAN

Bi lagunendako otorduen zozketan saritutako zenbakiak

TTIPI-TTAPA

Saharar herriaren aldeko Baztan-Bidasoko elkartzan taldeak, Saharaztanek, urtero egin ohi duen zozketa egin berri du. Saharako haurrak udapasa ekartzeak duen gastuetan laguntzeko egiten dute zozketa. Zenbaki saritu bakoitzak bi pertsonentzako otordua izanen du jatetxe hauetako bakoitzean.

Zenbaki saridunak

Almandoz: Beola 4701, **Arantza:** Aterpe 1692, Burlada 2485, Pabloenea 1896, **Arizkun:** Bixta-Eder 4153, Ordoki 5266, Uxo 1459; **Beintza:** Ostata 3627, **Berra:** Errekalde 0678, Zubiondo 5456, **Donamaria:** Donamariako Benta 3070, Herriko Ostata 1241, **Doneztebe:** Amezitia 1979, Belarra 2347, **Elbete:** Posadan 3869, **Elgorriaga:** Hilario 0552, **Elizondo:** Eskisaro 2761, Galarza 5232, Itzalgargikoborda 2197, Kortarixar 3749, **Erratzu:** Kastonea 1548, **Etxalar:** Elutsa 4300, Herriko Ostata 4975, **Gartzain:** Fransene 2725, **Igantzi:** Allinea 4699, La Villa 4564, **Iturren:** Altxunea 3612, Herriko Ostata 3055, **Lekaroz:** Larraldea 4250, Etxebertzekoborda 3814, **Lesaka:** Kattu 0701, Koxkonta 0491, **Oiz:** Posada 2538, **Oronoz-Mugairi:** Pierresenea 2903, Urgain 0151, **Sunbilla:** Ariztagain kanpina 4618, Iturburu 1175, **Zubietako:** Herriko Ostata 1437.

Bi hilabeteko epea dago saria eskuratzeko eta joan baino lehen deitu egin behar da eta txartela erakutsi otordua egin baino lehen.

OSPAKIZUNAK → BESTABERRI EGUNA

Parazelaietakobordako gaztak irabazi du Bestaberriko lehiaketa

Guztira bederatzi gazta aurkeztu dira lehiaketara

Fermin ETXEKOLONEA

Ederki atera ziren Bestaberri Egunerako prestatutako ekitaldiak. Alde batetik, joan den urtean zenbait herritarrek berreskuratu zuten prozesioa egin zen, eta bestetik, Udalak antolatuta, gazta lehiaketa. Erantzun ona izan zuen, bederatzi gazta aurkeztu baitziren: Olasenekoborda, Idiarrekoborda, Elamenekoborda, Serokoborda, Azkuntzolakoborda, Parazelaietakoborda, Seroinea, Elizgain eta Martuzenea. Denen maila ona izan zen, baina azkenean, Parazelaietakobordara joan zen lehenbiziko saria eta bigarrena Azkuntzolakobordara. Eta sari berezia eman zitzaion Olasenekobordakoei gazta berezia egiteagatik.

Arratsaldeko berenduan gazta guztiak jan ziren, eta haurrendako txokolatada ere izan zen. Horrez gain, Agerralde bere musika doinuekin bazterrak alaitu zituen.

Bi langile errotarako

Langabeak kontratazeko dirulaguntzarekin, bi langile kontratatu ditu Udalak errotan lanean aritzeko: Kattalin Paul eta Maria Jesus Petrikorena. Astatartez aritzen da bat eta asteburuetan beste. Maiatzaren 23an hasi ziren eta urri hondarera arte ariko dira.



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE

Bestaberri Eguneko prozesioa goiko argazkian, eta berendua behekoan.



ARGAZKIAK: KARMELE BENDOIRO

Giro ederra Uritzako festan

Uritzako festaren aitzakian, 60 lagun bildu ziren ekainaren 16an eta giro ona sortu zen. Bazkaria da antolatzen dena, baina aurrekoetan bezala, azkenean egun oso festa bilakatu zen, gosaria, bazkaria eta berendu-afaria barne. Joxemari, Ainhoa eta Olaia musikariek saltsa polita paratu zuten eta jendea kontent eta errepikatze gogoz gelditu zen. Aipatu, gisa berean, Juliana Mutuberriari loresorta oparitu zitzaioa, bazkariko zaharrenari, hain zuzen. Aurtengoa zazpigarren festa izan da baina jendea gogoz gelditu dela ikusita, ea urte askoz segitzen duen.

DIRULAGUNTZA

Nafarroako Gobernuak 10.000 euro onartu ditu errotako ekumenseoren funtzionamen-

du gastuetarako eta 10.375 euro inbertsioetarako. Zehazki bi inbertsioetara bideratuko da: bildumaren inbentarioa

eta erregistro liburuak egiteko 8.000 euro, eta errotaren kontserbazio baldintzen ikerketa egiteko 2.375 euro.

TOPAGUNEA

‘Euskaraz, zergatik ez?’ saioak antolatu dituzte Topaguneak eta hainbat elkartek

TTIPI-TTAPA

Euskal hiztun aunitzek, euskara mingainean izanda ere, lehen hitza gaztelaniaz egiten dute. Gisako egoerei buelta emateko, Topagunea Euskara Elkarleen Federazioak Zergatik ez? tailerra jarri zuen martxan 2010-ean. Orain, zabalkundean eraginkorragoak izateko, federazioak Gipuzkoa eta Bizkaitako 12 euskara elkarteekin elkarlanean eskainiko du tailerra. Euskal hiztunak hausnartzen jartzea dute xede. Izan ere, lantzen diren gaien artean parte hartzaileek egoera bakoitzaren aurrean hizkuntza jarrerek izan dezaketen eraginaz gogoeta egiten dute. Euskararekiko jarrera baikorrak sustatu nahi dituzte eta hizkuntza aniztasuna, legezko markoa, hizkuntza kontaktuan eta galtze prozesuak, euskara datuetan, norberaren ibilbidea, erabiltzeko zailtasunen identifikazioa eta etorkizuneko proposamenak lantzen dira. Euskara eza gututa ere, erabilera gune, harreman eta arloak irabazteko dituzten euskal hiztunei dagozuzendua, hau da, euskaldunen gehiengoari. Informazio gehiagorako edo tailerra antolatzeko elkarteekin harremanetan jarri edo 946 215805 eta sonia@topagunea.org.

URROZ

OSPAKIZUNAK → LEHEN ALDIZ EGIN DA

Arrakasta ikusita hurrengo urtean Artisau Egunari eusteko prest

Giro ona sortu da eta 120 lagunetik gora bildu dira bazkarian

Joseba URROTZ

Giro polita izan zen ekainaren 16an lehenbiziko aldiz ospatu zen Artisau Egunean. Eguraldi dotoreaz, goizez, hamabortz bat artisauren lana eta ekoizpenak ikusi eta dastatzeko aukera izan zen. Eguerdialderako plaza eta frontoi zaharra bete antzeri zirela, Gorramendi gaztandegikoek bertan sua eginda, gazta bildu zuten; bi herritarrek aizturrez ardi banari ilea moztu zioten eta Malerreka Kantuz-eko taldeak ere bere saioa egin zuen, Mikel Gartzia zena gogoan. Eta nola ez, Bittoriano Arzuagari omenaldia ere egin zitzaion, bertan zaudeen esker ona hartuz, erran baitaiteke han zaudeen aunitz beregatik agertu zirela. Seguraski, horregatik izanzen ziren bazkarian 120 lagun baino gehiago. Bertso-lariak ere saio polita egin zuten, jendea gozaraziz hainbat ateraldi irigarriekin. Gero, dantza eta soinua ez ziren gelditu ia argitu arte. Erran bezala, giro ona ez baitzen faltatu, alde egiteko ez zen prisa handirik izan.

Azkenean, jendea kontent gelditu zen, baita antolatzaileak ere, hurrengo urtean erronkari eusteko prest.



ARGAZKIAK: ARANTXA ITURRALDE ETA ONDIKOL

Goiko argazkian, Bittoriano anaia-arreba eta ilobekin ageri da eta beheitikoan, herritarrek ardiari ilea mozten.



HERIOTZA

Mikel GARTZIA

Malerekako euskara teknikaria Perun hil da mendiko istripuan

Mikel Gartzia iruindarra Perun hil zen mendiko istripu batean, Aungate mendikatean. Eskalatzerako joana zen Ana Mari Lopez emaztearekin, eta ekainaren 11ko goizaldean elur jauzi batek harrapatu zituen kanpin dendan lo zirela. Gartziarekin mendiko laguntzailea ere hil zen. Lopezek, ordea, bizirik ateratzea lortu zuen, eta erreskate zerbitzuak ohartarazi zuten. Mikel Gartzia Lopez de Sabando Malerekako euskara teknikaria zen azken 12 urteetan; Donezteben egiten zuen lan eta 40 urte zituen. Tartean, bi urteko eszedentzian izan zen, Nafarroako Parlamentuan itzultzaile lanetan aritzeko. Ezbeharrak nahigabea eta samina sortu du batez ere Malerreka inguruan, aski ezaguna baitzen ikastetxe eta euskaltzaleen artean.

BEINTZAKO OSTATUA
97 948 45 00 14
ORBELA

BIDASOA
T.F. 850 971 442
BERA

MAIUR 2012
HARTI ABERTSA GUREA DA
Aurkeztu: iraila 20 eta 21
Moztu: Aurrerik 10 eta 8
SARRERAK SALGAI

PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!
Barris arabi taldeak

AISIALDIA → SANJUAN BEZPERA

laz bezala, aurten ere sanjuan sua elkarrekin egitea erabaki da

Plazan luntxa egin eta su gainean saltoka ibiltzea izan da asmoa

Mattin LARRALDE

Bertze herri aunitzetan bezala, aurten ere sanjuan suetan saltoka aritzeko aukera plantatu da herrian. Orain dela urte batzuk, bakoitzak bere aldetik egiten zituen San Juan bezperan suak, baina orain dela urte bat guraso taldeak suen aitzinetik luntx ttiki bat egitea proposatu zuen, bakoitzak etxetik nahi zuena eramanez eta denak plazan elkartuz. Ideia horrek hagitz harrera ona izan zuen lehenbiziko urtean, eta hortaz, aur-



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Joan den urtean lehenbiziko aldiz plazan elkartu zen jendea San Juan bezperan, luntxa egin eta gero, su gainean saltoka ibiltzeko.

ten ildo beretik segitzea erabaki zen.

Joan den larunbatean, ekainak 23, denak plazan biltzeko deia egin zen eta gero, karri-

ka moztuz, sua egiteko zen jendea saltoka aritzeko.

Lerro hauen bidez, guraso talde hori zoriondu nahi dugu, herriko

ekintza aunitzetan parte hartzen duelako eta ideia on aunitz ematen dituelako. Hagitz langileak dira eta segi deza-tela horrela!

KIROLA

Koparen final erdia jokatu du Doneztebe Futbol Taldeak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Erregionaleko koparen finalerdia jokatzeko zuen Doneztebe Futbol Taldeak San Ignacioren kontra joan den larunbatean Iruñean.

Final zortzirenetan, Leitzako Aurrera kanporatu zuen Doneztebek eta final laurdenetako partidari Doneztebek 2 eta 0 irabazi zion CD Urrozterra talde historikoari, Lander Míndegia eta Irail Zestau gazteen golen bitartez. Ligan ez da sobera fin ibili Doneztebeko futbol talde nagusia, baina kopan bere egiazko neurria eman du. Larunbateko norgehiogoka gairiditu izan balu, ekainaren 30ean, larunbat honetan jokatu luke finala.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Erreka, igerileku eta hondartzarako
toallak

edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kaxinak • toallak
Tafalla, 13 • IRLINEA • 948 230 634

ARKUPEAK

OSPAKIZUNAK → DONEZTEBEN EGINEN DA

Bazkidearen Egunaren barne, urrian egingen dira Arkupeak-eko omenaldiak

Bi ospakizunak batera egitea erabaki du Zuzendaritzak

Fernando ETXEBERRIA

Arkupeak Jubilatuen Elkartean ez daude geldirik egoteko. Maiatzean ia bi astez Benidormen izan ziren 43 bazkide eta irailaren 27tik urriaren 9ra Benidormera bertze ateraldi bat egitekotan dira. Horrez gain, ekainaren 20an Bilbora joatekoak ziren eta uztailaren 9tik 17ra Puente Viesgora joanen dira.

Uztailaren 16tik 20ra, berri, Aragoiko Pirinioetara joateko asmoa dute, eta han hainbat mendi ibilaldi egitea aurreikusia dute. Uztailaren 26an Aralarako santutegira joanen dira Atautxien Eguna ospatzera. Aurten, gainera, berrikuntza batekin antolatuko dute irteera. Lehenbizi, Leitzako Peru-Harri museo eta Mendukiloko kobazuloa ikustera joanen baitira.

Abuztuaren 31n Arantzazura joanen dira eta irailaren 10tik 16ra, Paris aldera joateko asmoa dute Arkupeak-eko lagunek. Uztailaren 9tik 11ra, 948 450878ra deituz eman beharko da izena.

Irailaren 14an Lezobisitatuko dute, eta erran bezala, Benidorm ere bai. Irteera hauen guztien be-

rri Arkupeak-ek argitaratu duen laugarren boletín informatiboan ageri da. Horiez gain, informazio osagarria ere ageri da: hala nola, idazkari berria Jose Luis Legarra izendatu dutela, Elgorriagako bainuetxearekin egindako akordioa nola den edo 2012ko lehen lauhilekoan egindako jardueren laburpena ere bai. Mendiko irteerekin aitzinera segitzen dutela ere ageri da boletinean, eta dirulaguntzen berri ere bai. Gaur egun Arkupeak-ek 14.962,68 euro hartu ditu, 5.350,83 euro kudeaketarako kontratatua da goen pertsonarendako eta 9.611,85 euro elkarrearen funtzionamendurako. Oraingo ez dakite Nafarroako Gobernuak zenbat emanen duen ekintzak eta bidaiak egiteko, ezta *zuk aukeratu, zuk erabaki* kanpainak segituko duen ala ez.

Bazkidearen Eguna eta omenaldiak batera egiteaz ere ari dira boletinean. Zuzendaritzaren nahia bi bestak batu eta urrian ospatzea da. Eta omenaldiak ongi prestatzeko, aurten 85 urte bete dituztenei edo ezkondu 50-60 urte egin dituztenei dei egin diete idazkaritzan utz dezaten euren bizitzaren laburpena eta argazki bat ekainaren 30a baino lehen.

Abuztuan kaleratuko dute hurrengo boletina.



ARGAZKIA ETA TESTUA: FERNANDO ETXEBERRIA

Informatika ikastaroa Elizondon

Maiatzaren 28an hasita, hiru astez informatika ikastaroa egin dute 15 lagunek Elizondon, Nerea Telletxearekin. Lehendik Donezteben egin izan da ikastaroa eta baliteke, irailetik aitzinera bertze herrietan ere antolatzea, eskaera baldin badago.



ARGAZKIA ETA TESTUA: FERNANDO ETXEBERRIA

Jubilazioak, pentsioak eta euren etorkizuna hizpide

Jubilazio eta pentsioen gaur egungo egoera eta euren etorkizunaz hitz egin zuten maiatzaren 29an Leitzako zineman. 68 lagun elkartu ziren eta Julian Sainz eta Pakoren 40 minutuko azalpenen ondotik, bildutakoek ere parte hartu zuten. Ondotik, hizlariak prest agertu ziren banaka bakoitzaren zalantzak argitzeko eta halaxe egin zuten. Nafarroako jubilatuen elkartean garrantzitsuenetarikotzat hartua den Arkupeak-eko bazkideak etorri izana ere eskertu zuten.



ARGAZKIA ETA TESTUA: FERNANDO ETXEBERRIA

Larunera eta Sarako lezeetara bisita

Maiatzaren 30ean, Arkupeak-eko 250 bat lagun Larunera joan ziren azken zatia trenez eginez. Ondotik, Sarako lezeak ezagutzeko aukera izan zuten eta eguerdian, Zugarramurdi bazkaldu zuten. Jose Angelen musika doinuak ere lagun izan zituzten, Zugarramurdiko hiru abeslariaren lana ere gogotik txalotua izan zen, eta Fernandori zorionak kantatu zizkieten. Baina zoritxarreko ezbeharrak tristetu zuen eguna, dantzaldiko lehen dantzaren ondotik, Manuel Dagerre Berako ordezkaria bihotzekoak jota hil egin baitzen. Ekainaren 1ean egin zen bere aldeko meza eta Berako eliza bete egin zen. Ez gara Manueli gorazarre egiten hasiko, baina ezagutzen zutenek badakite nolakoa zen. Bi hitzek deskriba dezakete bere bizitza: besteenganako erabateko entrega desinteresatua eta bere izpiritu baikor, alai eta atsegina. Ohorea izan da bera ezagutu eta bere laguntzarekin kontatu izana.

LEGASA

HEZKUNTZA → LANDA EREMUKO ESKOLAK AZTERGAI

Landa eremuko eskolen ereduaz tesina egiten aritu dira eskolan

Deustuko Unibertsitateko ikasle bat gure eskolan ibili da

Landa eremuko bi eskola aukeratu ditu eta tartean Legasakoa



UTZITAKO ARGAZKIA

Eskolako neska-mutikoak.

TTIPI-TTAPA

Deustuko Unibertsitatean Hezkuntza Premia Berezien Masterra egiten ari den ikasle bat gure eskolan bere ikerketak egiten aritu da. Enara Chamorro Armendariz izena du eta Asteraingoa da.

Joan den urtean, Garesko Haur Eskolan

ibili zen lanean eta aurren langabezian dagoela eta, ikasten hasi da berriz. Kurtso amaierako proiektua egiteko landa eremuko esko-

len eredu inklusiboaren inguruko tesina egitea erabaki du. Horretarako, bi eskola aukeratu ditu, biak Nafarroakoak eta biak lan-

da eremukoak. Bata Legasakoa da eta bertzea Abartzutzakoa.

Lerro hauen bidez, gure zortetik onena opa diogu!

GAZTE OIHUA

Ibilbidea bukatutzat eman du Segik

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 15ean eman zuten Segi gazte antolakundeak bere agorpenaren berri eta hori eskualdeko gazteei jakinarazi nahi izan die Gazte Oihua ekimenak. Duela 33 urte sortu zen erakundea eta geroztik borroka eta izen ezberdinak izan ditu, beti independentzia eta sozialismoaren aldarriekin. Segiren hitzetan, «Jarrai, Gazteriak, Haika eta Segik, eta inguruko milaka gazteok emandako pausu oro izan da baliagarri, borrokaren lekukoa eskuz aldatzea bermatu dugulako, independentzia eta sozialismoaren aldeko konpromisoa gaur arte ekariz». Segik adierazi du bere jarduna bukatu dela, baina gazteriari antolatuta eta borrokan segitzeko deia egina dio.

zatoz gurekin

Kostaldera

costa daurada
sailou
H. Jaime I***
Marratzen orain **21€** /haizta

costa castellón
peñíscola
H. Peñíscola
Plana Suites***
Marratzen orain **40€** /haizta

costa blanca
benidorm
H. Carlos I***
Marratzen orain **34€** /haizta

costa del sol
benalmádena
H. San Faustino***
Marratzen orain **26€** /haizta

21€ /haizta

INFORMAZIOA
ETA ERRESERBAK
Entseguak
91900 8123
Tel. 948 631 344
Email: bera-12@viajesiberia.com

Lehen Viajes Iberia zona orain **vibo**

902 108 108 | viboviajes.com

GOIZUETA

GIZARTEA → GURASO ELKARTEAREN ESKUTIK

Uztailaren 2an hasiko dira neska-mutikoentzako udako ikastaroak

Igeriketa, informatika eta eskulanetan ariko dira

TTIPI-TTAPA

Aurten ere gazte-txoentzako ikastaroak paratu ditu martxan Guraso Elkartek. Emandako aukeren artean, igeriketa, informatika eta eskulanak izan dira hautatuak. Aldiz, ingelesak ez du erantzun haundirik izan eta ez da eskainiko.

Igeriketarako 31 ume apuntatu dira eta uztailan egunero autobusez

Hernaniko igerilekura joanen dira. Eskulanetan 14 ume apuntatu dira eta informatikan 8. Bi kasu hauetan, astean bi saio egingen dituzte. Uztailaren 2an hasiko dira ikastaroak eta hilabete hondarrean bukatu.

Karmen bezpera

Joan den urtean izandako arrakasta ikusita, aurten berriz Karmen bezperako eguna ospatuko da. Uztailaren 15ean egingen da eta dagoeneko eguna prestatzeko bilerak hasiak dira. Egitarau zehatza hurrengo aldizkarian emanen dugu.



Txapelak pilotari gaztetxoentzat

Pilotari gaztetxoek txapelketetan parte hartuz eta tartean txapelak eskuratuz segitzen dute. Hilabete hasieran, adibidez, Irurtzungo txapelketako finalak jokatu zituzten. Alebinetan, Antton Apezetxeak txapela eskuratu zuen, Mikel Elzaurdia beratarra lagun zuela. Infantiletan, Iker Salaberriak beste txapel bat irabazi zuen, Jon Alberdi azpeitiarrarekin. Biharamunean, beste final bat jokatu zuen Antton Apezetxeak Zizurko Arribillagarekin Donostean, baina aldi honetan ez zuen txapelik lortu. Bestalde, ekainaren 16an, Nafarroako Kirol Jolasen pilota txapelketako finala izandu zen. Ioritz Elizegi eta Iker Mirandak 3. mailako alebinetan irabazi egin zuten.

ARGAZKIAK: ANGEL SALABERRIA/ ELENA GARCIA



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Giro ederra UEMA Egunean

UEMA Egunarekin bat, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen batzarrak harrera egin zien ekainaren 9an bost herri gehiagori: Ondarroa, Mañaria, Getaia, Igantzi eta Oñati. Horrez gain, UEMAK hitzarmena berritu zuen Hizkuntza Eskubideen Behatokiarekin, eta Soziolinguistika Klusterreko bazkide egin zen. Berria egunkaria ere bidelagun izanen du hurrengo urteetan, Berrialagun ere egin baita. Gainerakoan, festa giroan joan zen UEMA Eguna, eta adin guztietako euskaltzaleek zerekin gozatu izan zuten: haurrentzako puzgarriekin, jokoekin eta tailerekin; herri bazkariarekin, dantzaldiarekin, gaztetxeko kontzertuekin...



ARGAZKIA: MARIA APEZETXEA

Bost neska-mutikoren Jaunartzea

Berandu xamar bada ere, ez dugu aipatu gabe utziko neska-mutiko hauek egin dutela aurten Jaunartzea. Azahara, Jokin, Unax, Joanes eta Mikel dira.



OSPAKIZUNAK → SANTIO FESTAK

Uztailaren 28ko arkume jateko txartelak salgai daude dagoeneko

Uztailaren 9ra arte merkeago eros daitezke txartelak

Ainhoa ANSA

Santioetako larunbatean, uztailaren 28an, eguerdian egingen den arkume jatera joan nahi duenak salgai ditu txartelak. Uztailaren 9ra arte 28 eurotan daude salgai Aranon bertan Kontseju tabernan, Goizuetako Amaia kafetegian, Ereñozun Irrintzin, Hernanin Deportibon, Urnietako Kantoin eta Herreran. Hortik aurrera eta uztailaren 19ra arte, 35 euroko balioko du txartelak. Umeentzat ere menu bat izango da aukeran eta horretarako ere txartelak egongo dira salgai 6 eurotan.

Aipatu, karpa eta txozna jarriko direla eta bertso zaharrak eta berriak musikarekin ere jarriko direla, Julio Soto, Andoni Egaña, Agin Rezola eta Maialen Lujanbio bertan direla. Gaez musika izanen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Uztailaren 28ko arkume jatea iragartzen duen kartela.

Gizarte Zerbitzuetako karta

Gizarte Zerbitzuetako Teknikariekin Udalak egindako zenbait bileren ondorioz, Nafarroako Gobernuaren eta bestelako erakunde

bidez, herritarrek baliatu ditzaketen zenbait prestaziori buruzko hitzaldia antolatu da uztailaren 4an, asteazkenean, herriko osasun zentroan. Herriko jendea laguntza horietaz informatzea da helbu-

rua, eta gizarte zerbitzuen berri gertuagotik ematea. Herritar guztientzat dago irekia.

Erremontean Arano goratu zuenetako bat zendu da

Aranon jaioa, Pedro Egurretxea, Bengoetxea II.a moduan egin zen ezagun erremontean, bigarren abizena erabiliz. 1943an egin zuen debuta Donostiako Urumea Frontoian hogeituzituela. Donostian bizi izan da azken urteetan eta ekainaren 7an hil zen 89 urte zituela. Erremontearen eta pilotaren historian herria izan ditugu pertsonaia ezagunak, eta Bengoetxea II.a ere gure historiaren parte da ezinbestean. Mila esker.

Sanjuanetako sardina jatea

Ohiturari eutsiz, joan den larunbatean egitekoa zen sanjuanetako sardina jatea. 40ren bat lagun zeuden apuntatuak Kontseju atarian sardina nahiko jateko.

LEITZALDEA

Birziklapenaren sentsibilizazio kanpaina Arano, Areso, Goizuet eta Leitzan

TTIPI-TTAPA

Birziklapenaren garrantziaz herritarrek sentsibilizateko kanpaina egingen du Mendialdea Mankomunitateak Arano, Areso, Goizuet eta Leitzan. Hala, uztailaren hila-betean langileak etxe-etxe ibiliko dira hondakinen bereizketari buruzko azalpenak emanez eta galdera batzuk egingez. Goiz-arratsaldez ibiliko dira, 09:30etik 13:30era eta 15:00etatik 18:00etara. Mankomunitatek adierazi dutenez, jendearen harrera ona espero dute.

Egin zaitez
ttipi-ttaparen
harpidedun
(0034) 948 63 54 58

Faktura orriak eta kartazalak

inprimitzen ditugu

Eskatu informazioa:

948 63 54 58
kulturrari@ttipi.net

ttipi-ttapa



fakturak / orriak
1.000 A4 → 86€
koloretan, 90 g. BEZ barne



kartazalak
1.000 ale → 107€
zuri beltzean BEZ barne

LEITZA

GIZARTEA → MURRIZKETAK OSASUN ZERBITZUAN

Larrialdietako zerbitzua aldatu nahi du Nafarroako Gobernuak

15:00etatik
08:00etarako
zerbitzua kendu
egin nahi du

JM BARRIOLA

Nafarroako Gobernuak larrialdietako zerbitzuetan aldaketak egin nahi ditu. Orain arte, 15:00etatik biharamunekoa 08:00etara Osasun Etxean egon behar zuten mediku eta erizain batek. Egin nahi dituzten aldaketen ondorioz, ez dute Osasun Etxean egon beharko. Honek kezka handia sortu du mediku, Udala eta herritarren artean. Izan ere, eta adibide bat emate aldera, bihotzeko edo edozein istripu baten aurrean, hau da, larrialdietan, denbora oso garrantzizkoa izaten da. Honen aurrean, ekainaren 22an herritarrak plazan elkartzekoak ziren, egoera salatzeko eta gaur egungo zerbitzu bera mantentzeko eskatzeko, zerbitzu publiko duina eta kalitatekoa izan dadin.

Sexu Askatasunaren Eguna

Aurten ere Sexu Askatasunaren Aldeko Taldeko kideek ostegun honetarako, ekainak 28, egitaraua prestatu dute. 20:00etan zinemaren eta dohainik *Ogiyik karri etzun semia* antzezlanaren ikusgai izanen da. Komedia honetan umorearen bidez, ama eta seme baten arteko harremana

kontakten da. Ondoren, 21:30ean, Torrean afaria izanen da 12 euroren truke. Udalak, bere aldetik, Sexu Askatasunaren Aldeko Taldeak aurkeztutako mozioa aho batez onartu zuen batzarrean. Animatu eta parte hartzeko deia egin dute taldekoek, «jendarte justuago baten aldeko lana guztion artean eginez».

Gorritararen pestak

Uztailaren 1ean Gorritararen auzoko pestak ospatuko dira.

- 10:00: meza.
- Ondoren: desafioa harri tiraka, Gorritarango kuadrilla zaldien aurka.
- Segidan, proba bereziak joko moduan, nahi duenak parte hartzeko.
- Sariak: urdaiazpikoa, gazta eta ardoa.
- Umeentzako jokoak.
- 14:00: bazkaria. Bazkaltzeko txartelak Basakabin egun berean (29 eurotan helduak eta 15 eurotan haurrak).
- 17:00: Mus Txapelketa.
- 18:00: dantzaldia iluntzera arte.
- Dantza lehiaketa.
- 19:30: Txintxurri txapelketa.
- 20:30: zozketa.
- Ondoren: txokolatea.
- Trikitilariak egun osoan.

Hitzaldia Martxelo Otamendirekin

Berria egunkariaren *Zure ziztada behar dugu* kanpaina dela eta, asteazkenean, hilak 27, Martxelo Otamendik hitzaldia ematekoa du 19:30ean, Aurreran.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Txondorrek ikusmin handia piztu du

Ekainaren 8an piztu zuten txondorra Ixkibarren, Leitzalarreko bihotzekoan. Horretarako talde bat bildu zen eta proiektua aurrera eraman dute, Goizuetako Andoni Etxenike eta taldearen laguntza eta aholkuekin. Egurra prestatu, plaza egin eta osatu egin dute. Gero, piztu eta zainketa lanetan hamar bat lagun aritu dira, ikasi bitartean, hau lehena izan baitute. Hamabost eguneko lanaren ondoren, ikatza atera eta esperientziarekin pozik daude. Jende ugari ibili da egun horietan, urte mordoska baitziren ez zela horrelakorik egiten herrian, nahiz eta garai batean oso ohiko lanbidea izan. Leitzalarrean azkenak 1950. urte aldera izan omen ziren.



ARGAZKIA: FERNANDO OIARTZUN

Sagardo Eguna arrakastatsua

Ekainaren 9an egin zen IV. Sagardo Eguna. 800 lagun inguru hurbildu ziren 20 ekoizle jarri zuten sagardoa dastatzeko. 1.200 pintxo ere eskaini ziren edariekin batera. Gipuzkoako sagardotegiak biltzen dituen bi elkartetakoak izan ziren, baita Nafarroako bat ere. Giro ederrean joan zen iluntzea, trikitilari eta bertsolariak alaituta.



ARGAZKIA: PLAZAOLA

Turismoko kontseilariak Plazaolako natur bidea bisitatu du

Juan Luis Sanchez de Muniain Kultura, Turismo eta Harreman Institutuzionalak kontseilariak, Carlos Erce turismoko zuzendari orokorrak eta hainbat teknikarik Plazaolako geltokia bisitatu zuten ekainaren 8an. Orain dela hiru urte kanpotik dena konpondu zuten eta orain barretetik txukuntzeko asmoa dago, turismo bulegoak eta aterpetxea egiteko. Ondoren, natur bide osoa pasatu zuten eta Uitziko tunel luzea osorik ikusi. Udaleko eta Plazaolako ordezkariak bidea eta geltokiak garatzen jarraitzeko garrantzia eta asmoak erakutsi zizkieten. Iruñeraino trenbidea izan zen natur bidea berreskuratzear ere aritu ziren ondoren Lekunberrin egin zen bileran.

OSPAKIZUNAK → OSTIRALEAN ETA LARUNBATEAN

Sanjuanei lekukoa hartuz, Sanpedro jaiak asteburu honetan

Larunbateko
afarirako
txartelak
Sastinean eros
daitezke

Juana Mari SAIZAR

Uda iritsi zaigu eta honekin batera umeak eskola garaia bukatu dute. Urteroko legez, San Juan bezpera izan dugu horren adierazgari eta ederki ospatuak geratu dira. Ekainaren 23a egun berezia da Euskal Herri osoan eta Areson ere izan zuen bere parte. Arratsaldean umeen jokoak, tailerrak eta merienda egitekoak ziren plazan, eta gauez herri afaria denentzat. Urtero Guraso Elkarteak antolatzen duen festan aurtengoan Udalak ere bat egin du eta horrela, haurren edaria Guraso Elkarteak eta helduena Udalak ezarri du. Afaria norberak berea eramaten du etxetik

prestaturia, eta guztiak beren parte eginda helburu nagusia giro ederrean gau polit bat pasatzea izaten da, baita lortu ere. Iluntzean, sua egitekoa zen.

San Juan bezpera ondoren, San Pedro jaiak izango dira asteburu honetan herrian. Ostiral arratsaldean hasiko dira San Pedro eguneko meza eginez eta herriko eskearekin. Gauean, Lagun Artekoek afaria egingo dute Pake Toki elkartearen.

Larunbata izango da egun handia, goizean goizetik ederki gosalduek ondoren, baserrietako eskean ariko baitira gazteak. Egun guztia han pasa ondoren, plazan musika jarriko dute herritar guztientzat eta eguna amaitzeko herri afaria izango da Pake Toki elkartearen. Afalondoren ere musika izango da. Esan, afarirako txartelak Sastinean dauzela salgai.



ARGAZKIAK: ANA GOÑI

Pilotari gaztetxoak finalean

Sortzen Ikasbatuazek antolatutako Pilota Txapelketan parte hartu dute Nazabal ikastetxeak eta bi finaltara ere ailegatu dira. Ekainaren 17an jokatu ziren finalak Iraizotzen. Ttikien mailako finalean, Aitor Arraras eta Hegoi Baraibar aritu ziren eta umeetan, Aimar Otermin eta Hegoi Baraibar. Bi kategorietan txapelburuak gelditu ziren. Baina gustura gelditu dira txapelketa osoan egin duten lanagatik, sortutako giro onagatik eta lagun berriak egin dituztelako.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Fruta eta barazki festa

Ikasturte honetan, Haur Hezkuntzako ikasleak barazkiak eta frutak lantzen aritu dira eskolan, Nafarroako Gobernuaren programa bat tarteko. Ikasturte bukaeran, fruta eta barazki sorta eder hau bildu zuten: batetik, ikasturtean erabili diren fruta eta barazkiak, eta horrez gain, fruta berriak: kokoak, karanbolak, mangoa, pitahaya, azukre-kanabera, txirimioia, papaia, ranbutana... Ikusgai jarri zituzten eskolan, ikustekoa baitzen eta bi egunen ondoren, banatu eta guztien artean jan zituzten.



zure ziztada behar dugu

Telefonoz: 943 30 43 45
Posta elektronikoz: laguna@berria.info
www.berria.info/berrialaguna

Euskarazko hedabideen
etorkizuna **gure esku** dago.
Geuk eutsi beharko diegu.

Izan zaitez
berrialaguna

BAZTAN

AZPIEGITURA → SAIHESBIDEA EZTABAIDAN

Udalak ez du Irurita-Elizondo saihesbidearen inaugurazioan parte hartu

Zubia eskatzen zutenei eta herritarren ordezkari bati Foru Polizia oldartu izana salatu du Udal Gobernuak

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 15ean inauguratu zuten Arraioz eta Elbetelotzen dituen saihesbidea. Ekitaldi gorabeheratsua izan zen. Batetik, Nafarroako Gobernuan sortu den egoera dela eta, kontseilaria eta zuzendaria etorri beharrean, Sustapen eta Etxebizitza Departamentuko Eraikuntza Zerbitzuko zuzendaria, Estela Moso, izan zen Gobernuko ordezkaria. «Errespetu falta nabarmena izan arren», Udal Gobernuak ekitaldira joatea erabaki zuen, baina ekitaldia hasi baino lehen jakin zuten herritar talde bati ukatu ziotela ekitaldia egin behar zen tokira pasatzea. Herritar talde honen asmoa ekitaldian



partehartzea zen eta Elizondoko zubia lehenbailehen egiteko eskatzea. Udal ordezkariak Foru Poliziaren arduradunekin hitz egin zuten herritarren partehartzea eta adierazpen askatasuna bermatu zezaten eskatzeko, baina Udal Gobernuak ohar bidez jakinarazi duenez, «momentu horretan Foru Poliziak jarraera oldarkorren herritarren parte-hartzea galarazi eta herritarren ordezkari bat erasotu zuen». Honen ondorioz, Udalak egoera salatzea eta ekitaldian ez parte hartzea erabaki zuen. «Herritarren ordezkari bezala, ezin dugu onartu herritarren partehartzea eta adierazpen askatasuna galarazten duten ekitaldien parte izatea. Guztiz salagarria da Baztanen egindako ekitaldi batean, polizia bertako ordezkariak erasotu eta herritarren partehartzea ukatzeko erabiltzea», azaldu du Udal Gobernuak.

Hala ere, hurbildutako guztiei inaugurazioko ekitaldian ez partehartzekeko arrazoiak eman zizkieten eta eskerrak eman zizkieten saihesbideko lanetan aritu diren guztiei (Nafarroako Gobernuko Herri Lan Departamentuari, Teknikariei, Batzordean parte hartu duten herrietako alkateei, eta enpresako langileei).



ARGAZKIAK: UTZITAKO ETA ONDIKOL

Goiko argazkian, «oraindik lanak akitu gabe inaugurazioa egitea» salatu zuten herritarrak ageri dira eta behekoan, saihesbide berria.

Oharrean gaineratu duenez, «Udalaren borondatea elkarlanean aritzea izan da orain arte eta izanen da etorkizunean ere saihesbide honek dituen gabezia guztiak konpondu arte».

EZAUGARRIAK

13.730.687 euro inbertitu ditu Gobernuak 5,8 kilometroko saihesbide hau egiteko eta egunero 3.300 ibilgailu pasako direla aurreikusi du. Bortz biribilgune ditu eta 80 kilometro ordukoa da gehieneko abiadura.

ELIZONDARREK: ZUBIA

Saihesbidea inauguratu baino egun batzuk lehenago, 100 herritar elkartu ziren Udalak eta Elizondoko Herriko Etxeak Elizondoko Baztan-Berri auzoan deitutako batzar informatibora. Saihesbidea izan zuten hizpide, baina joan den

irailean hartutako erabakia azaldu eta herritarren iradokizunak ere bildu nahi izan zituzten. Alde batetik, 2009an batzar bidez, Baztan-Berri, Erlategi, Braulio Iriarte eta Maurizio eta Felix gunee-tako trafiko erregulazioa lantzeko komisioa osatu zela oroitarazi zuten. Udal teknikariek plano batean islatu zen egindako lana eta saihesbidea irekitzerakoan aplikatzea hobetsi zen. Hala, ekainaren 11ko batzarrean erabaki zenez, «ez da gehiago itxaron behar trafiko erregulazioarekin aitzinera segitzeko».

Elizondoko saihesbideaz ere aritu ziren. Herriko Etxeak azken batzarrean aipatutakoei buruz prentsara bidali duen oharrean azaldu duenez, «saihesbidearen arazoari soluzio integrala emateko, hasiera batean Elizondorako sarbide gisa

zubi bat aurreikusi baino ere, saihesbidea zubia ireki gabe inauguratu dute». Gisa berean, adierazi du, 2011ko irailaren 23ko batzarrean, «herriak zubia egiten ez den bitartean, Baztan-Berriko sarbidea ez irekitzeko ebatzi zuela, batez ere segurtasunagatik eta presio neurri bezala». Hortaz, inaugurazio egunean Nafarroako Gobernuko ordezkariaren aitzinera agertzeko deia egin zuten, «Elizondoren sarbide-eza agerian jartzeko, zubia lehenbailehen egiteko eskatzeko eta Elizondarren kezka Gobernukoiei zabaltzeko».

Herriko Etxeak jakinarazi duenez, bertze batzar bat deituko du «irailaren 23an sarbide honen inguruan hartutako erabakia berresteko, edo bertze aukerak aztertu eta behin betiko erabakia hartzeko».

HERRIKO BESTAK → UZTAILAREN 6TIK 9RA

Ortziral arratsaldeko txupinazoarekin hasiko dira Azpilkuetan lau eguneko bestak

Bestetako igandean mariatxiak izanen dira

TTIPI-TTAPA

Sanferminekin batera, Azpilkuetak hartuko du besten lekukoa eta aurten ere lau eguneko bestak prestatu dituzte, uztailaren 6tik 9ra.

ORTZILERIA, UZTAILAK 6 BEZPERA

- 19:00etan txupinazoa.
- 19:30ean frontenis txapelketako final nagusia.
- Ondotik, sari banaketa.
- 21:00etan ezkil jotzea.
- 21:30ean Baztan Zopak.
- Ondotik, dantzaldia JOXEANJELek alaituta.

LAUNBETA, UZTAILAK 7 SAN FERMIN EGUNE ETA HAURREN EGUNE

- 11:00etan Meza Nagusia San Andres elizan.
- 12:00etan luntxa elkartean.
- 16:30ean mus txapelketa elkartean.
- 17:30ean haurrendako puzgarri eta sarpresak.
- 18:00etan txokolatada.
- Ondotik, dantzaldia FRANTZISKOREkin.
- 22:00etan patata tortilla txapelketa eta herri afaria.
- Gauetz, dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.
- Goizaldera gosaria egiten da.

IGANDEA, UZTAILAK 8 GAZTE EGUNE


- 12:00etan plater tiroketa.
- 14:00etan gazteen bazkaria.
- 16:30ean partxis txapelketa.
- 20:30ean dantzaldia LOS TENAMPAS mariatxiekin.

ASTELEHENA, UZTAILAK 9 ZIKIRO EGUNE

- 08:00etan su piztea.
- 09:00etan gosaria herriko elkartean.
- 14:00etan zikiro jatea Bankako kantariekin.
- Arratsaldean, dantzaldia FRANTZISKOK alaituta.
- 22:00etan afaria.
- Ondotik, dantzaldia FRANTZISKOREkin.
- Goiz aldera GAIXOANI.

Ezker Abertzalearen oharra UPNren jarreraz

Herrietako alkateek eskatuta, murrizketei buruz solasteko Batzar Nagusiaren ez ohiko bilkura egin zen ekainaren 12an eta bilera hartara UPNko zinegotzi taldea agertu ez izana «onartezina de-



ARGAZKIAK: IZASKUN DANBORIENA

Azpilkuetako emakumeek sasoi ederra dutela ikus daiteke goitiko argazkian, sokatiran ari baitira. Beheitikoak zikiro jatekoak eta gazte egunekoak dira.

la» salatu du Ezker Abertzaleak. UPN-PSNren gobernua «animaleko mozketak egiten ari dela» kritikatu du ohar bidez eta gaineratu du, «horren ondorioak Nafarroako herritar eta langile guztiak jasaten ari gara». Mozketa «ikusgarrienak» hezkuntza eta osasungintzan izaten ari dira eta horrekin, «neketan eraikitako ongizate estatu eskasa desegin nahi dute», adierazi du Ezker Abertzaleak. Aldiz, Iruñeko agintaritzako bulegoetatik UPN eta PSNko buruek «Nafarroako

Kutxa desegin bizartean kutxatik sekulako dietak jaso dituztela» kritikatu du eta «Yolanda Barcinak lan gehiago egin eta guttiago kobratu behar dela erran, eta bere soldata %33 igan duela».

Horrekin batera azaldu du, «Abiadura Handiko Trena egiteko ehunka milioi gastatzen ari diren bizartean, Oronozko etengabeko arretagunea kendu nahi dutela edo Lekarozko ur-hartzea eta Amaiurko ur-depositua egiteko dirurik ez dela erran dutela». Ezker

Abertzalearen irudiko, Batzar Nagusiak herritarrei eraginen dieten mozketei buruz eztabaizatzeko deitutako ez ohiko bilkurarat UPNkoak ez agertzea ikaragarriko itsuskeria da, jarrera karkati eta koldarra bertzerik ez da». Gisa berean, Begoña Sanzberro ez agertu izana «bereziki lotsagarritzat» jo du, «parlamentari izanik bera eta gainera, hainbat zesan-tia eta gisako kobratzen, Udalarri buruz direnak eta ez direnak erranez hantaturik eta harro ibili bidenabar».

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zuzen Agintariak
- Auzo, Herriak, Hiriburu eta Hirte eremuetan
- Lan-eremuetan
- Herri eta Herriak
- Alkaldeak eta Herriak
- Herriak eta Herriak
- Herriak eta Herriak
- Herriak eta Herriak
- Herriak eta Herriak

Santiago, 15 • ELIZONDO • T.F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

BAZTAN

UDALA → HONDAKINEN KUDEAKETA

168 konpost-ontzi banatu dituzte hondakinen mankomunitateak eta udal batzordeak

Udalak eskaerak egiten segitzera animatu ditu herritarrak

TTIPI-TTAPA

Egunero etxean sortzen dugun zaborraren %40 organikoa da, sukalde soberakina, eta zabor edukiontzietara joaten da neurri haundi batean bederen. Bada, horri irtenbidea eman nahian eta zabor organikoa murrizteko, konpost makinak banatu dituzte eskualdeko hondakinen mankomunitateak eta Zaborren Udal Batzordeak. Eskaera egin zuten 168 baztandarrek joan den astean hartu zuten ontzia eta konposta modu egokian egiteko konpromisoa.

Ekainaren 18an Baztangoizakoek egin

zuten hitzordua Arizkongo elkartearen eta bildutako 30 lagunek konposta egitearen nondik norakoak aditu zituzten. Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateko teknikariak, zaborren udal zinegotziak eta udal langile bat aritu ziren konpostagailuak banatzen eta azalpenak ematen. Ekainaren 21ean, berriz, Iruritako Gizartea Bilgunean egin zen hurrengo hitzordua eta ekainaren 23an Elizondoko Arizkunenean.

Udalak eskaerak egiten segitzeko deia egin die herritarrei, «ondoko urtean ere beharbada izanen delakoz ontzi gehiago ekartzeko aukera».

Dirulaguntza

Hiru langile dituen Baztango Burne zurgindegia enpresak 21.302,24 euroko diru-



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Dantzari Eguna Iruritan

Ikasturtean ikasitakoa jendaurrean erakutsi zuten iruritarrek ekainaren 16an egin zuten Dantzari Egunean. Saio polita eskaini zuten.



ARGAZKIA ETA TESTUA: MAITE OTEIZA

Baztango Musika Eskolakoak Nafarroako Txirularien I. Topaketan

Erearoaren 9an, Nafarroako Txirularien I. Topaketa egin zen Iruñean. Nafarroako hamabi Musika Eskoletako txirula ikasleak bildu eta ordu eta erdiko kontzertu eskaini zuten. Baztango taldea hamahiru musikaririk osatu zuten, eta F. Chuecaren *La Gran Vía* jo zuten, arras maila altuarekin. Egunari akabaila emateko, partaide guztiak elkarrekin H. Manciniren *La pantera rosa* jo zuten. Bildutako ikusleendako, maila haundiko kontzertua izan zen, bai musika aldetik eta bai antolakuntza aldetik ere. Lehenbiziko pausu bat izan da, gure eskualdeko musika eskoletako ikasleek zer egiten duten erakusteko aukera izan dezaten bertze lekuetan.

laguntza hartuko du Nafarroako Gobernuaren-

gandik. 73.456 euroko inbertsio bat egiteko

onartu dio subentzio hori Gobernuak.

DIANA INIESTA BENEDICTO
psikologoa eta margolaria

HAURRENDAKO EKINTZAK. 2012KO ABUZTUA

1. Tallerra: "Artista handirik berriz, lanpoan margotzen dugur"
2. Tallerra: "Speak english while painting" ("Hitx egin ingelesaz margotuz")
3. Tallerra: "Pintura eta musikaren bitartez emozioak"

Eratzun, ledu eta erdi, asteon egun bat edo bi (taileraren arabera)

Informazio gehiago: <http://pintayrepinta.blogspot.com> | dianainiesta@hotmail.com | 659 948 926/948 453 478

Sutea-Zaldain
instalazioak

IGOGAILUEN INSTALAZIOA
AROTEGI METALIKOA
TOLDOAK

Santiago, 71
31700 ELIZONDO
T. 948 580 166
F. 948 452 557
M. 619 424 999 - 649 699 820

KIROLA → MEDITERRANEO ETA KANTAURI LOTUZ

Transpyr 2012 Elizondora ailegatuko da uztailaren 6an

Juan Miguel Eraso eta Agustin Ariztiak parte hartuko dute

Elizondoko Merkatu Plazan harrera eginen diete txirindulariei. Biharamunean, toki beretik eginen da Elizondo eta Donostia arteko azkeneko etaparen irteera, 08:00etan.

TTIPI-TTAPA

Mediterraneo eta Kantauri itsasoak lotzen dituen Transpyr 2012 mendiko txirindularitza proba gogorra uztailaren 6an ailegatuko da Elizondora. Pirinioak gurutzatzen ditu BTT proba honek, Kataluniako Rose sen hasi eta Donostiara bitartean eta nazioarteko aldizkari entzutetsuen arabera, munduko probarik gogorrenetakoa da. Hamabortz herrialde-tako 220 abenturazalek parte hartuko dute aurtengo edizioan eta Baztango bi ordezkari izanen ditu: Juan Miguel Eraso eta Agustin Ariztia.

Uztailaren 6an ailegatuko da Baztanera eta kazetari eta agintariek

Egoitza berreskuratu du Ezker Abertzaleak

Ezker Abertzaleak jakinarazi duenez, duela hamar urte Guardia Zibilak hetsi zion egoitza berreskuratu du. Orain dela aste batzuk ireki ahal izan du Elizondoko behetiko karrikako egoitza eta adierazi duenez, eraikina «arrunt hondatu» da eta horrek «salaketa gogorra» merezi du.

Tailerra haurrendako

Jabier Ziga pintura eta grabatu tailerra antolatu du Udalak 5 eta 9 urte arteko haurrendako. Aste honetan hasi da ikastaroa eta uztailaren 6an akituko da. Tarte horretan, 10:30etik 12:30era bilduko dira Arizkunenean.



ARGAZKIAK: MAITE OTEIZA

Ikastaroei besta giroan eman diote akabera Erratzun

Erratzuko Kultur Elkarteak ikasturte honetan antolatutako tailer eta ikastaroei akabera emateko, ekainaren 9an hainbat ekitaldi egin zituzten. Arratsaldeko 7etatik aitzinera, plazan dantza herrikoiak izan ziren, eta ondotik, sortutako musika bandak kalejira egin zuen ostatuetan barna. Tragoa hartu bitartean, kanta zaharrak abestu zituzten eta eguna akitzeko Kastonean herri afaria egin zuten.



ARGAZKIAK: ONDIKOL

Artea karrikan

Artea karrikara ateratzeko ekimenak erantzun ezin hobea izan zuen. Margolariak beraien obrak erakutsi zituzten, eta neska-mutikoez gozatu egin zuten margotzen, ekialdeko dantzen erakustaldia ere gustura hartu zuen jendeak.

ANYXTONSA
Real Estate

Avda. de la Libertad, 10, Elizondo • 948 591 807 • 948 591 853
Email: anyxtonsa.com • www.anyxtonsa.com

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatuak

Santiago, 39 2º ELIZONDO
T. 948 593 441 M. 630 364 811

MENDI
ostatua

Santiago 25
948 500 312
ELIZONDO

BAZTAN

UDALA → URTEKO BALORAZIOA

Gobernu Taldearen urtebeteko balorazioa egin du Udalak

Zorra traba izan arren beharrei irtenbidea ematen saiatu dela adierazi du

TTIPI-TTAPA

Udal berria osatu zela urtebete pasatu denean, Udal Gobernu osoa zuten dutenek urte honetan egindakoaren balorazioa egin zuten ekainaren 21eko prentsaurrekoan. Udaletxean sartu zirenean kasik 9 milioi euroko zorra izatea «traba handia» izan dela gogoratu ondotik, «egoera zail honetan baztandarraren beharrei eta zerbitzuei irtenbidea ematen» saiatu direla aipatu zuten.

Zor handia zela eta, «Udalak ez du prestamotik eskatzen ahal inbertsioak egiteko, baina Udalaren kudeaketaren ondorioz, aurten zorra 600.000 euro inguruan ttipitu da». Gisa berean Nafarroako Gobernuaren

«egoera ezegonkorra eta abian dituen etengabeko murrizketek, arazoa gehitu bertzerik ez» omen diote egiten lehendik ere egoera zailan zegoen Udalarri.

Egoera honetan, oinarriak finkatzea izan da Gobernu Taldearen asmoa, «bai Udalaren kudeaketaren oinarriak aldatzeko, eta bai orain artio bulkatu izan den garapen eredu agortua aldatzeko ere». Kudeaketa hobetzeko lehen urratsa gastu arruntak berrantolatzea eta horri esker baliabide ekonomikoak sortzea izan dela azaldu zuten, «udaleko zerbitzu sozialak indartu eta sustatu baititugu udal langile berriak kontratatuz». Aholkularitza juridikoa eta hirigintza aholkularitza ere aldatu dira eta euskararen normalizazioan urratsak emanez, «lehenbizikoz, instituzioek eta baztandarrek idazkari eta arkitekto eskaldunak dituzte».



ARGAZKIA: ONDIKOL
Udal Gobernu Taldeko ordezkariak ekainaren 21ean eskaini zuten prentsaurrekoa.



ARGAZKIAK: ZALDUA

Jaunartzeak Zozaiaren eta Almandozen

Ekainaren 3ean Zozaiako Iraitz eta Olaz Iturralde Arretxeak beraien lehenbiziko Jaunartzea egin zuten eta argazkian Ramon Apezetxea apezarekin ageri dira. Eskuineko argazkian ageri dena, berriz, Almandozko Uxoa Agerre Etxebertz da. Honek ekainaren 10ean egin zuen Jaunartzea, herriko besten barne.

Gai korapilatsuetan, Udala «momentu guztietan beharrezagoen tokian» egon dela erran zuten: Almandoz eta Oharizko harrobien aferan edo Arraioz-Elbeteko saihebidetaren lanetan. Azken honetan, «hutsune anitz zuzendu badira ere, saihebidetaren arron- tean akitu gabe inauguratu da», iritzi zioten. Gaineratu zuten, Udalak bere esku dagoen guztia egin du «Gobernuak Elizondoko zubia egiteko hartu zuen konpromisoa betearazteko eta Lekarozko oinezkoen bidea ahal bezain agudo egiteko». Demokrazia partehartzailea bulkatu asmoz, batzorde irekiak eta Lurralde Okupazioaren Estrategia eta Eredua garatzeko prozesu partehartzaileak ere orotarazi zituzten.

Kirol instalazioen kudeaketarako Giltxaurdi SL enpresa publikoa sartu dutela aipatzearekin batera, Iurretako Sagues etxebizitzendako edo hiltagirako ere kudeaketa berria proposatuko dela jakinarazi zuten Udala Gobernu Taldeko kideek.

Su-etenaren diskoa

Joniko Berho bateriarekin eta ahotsean, Urko Baraibar baxuan eta Iker Plaza gitarrarekin eta ahotsean. Hiru leharoztar hauek osatzen duten Su- etena taldeak *Democrazia* diskoa kaleratu du. 2011ko udan osatu zuten taldea eta azaroan ekin zioten maketa grabatzeari Saran, Iñigo Irazoki beratarrarekin. Gerroztik, inguruko ostatu eta gaztetxeetan kontzertu batzuk eskaini dituzte eta duela bi aste

maketa argitaratu zuten, beraien lehenbiziko lana. Inguruko ostatu eta paratu dute salgai.

Kantak dohainik entzun daitezke Myspacen (www.myspace.com/suena). Zortzi kantuz osatu dute maketa eta zuzenean grabatuak dira. Punk eta hardcore ukituko metal gordina estiloan kokatu dute beraien musika. Taldekideen asmoa ahalik eta kontzertu gehien ematea da, «ondotik bertze maketa bat grabatzeko, baldintza hobetoetan».



Diskoaren azala.



KULTURA → AURTEN BERRIKUNTZEKIN

Usopop jaialdia zahar etxe zaharreko parkean eginen da uztailaren 7an

Lau talde igoko dira eszenatoki gainera eta sartzea urririk izanen da

Joana GUERENDIAIN

Uztailaren 7an, larunbat gauarekin, Usopop festibalaren itzulera dugu. Usaian, Lizarrietan egin izan da, baina aldi honetan plazara etorriko dira, zahar etxe zaha-

rraren parkera, hain zuzen.

Arratsaldean, 18:30-etik goiti hasiko dira kontzertuak eta talde gonbidatuak ondokoak izanen dira: Botibol Baionako folk taldea, Belako mungiar talde gaztea, Gari Hertzainak taldeko kantari ohia eta Elorn dj-a. Lehentxeago Pantxika Solorzano eta Xanok Elektronik Plist haurrentzako dantzaldia aurkeztuko dute.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Botibol, Belako, Gari eta Elorn dj-a izanen dira aurtengo Usopop jaialdiko gonbidatuak.

San Josepe eskolako besta larunbatean

Larunbat honetan, ekainak 30, San Josepe eskolaren besta ospatuko da kiroldegian. Arratsaldean pasatuko da, haurren ikusgarriekin hasiko da eta ondotik, afaria izanen da denei idekia.

Merkatua

Udaguz bezala, ortzegun goizero merkatua izanen da frontoian. Merkatu honetara eskualdeko merkataria heldu dira jatekoa saltzera, baina baita eskulanak (bitxiak, arropak...) saltzera ere. Goizetan eginen da, 09:00etatik goiti, uztailaren 5ean hasiko da irailaren 6ra arte.

Larrun Kanta

Uztailaren 3an, asteartez, Larrun Kanta taldeak kontzertu bat emanen du elizan 21:30ean. Sartzea hamar eurotan izanen da eta urririk 14 urte baino guttiagokoentzat. Kontzertuak gutti gorabehera oren bat eta erdi iraunen du. Larrun kanta Azkain-go abesbatza mistoa da.

Hauteskundeak

Joan den ekainaren 10ean eta 17an Frantzia-ko legebiltzarrerako hauteskundeak izan ziren eta herritarrek bozkatzera joan behar zuten berriz, oraingoan eskualdeko diputatua hautatzeko. Hona hemen Sarako emaitzak: lehen itzulian 1.029 pertsonak bozkatu zuten eta Michèle Alliot-Marie (UMP) ailegatu zen lehenik bozen %32,9rekin, ondotik Peio Etcheverry-Ainchart (EHBAL) %27,92 eta hirugarrenik, Sylviane Alaux (PS) %21,24rekin. Bertze kandidatuek emaitza apalak egin zituzten. Bigarren itzulian, 1.021 pertsona joan ziren bozkatzera, eta berriz ere MAM izan genuen aitzinean bozen %51,44 rekin eta Alaux-ek %48,56 eskuratu zuen. Sara Pirineo Atlantikoko 6. barrutian sartzen da eta hor diputatua Sylviane Alaux hautatua izan da.

Ondoko taulan, hauteskundeetako bi itzulietan Saran izandako emaitzak ageri dira, parte-hartzea, boto kopurua eta portzentajeak.

	1. ITZULIA		2. ITZULIA	
ZENTSOA	1.895		1.895	
PARTEHARTZEA	1.029		1.021	
BALIODUNAK	1.003		937	
HAUTAGAIK	Botoak	%	Botoak	%
Michele Alliot-Marie (UMP)	330	%32,90	482	%51,44
Sylviane Alaux (PS)	213	%21,24	455	%48,56
Peio Etcheverry-Ainchart (EH Bai)	280	%27,92		
Jean Telletxea (EAJ)	50	%4,99		
F. Jalleau-Longueville (F. Nazionala)	37	%3,69		
Philippe Etcheverry (Amalur)	33	%3,29		
Marie Contraires (Zentroa)	21	%2,09		
Y. Debarvieux (Ezkerreko Frontea)	11	%1,10		
J. F. Zunzarren (Eskuina)	7	%0,70		
Michel Lamarque (Independentea)	7	%0,70		
Sylvie Laplace (NPA)	6	%0,60		
Christophe Lepretre (EAI)	4	%0,40		
Michele Noullobos (Lutte Ouvriere)	4	%0,40		
Sophie Hautenuve (Piratak)	0	%0,00		

SOULE
fileta artea
Tfnua: 948 453 444
Mug.: 629 659 583
ARIZKUN

FRANZESIA
FRANZESIA
FRANZESIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
FRANZESIA
FRANZESIA
FRANZESIA

SENPERE

HAUTESKUNDEAK → FRANTZIAKO LEGEBILTZARRA

Michèle Alliot Marie eskuindarrak hauteskundeak galdu ditu Lapurdin eta Senperen

Hauteskundeen arabera gero eta ezkertiarra da Senpere

Franck DOLOSOR

Ainitzek diote lurrikara gertatu zela aurtengo hauteskunde legegileetan, aspaldiko partez eskuinak bozak galdu baitzituen Frantzian, Iparraldean eta Senperen. Ondoko bortz urteetan diputatu sozialista izanen baitugu: Sylviane Alaux. Hirugarren aldia da Michèle Alliot Marierekin (UMP) lehiatzen zela eta aurtengo uhin arrosak ministro ohia erorarazi du.

Nicole Péry diputatuaren idazkaría, Ziburuko hautetsia eta Akitaniako lurralde kontseilaria izan da orain arte Sylviane Alaux. Senpere zeharkeleazakeen abiada haun-

diko trenbide berriaren alde dago errotik. Kanpaina denboran ez du batere hori gorde, baina kaltetuen sufrimendua entzuten baitu gai hortaz herri galdeketa egitea proposatuko duela hitz eman du. Hainbertze kritikatzeko den proiektuaren alde baldin bada ere, azkenean indartsuagoa izan da MAM baino, azken 26 urteetan Lapurdi kostaldeko diputatua izan dena. Gainerat, kargu hortan ez zelarik gobernuan zegoen, defentsa, barne, justizia eta kanpo gaietarako ministro eta maiz lehen ministro izatekotan izan baita. Zortzigarren aldia zen aurkezten zuela bere burua baina gutik pentsatzen zuten galtzen ahal zuela. Herritar ainitz nekatu dira, batzuek ez diote barkatu Frantziako segurtasun indarrak Tuni-



ARGAZIAK: FRANCK DOLOSOR

Sylviane Alaux diputatu sozialista berria Joel Maitia ordezkorekin, eta MAM Vincent Bru ordezkorekin, Max Brisson UMPko arduradunarekin eta Daniel Poulou ordezkari ohiarekin.

	1. ITZULIA		2. ITZULIA	
ZENTSOA	4.392		4.391	
PARTEHARTZEA	2.563		2.511	
BALIODUNAK	2.515		2.359	
HAUTAGAIK	Botoak	%	Botoak	%
Sylviane Alaux (PS)	726	%28,87	1.250	%52,99
Michele Alliot-Marie (UMP)	783	%31,13	1.109	%47,01
Peio Etxeberri-Aintzart (EH Bai)	450	%17,89		
F. Jalleau-Longueville (F. Nazionala)	195	%7,75		
Marie Contraires (Zentroa)	86	%3,42		
Philippe Etxeberri (Amalur)	68	%2,70		
Y. Debarvieux (Ezkerreko Frontea)	67	%2,66		
Jean Telletxea (EAJ)	42	%1,67		
Michele Noulibos (Lutte Ouvriere)	28	%1,11		
J.F. Zunzarren (Independentea)	26	%1,03		
Michel Lamarque (Independentea)	25	%0,99		
Christophe Lepretre (EAI)	14	%0,56		
Sylbie Laplace (NPA)	5	%0,20		
Sophie Hautenuve (Piratak)	0	%0,00		

siar igortzea proposatu izana iaz eta bertze batzuek ez dute ahantzi Jon Antza militantea desageru zela MAM gobernuan zelarik, barne eta justizia ministerioan.

Ipar Euskal Herri osoa bezala, Senpere ere gero eta ezkertiarra da hauteskundeen arabera. Seigarren barrutiko 25 herrietan Alauxek 27.648 boz bildu zituen (%51,62) eta MAMek 25.908 (%48,38), eta aldea are haundiagoa da gurean 1.250 boz (%52,99) lehenarentzat eta 1.109 boz (%47,01) bigarrenarentzat. Azken urteetan soziologia aldatu dela ageri da hauteskudez-hauteskunde. Eskuin-zentroko herria izatetik pittaka-

pittaka ezkerreko gero eta indar gehiago hartu du nagusitu arte.

2002an, MAMek bozen %62 zituen Senperen, 2007an bortz puntu galdu zituen eta aurtengo %47. Ezkerreko hautagaiak kontrako bidea egin du, 2002ko lehen itzulian 367 boz baitzitu (%17,39) eta aurtengo bigarren itzulian 1.250 herritarren konfidantza izan du, kasik %53.

Izarrak Senperen

Izarrak Baxe Nafarroako laukoteak *Erokeriaz* bere azken diska aurtengo bigarren itzulian 1.250 herritarren konfidantza izan du, kasik %53.

toan entzun ziren mar-txoan. Udaberrian hirugarren diska grabatu zuten eta orain horren aurkezpena egiten ari dira herriz-herriz, goxoan kantatzeko asmoarekin beti.

Celtas Cortos Amotzen


Estilo aintzeko musikak entzuten dira Amotzeko bestetan, Celtas Cortos, Artxeroak eta Pil Pil taldeek alaituko baitute auzoa uztailearen 6tik 15erat. Zunba ikastaroa eta erakustaldiak eskainiko dituzte lehen aldikoz, eta usaiako ekitaldien artean mus xapelketa, lasterketa eta zikiroak daudu. Uztailearen 14an artsauek eta laborantza feriak izanen dira.

MONTXO OSTATUA TABAKO-BENDA

Hiru harriztauk | Gijotzeta | Piztoko | Merox ekoiztuak

Txaneroa 09:00etatik 02:30era - Zuzendaria 7 km. bita


ANJAN-BORDA - URTAZURI | 948 599 039



EZKONTZAK

Xabier Leiza Martikorena eta **Aintzane Iturria Iparragirre**, Etxalarkoa eta Arantzakoa, ekainaren 9an Arantzan.
Aitziber Zabala Goizueta eta **Ibai Egaña Ramirez**, Goizuetakoa eta Donostiakoa, ekainaren 9an Goizuetan.
Gilles Loudmer eta **Lise-Marie Cellier**, ekainaren 9an Saran.
David Perugorria eta **Coralie Brassat**, ekainaren 16an Saran.


Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



SORTZEAK

Mikel Iturbide Cubero, Gaztelukoa, ekainaren 9an.
Ione Saint Martin, Sarakoa, ekainaren 2an.
Lluvia Brianzeau Salanueva, Zubieta-koa, ekainaren 4an.
Elaia Mindegia Aranburu, Lesakakoa, ekainaren 8an.
Nahia Iparragirre Barberena, Etxalarkoa, ekainaren 1ean.
Ander Sarasola Zelaieta, Igantzikoa, ekainaren 8an.
Egoi Otxandorena Petirena, Oronoz-Mugairikoa, ekainaren 19an.
Ainara Maskotena Laborde, Urdazubikoa, ekainaren 1ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



HERIOTZAK

Maria Teresa Perugorria Arretxea, Berakoa, ekainaren 6an, 78 urte.
Consolacion Etxenike Arburua, Le-karozkoa, ekainaren 7an, 87 urte.
Filin Apeztegia Iribarren, Berakoa, ekainaren 15ean, 86 urte.
Benito Muru Etxegoien, Iruritikoa, ekainaren 15ean, 91 urte.
Ignazio Iparrea Irigoien, Arizkungoa, ekainaren 15ean, 79 urte.
Mikaela Zabaleta Goldarazena, Leitzakoa, ekainaren 18an, 94 urte.
Jose Antonio Erasun Erasun, Beintza-Labaiengoa, ekainaren 19an, 78 urte.



MIKEL

Zure solasaldi berritsuak ditugu oroimenean eguneroko gosál garaian, txoria bezain libre zinen mendian, euskara zenuen maite mintzairan.

Beti izango zara gurekin.

MALERREKA MANKOMUNITATEKO ZURE LANKIDE-LAGUNAK

Donezteben, 2012ko ekainaren 15ean



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
 MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
 948581959 | 948637404

LEKUNBERRI | BERA (San José)
 LESAKA | ELIZONDO (Baztan) | LEITZA | BETELL
 DONEZTEBE (San Pedro) | ELIZONDO (Baztanerra)

TRASLADDAK IRUÑA, DONOSTI ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA.

LOREAK, HILARRIAK, ESKEKAK, ERRALISKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

ATLETISMOA → ESPAINIAKO TXAPELKETA

Ane Petrirenak 300 metroko Espainiako txapelketa irabazi du aurten ere

Kadete mailan Nafarroako errekorra hobetu du

TTIPI-TTAPA

Kadete mailako Espainiako atletismo txapelketak jokatu ziren ekaineko lehen asteburuan Zaragozan eta joan den urtean bezala, 300 metroko lasterketan urrezko domina lortu du Ane Petrirena 15 urteko sunbildarrak.

Iaz ere Espainiako txapelkun izan zen modalitate berean. Gaine-

ra, 1989tik indarrean zegoen marka haustea lortu zuen, 40 segundo eta 82 zentesimako denborarekin. Aurten, kadete mailako bere bigarren eta azken urtean oraindik marka hobea egin du, 40 segundo eta 19 zentesimatan egin baitzituen 300 metroak.

Beraz, aurten ere Nafarroako marka gainduta lortu zuen Espainiako txapelketa irabazi eta urrezko domina golkoratzea (40:19). Valentziako Andrea Verduk eta Gaztela-Mantxako Herminia Parrak osatu zuten podiuma.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Ezkerrean Ane Petrirena helmugaratzen eta eskuinean podiumaren gainean.

AIZKORA → EUSKO LABEL BANAKAKO TXAPELKETA

Erasun 23 urtez azpikoetan eta Saralegi 19 urtez beherakoetan azpitxapelkun

Aurtiztarra irabazlearengandik minutu eskasera gelditu da eta leitzarra 15 segundora

TTIPI-TTAPA

Eusko Label Banakako Aizkora Txapelketako aurtengo irabazleak erabaki dira. Finalak ekainaren 10ean jokatu ziren Azpeitian eta eskualde-

tik bi ordezkari izan ziren: 23 urtez azpikoetan Ander Erasun aurtiztarra eta gazteen mailan edo 19 urtez behekoetan Eneko Saralegi leitzarra. Lan txukuna egin zuten batek zein berteak, eta azkenean, azpitxapelkun gelditu ziren bakoitza bere kategorian.

23 urtez azpikoetan, Mikel Larrañaga (Azpeitia, Gipuzkoa) eta Jon Rodriguez II.a (Segovia, Espainia) izan zituen aurkari Ander Erasunek.



ARGAZKIA: GERARDO BENGOA

Goiko argazkietan Ander Erasun ageri da eta behekoetan Eneko Saralegi.

Azpeitiarra proba guztietan aitzinetik izan zuen aurtiztarrak eta txapela etxean gelditu zen. Larrañagak 22 minutu eta 45 segundoko denbora egin zuen eta Erasunek 27:58koa. Rodriguez II.a hirugarren sailkatu zen, 30:38ko denborarekin. Gazteen mailan, Eneko

Otaño (Beizama, Gipuzkoa) eta Iker Vicente (Otsagabia, Nafarroa) izan ziren Eneko Saralegiren aurkariak. Gipuzkoarra nagusitu zen proba guztietan, baina ez Saralegiri hainbertzeko tartea aterata. Azkenean, 10 minutu eta 44 segundoz egin zituen lanak

Otaño eta 11:01ean leitzarrek. Otsagabikoak 12:08ko denbora behar izan zuen bukatzeko.

Urrezko Mailan, Floren Nazabal (Etxarri-Arnatz, Nafarroa) nagusitu zen, Aitzol Atutxa (Dima, Bizkaia) bigarren izan zen eta Unai Otaño (Ibarra, Gipuzkoa) hirugarren.

ATLETISMOA → MANTTALE LASTEKETA TALDEA

Manttale Ttikiko korrikalariak bikain moldatu dira Nafarroako Kirol Jokoetan

Aimar Etxeberria 500 metroko lasterketan txapeldun izan da

TTIPI-TTAPA

Joan den urtekoa esperientzia urtea bezala hartu ondoren, aurtengoa negu eta udaberriaren burubelarri aritu dira Berako Manttale Ttikiko adin guztietako lasterkariak

Nafarroako Kirol Jokoe-tan. Larunbatero jokatutuzte proba eta maila desberdinetako hainbat ekitaldi eta maiztaketik lehia guztietan puntan ibili direnek finalen parte hartzeko saria jaso dute.

Lehenik, Andoni Lazkanotegi infantil mailako 1.000 metroko finalean izan zen; Nafarroako onenen artean sartu zen eta finalean azken postuarekin kon-



UTZITAKO ARGAZKIA

Prestatzaile eta laguntzaileekin larunbatero elkartzen dira neska-mutikoak.

formatu behar izan bazuen ere, 03:04 minutuko denborarekin garapen ikusgarria izan duela erakutsi zuen.

Eta ekainaren 2an, berriz, Burlatako egoitzetan benjamin mailako (2004-2003 urteen artean jaiotakoak) finalak jokatu ziren. Manttale Ttikiko hiru lasterkari 500 metroko finalean aritu ziren eta ga-

raile, aurtien jokatu dituen proba guztietan egin duen bezala, Aimar Etxeberria beratarra izan zen, 01:37 minutuko marka ikusgarria eginez. Unai Garro eta Eneko Garcia ere finaleko lehian aritu ziren maila ederra emanez.

50 metroko finalean Haitz Telletxea meritu haundiz sailkatu zen eta lesio bat eduki arren,

ederki lehiatu zen.

Eta pilota jaurtike-tan, Unai, Aimar eta Haitzez gain, Gorka Aracues ere finalean izan zen. Ohorezko postuetatik hurbil izan ziren laurak, Manttale Ttikiren parte hartze bikaina borobilduz. Beraz, eta guzti hau tarteko, Manttaleko harrobia emaitzak ematen hasi dela erran daiteke.

HERRI KIROLAK → UZTAILAREN 8TIK 14RA

Nafarroa mailako hainbat txapelketa erabakiko dira Iruñeko sanferminetan

Hainbat erakustaldi ere egingen dira

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, Herri Kiroletako hainbat txapelketa jokatuko dira Iruñeko sanferminetan. Nafarroa mailako txapelak erabakitzeke lehiak izanen dira. Saioak 12:00etan hasiko dira.

UZTAILAK 8

• Nafarroako Bikotekako Aizkora Txapelketa. Bertzeak bertze, Larretxea atxa-seeek eta Jon Rekondo eta An-

der Erasunek parte hartuko dute.

• Nafarroako I. mailako Arpana txapelketa.

UZTAILAK 9

• Nafarroako Harri-Jasotze Txapelketa. Lerro hauek idazterakoan partehartzea ziurtatua zutenak Josetxo Urrutia (Leitza) eta Xabier Ariztegi *Santxin* (Etxalar) ziren.

• Proba konbinatuen erakustaldia (kimuen mailan).

• Haurrentzako herri probak.

UZTAILAK 10

• XIV. San Fermin Moto-

zerra Txapelketa. Eskualdekoen artean, Oierregiko Esteban Arruti ariko da.

• Kañameres anaien erakustaldia (zerratokia, aitzurrarekin egurra moztan).

UZTAILAK 11

• Nafarroako kadete mailako Arpana Txapelketa. Tartean izanen dira Eneko Irigoien eta Ekaitz Maritorea baztandarrak.

• Nafarroako Txinga Txapelketa, bai gizonen eta bai emakumezkoen ere.

• Harrijasotze erakustaldia Mikel Saralegirekin

(baieztatu gabea).

UZTAILAK 12

• Nafarroako Ingude Altxatze Txapelketa. Lerro hauek idazterakoan Josetxo Urrutia leitzararak partehartzea baieztatua zuen.

• Harrijasotze erakustaldia Iñaki Perurenarekin.

• Aizkora erakustaldia Juan Jose Lopez eta Donato Larretxearekin.

UZTAILAK 13

• Nafarroako Lasto Altxatze Txapelketa. Karlos Sein, Eneko Telletxea eta Arkaitz Retegi igantziarrek parte hartuko dute.

• Motozerra erakustaldia (erabaki gabea).

UZTAILAK 14

• III. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa. Tartean izanen dira Eneko Saralegi (Leitza-Iruñea), Julen Olano (Leitza), Joxean Etxeberria (Ziga), Migel Angel Etxeberria (Beintza-Labaian), Martin Telletxea (Ezkurra) eta Kenari Erasun (Aurtitz).

• Nafarroako Gurdi Altxatze Txapelketa. Lerro hauek idazterakoan, Josetxo Urrutia zen partehartzea baieztatua zuen eskualdekoa.

• Lasto botatze saioa.

ekainak 28 - uztailak 11

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Jaialdiak




SARA | 2012.07.07

UsoPOP festibala Lizarietatik plazara jautsi da

Botibol, Belako, Gari eta Elorn taldeak ariko dira 18:30etik goiti Zahar Etxe zaharraren parkean. Elektronik Plist haurrendako dantzaldia ere izanen da.

Antzerkiak




ETXALAR | 2012.06.30

Zugarramurdiko antzerki taldearen Akelarrea plazan

Zugarramurdiko antzerki taldeak *Akelarre* antzezlan aurkeztuko du Etxalarko plazan 21:30etik aitzinera. Ondotik, Larraburuan kantu afaria egingen da.

Zinema



BAZTAN | 2012.07

Udako zine programazioa herriz herri astelehenetan

2012ko Arte eta Kultura egitarauaren barnean antolatutako Udako zine programazioa Anizko frontoian abiatuko da *Chihiroren bidaia* filmarekin.

Uztailaren 9an eta 16an aromaterapia eta haurrendako masajea. **Uztailaren 10ean** bi-koteendako masajea.

Antzerkiak

ETXALAR

Zugarramurdiko Akelarrea

Ekainaren 30ean Zugarramurdiko antzerki taldeak *Akelarre* obra eskainiko du plazan 21:30ean, Etxalarko Euskara Batzordeak antolatuta. Ondotik, Larraburuan kantu afaria. Txartelak salgai Herriko Ostatuan eta Elutsan.

Erakusketak

ZUGARRAMURDI

Michel Courougnon-en margo erakusketa

Ekainaren 2tik uztailaren 1era Michel Courougnon-en *Visions* margo erakusketa ikusgai Sorginen Museoko ganbaran.

ELIZONDO

Juan Carlos Olaetxearen margo erakusketa

Uztailaren 13tik 31ra Juan Carlos Olaetxearen margo erakusketa ikusgai izanen da Arizkunenean.

ELIZONDO

Baztandarren Biltzarra kartel lehiaketa

Uztailaren 6tik 19ra Baztandarren Biltzarra-ko kartel lehiaketara aurkeztutako lanekin erakusketa izanen da Arizkunenean, 18:00etatik 20:00etara, Baztandarren Biltzarra Elkarteak antolatua.

Kontzertuak

LESAKA

Musika bandarekin bidaiatuz

Ekainaren 29an ema-

naldi berezia eskainiko du musika bandak 20:00etan Eskolttikiko aparkalekuan.

SARA

Larrun Kanta taldea elizan

Uztailaren 3an Zahar Larrun Kanta taldeak kontzertua emanen du elizan 21:30ean. Sartzeta 10 euro. 14 urte baino guttiagokoek urririk.

UsoPOP in the park festibala

Uztailaren 7an Zahar

Etxe zaharraren parkean Botibol, Belako, Gari eta Elorn taldeak ariko dira 18:30etik goiti. Lehenxeago Pantxika Solorzano eta Xanok Elektronik Plist haurrentzako dantzaldia aurkeztuko dute.

SENERE

Izarrak taldearen kontzertua

Uztailaren 1ean Izarrak Baxe Nafarroako laukoteak kontzertua eskainiko du 20:00etan plazan.

Ikastaroak

ELIZONDO

Haurrentzako pintura eta grabatu tailerra

Ekainaren 25etik uztailaren 6ra Javier Ciga haurrentzako pintura eta grabatu tailerra, astelehenetik ortziralerara.

Thailandiako masaje ikastaroa

Uztailaren 4tik 16ra egingen da Thailandiako masaje ikastaroa. Fresno eta Eguzkilore elkarteek antolatua.

Ospakizunak

LEITZA

Sexu Askatasunaren Eguna

Ekainaren 28an antolatuko du Sexu Askatasunerako Taldeak. *Ogiyik karri etzun semia* antzezlan 20:00etan zinemaren eta 21:30ean afaria Torrean.

SARA

San Josepe eskolako besta

Ekainaren 30ean ospatuko da kiroldegian. Arratsaldean haurren ikusgarria eta afaria.

PROPOSAMENA

LESAKA-AZPILKUETA

Iruñera joan gabe ere, sanferminen txanda

Hiriburura joan beharrik gabe, Azpilkuetan eta Lesakan sanferminetan murgiltzeko aitzakia ederra dugu gurean. Egitarau zabalak prestatu dituzten batean nahiz bertean. Lesakan San Fermin eguneko Zubigainekoa edo peñen eguneko jautsiera ikusgarriak dira. Azpilkuetan, bertzeak bertze, mariatxia izanen dute igandeko Gazte Egunean.

**Bestak**

DONEZTEBE

San Pedro bestak

Ekainaren 28tik uztailaren 1era San Juan bestak. Xehetasunak 568. alean

ERRATZU

San Pedro bestak

Ekainaren 28tik uztailaren era San Pedro bestak. Xehetasunak 568. alean.

LESAKA

San Fermin bestak

Uztailaren 6tik 10era

San Fermin bestak.
Xehetasunak 12. orrialdean.

AZPLKUETA

San Fermin bestak

Uztailaren 6tik 9ra

San Fermin bestak.
Xehetasunak 41. orrialdean.

LEITZA

Gorritzarango pestak

Uztailaren 1ean

Gorritzaran auzoko pestak ospatuko dira.
Xehetasunak 38. orrialdean.

Lehiaketak

BAZTAN

Bertan elkartean IV. argazki lehiaketa

Ekainaren 30a bitarte aurkezten ahal dira Bertan elkarrean antolatutako argazki lehiaketarako lanak.

LESAKA

Koxkila ostatuako I. argazki lehiaketa

Ekainaren 30a bitarte aurkezten ahal dira Koxkila ostatuako antolatutako argazki lehiaketarako lanak. Gaia: natura eta Lesaka.

Zinema

BAZTAN

Udako zinema

Uztailaren 2an Anizko frontoian *Chihiroren bidaia* filma euskaraz 22:00etan.

Uztailaren 9an Elizondoko Merkaturako Plazan *Ilargi berria, gainbehera saga* filma euskaraz 22:00etan.

Uztailaren 16an Lekarozko frontoian *Hiru mosketariak* filma ikusgai 22:00etan.

Baztango Kultur Bazardeak antolatutako Udako zinea programazioa, 2012ko Arte eta Kultura egitarauaren barnean.

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Saski bete intxaur ezalditan bilduak

PATZIKU PERURENA

Alberdania, 2012

Era askotako lanak biltzen ditu Patziku Perurenaren azken liburu honek: egunero bizitzeak eta liburu irakurtzeak eragindako kritika eta gogoetak; gure prentsaz, kulturaz, literaturaz, politikaz, dantzaz, bertsolaritzaz, kirolaz, triperotzaz, sexuaz, utzieriaz, hipokresiaz, ijitokeriaz eta bai ijitotasunaz ere... Hainbat aldizkaritan argitaratu emandako artikulua galduak. Esaldi aforistikoen bidez zabaldutako iradokizunak eta sumak edo egileak horren gogoko dituen Goizueta eta Leitza bitarteko hitzun xaharren ahotik jasotako zilar hotsa artxiboetako erre-printza galduekin nahastuz moldatutako artikulua, Patzikuren ohiko estilotsuan, euskararen beraren bizitasun eta edertasun bila burutuak. Idazleak aipatu duenez, liburuarekin «ikasi eta goxatu eginen dute euskal filologoek, itzultzaileek, hiztegi-gileek, esatariek, euskaltzainek, irakasleek, hizlariak, euskara ikasten ari direnek... hizkuntza samurtzeko eta goxatzeko formula asko daudelako».

Musika



Harold

LEIHOTIKAN

Gor Diskak, 2012

Patxi Merceroren testuek Leihotikan taldearen izaerari sakontasuna eta pisua ematen segitzen diote, jorratutako gaien inguruko ikuspuntu intimoago bat eskaintzen baitute. Bere aldetik, Gorkak intenzio honekin bat egiten du. Titiren oinari erritmikoaren azkartasun eta baretasuna eta Aitorren ezinegonarekin batera, guztiak makinaria engranatzan dute, Leihotikan izenez ezagutzen dena. Dagoeneko 20 urte daramazkete elkarrekin eta ezin hobeki ezagutzen dute elkar. Leihotikan musika estilo bat baino gehiago da, bizitzeko jarrera da, jarrera eskuzabala, bakoitzaren alderdirik onena sustatzen saiatzen dena, beti ere punk-rockaren ikuspuntu inkonformistatik. Hona hemen orain arteko lanik landuena, zuzenekoetan defendatzeko eginak izan diren abestiez osatua. Azkenik, *Bosch* abestiarekin egindako bideoa azpimarratu behar da, baita Aitorren diseinu grafikoa ere.

Internet



Baztango ondarearen lagunen bloga

DORREA.BLOGSPOT.COM

Baztango ondare arkitektonikoak interes historiko, artistiko, zientifiko eta etnologiko handia dauka: etxeak, hirigintza, etxe singularrak, baserriak, errotak, jauregiak, ondare industrialak, aztarnategiak... Dorrea Elkarrekin hemengo arkitektura eta etxegintza tradizionalaren informazioa jaso, ikeru, hausnartu eta irakatsi nahi du, ondare arkitektonikoarekin lotura daukaten jarduerak bultzatuz, baita ondare historikoarekin eta kultura orokorarekin ere, zonaldeko entitate publiko eta pribatuarekin batera: erakusketak, kontzertuak eta ekitaldi kultural orokorrak. Irurritako Jauregian dauka elkarrekin egoitza fisikoa, baina Interneten ere blog txukuna sareratua du, berriekin (Baztango baserrien lanabesak...), agendarekin argazkiekin, esteka interesgarriekin eta nola, ez kontakturako posta elektronikoko helbidearekin (dorreaelkarrekin@gmail.com).

Nire aukera



Amaia Lasheras
Lesakako itzultzailea

«Korsikako paisaiak izugarri politak dira, dena gustatu zitzaidan»

Seme-alabak direla, ez du nahi adina denbora izaten beretzat Amaiak, baina «egia da koxkortzen ari diren heinean, gero eta denbora gehiago izaten ari naitzela niretzat, eta bertze gurasoekin ere tarte ederrak pasatzen ditut aunitzetan, parkean, plazan...». Afizio nagusiak yoga egitea, irakurtzea eta mendian ibiltzea ditu eta astebururako planik onerako, «furgoneta hartu eta familiarekin hor barna joan nintzateke itsaso aldera, ez hagitz urrutira; goizean goiz, yoga saio bat egin, gero bainu bat, bazkaldu eta kuluxka; arratsaldean paseoa, afaldu eta izozki bat jan». Oporretarako Mediterraneo kostara gustatzen zaio, batez ere Girona aldea: «Eguraldi on xamarreko egun batzuk behar izaten ditut, beroa, eguzkia...». Korsikara egindako bidaia gelditu zaio gogoa, «hango paisaiak izugarri politak dira, kosta, mendialdea... dena gustatu zitzaidan». Bere ametsetako bat New York, «etxe-orratzen hiria» ezagutzea da.

ETXEBIZITZAK

salgai

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

ORONAZ-MUGAIRI. 2 bizitza salgai, moblezta-tua. Berogailua, igogailua, trastelekua eta bajerarekin. Prezio onean. ☎948 585036.

ELIZONDO. Maurizio Berekoetxean (eliza gibelan) pisua salgai. 2 logela eta bainugela, egongela, sukaldea eta balkoi ederra. Aparkatzeko plaza eta trastelekua. Igo-gailua aparkalekutik saibairaino. ☎628 544929.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra-
rekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

ETXALAR. Promotorea-rengandik zuzenean estreinatu gabeko etxebizitzak salgai. Bi solairutako etxebizitzak, garajea eta kanpora ematen duen lorategiarekin. Prezio berriak. ☎629 443405.

IGANTZI. 70m²ko pisu berria salgai, 2 logela, egongela-sukaldea, bainugela, kalefakzioa, trastelekua eta marra garajea. Ikuspegi ederrak eta oso lasaia. 162.000 euro. Errentarako ere aukera 400 eurotan. ☎670 218613.

IRUÑEA. Ospitale eta unibertsitate inguruan pisua salgai. Zaharberritu-

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

tako eraikinean. Berogailua eta igogailuarekin. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Dena kanpora begira. Prezioa: 120.000 euro negoziagarriak. ☎669 877943.

DONEZTEBE. Pisua salgai, egoera onean. Berogailuarekin eta trastelekuarekin. 85.000 eurotan, abudo erosteko. ☎607 978656.

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua errentan emateko. ☎646 774117.

LESAKA. Apartamentua errentan emateko irailetik ekainera. ☎948 637862 / 678 855056.

IRUÑEA. UPNAtik hurbil pisua errentan emateko. Lau lagun sartzen dira (3 logela). Moblezta-

tua, berokuntza zentrala, bizitzera sartzeko prest. ☎669 260192.

LEGASA. Pisua errentan emateko, berriua eta mobleztatua. ☎677 089046.

ETXEBIZITZAK
konpartitzeko

IRUÑEA. 2 neska behar dira pisua osatzeko Arrosadian. 200 euro (berogailua barne). Anima zaitz! ☎620 747213.

LURRAK-ORUBEAK
salgai

BERA. Bi bizitzako etxe bat egiteko lur eremua salgai, herriaren ondoan. Urbanizatua. ☎677 592133.

LURRAK-ORUBEAK
errentan hartu

BAZTANEN EDO MA-

LERREKAN baserria lurrarekin errentan hartu nahi da. ☎948 453301.

GARAJEAK-LOKALAK
salgai

ARRAIOZ. 45 m²ko bajora salgai. ☎629 317086.

ETXALAR. Harategia traspasatzen da. Edo gairontzean, hango tresneriak salgai (kamara, bitrina, pisua...). Gutti erabiliak eta egoera onean. ☎661 345637 / 687 863527.

GARAJEAK-LOKALAK
errentan emateko

LESAKA. Haizegua osatua errentan emateko, abuztuan lanean hasteko prest. ☎677 594893.

LESAKA. Kattu ostatu-jatetxea urriaren hasieratik aitzinera errentan eman nahi da, oraingo maizterra jubilatuko bai-

ta. ☎948 637796 /bortzi-riak@ikanet.net.

ZERBITZUAK

denetarik

**LANA**
eskariak

Neska gazte euskalduna prest dago haurrak zaintzeko. Lesakan edo Beran lan eginen luke uda osoan. ☎648 778966.

Zonaldeko (Etxalar) mutil batek **informatika ikastaroak** emanen lituzke, taldeka edo etxe-etxe. Deitu konpromisorik gabe. ☎661 155056 / info@monoko.net.

Magisteritza eta pedagogia ikasketak dituen neska gazte batek udan **klase partikularrak** emanen lituzke. ☎630 741027.

Informatikan ingeniaria den mutil gazte bat lan bila dabil. Hizkuntzetan abila: euskara eta gaztelania ama-hizkuntza, ingelese erdi mailakoa eta frantsesa eta alemana oinarritzko maila. ☎677 241571.

Neska gazte euskalduna euskara eta frantse-seko klaseak emateko

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(ekainaren 8tik 15era bitarteko prezioak)



Zerrikumea
(19 kilo): 41,00 € (+1,00)

Zerri gizena
1,380 € kiloa. (+0,014)

Zerramak:
0,590€ Kg/bizirik. (+0,014)



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,13 (=)

1.koa 3,83 (=)
2.koa 3,62 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,19 (=)
1.koa 3,91 (=)
2.koa 3,84 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 100,00 (=)
idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 110,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,94/3,04
Zaldi-behorrak: 1,81/2,01
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 7,00/7,10
8-10 kilokoak: 5,40/5,80

prest dago, baita bertze klase partikularrek ere. ☎661 772065.

Emakume euskaldun bat edozein lanetan ariko litzateke: ostalaritzan, jende helduekin (emakumezkoekin ala gizonezkoekin), etxeak garbitzen... ☎664 545925.

Berako mutil bat sukalde laguntzaile edo zerbitzari lanetan ariko litzateke, esperientzia handiarekin. ☎657 409499.

Neska gazte euskaldunak haurrak zainduko litzuzke, ordutegi zabala. ☎661 772065.

Emakume euskaldun bat etxeak garbitzen edo adinekoak zaintzen ariko litzateke Lesakan. ☎948 637182.

Edozein **herritako jaientan tabernan** lan eginen nukkeen neska bat naiz, 10 urte baino gehiagoko esperientziarekin. ☎620 747213.

LANA
eskaintzak

BERA. Ile-apaindegi batean makillatzen laguntzeko neska bat behar da. ☎661 432630.

BERA. Jatetxe batean bazkalorduan esperientzia duten sukaldaria eta zerbitzaria behar dira. ☎948 631658.

ANIMALIAK
oparitu

Zakurkumeak oparitzeko. Ama bertako artzain zakurra eta atta Border Collie arrazakoa. ☎948 630780 (gauetz deitu).

IGANTZI. Zakurkumeak oparitzeko, setter/spanieli arrazakoa (tamaina ttikikoak), 2 hilabete (arra eta emea). ☎678 024636.



ANIMALIAK
salgai

Bi ahari salgai, 15 hila-betekoak. ☎618962794.

4 asto salgai. Oso merke. ☎948 514056 (Ximon).

6 urteko **poney** salgai. ☎948 453037.




MOTORRAK
salgai

Seat Cordoba GT TDI, 110 CV salgai. 163.000 kilometro. 2.000 eurotan. ☎679 829446.



Piaggio NRG2 scooterra salgai, 50cc-koa. Egoera arras onean eta prezio negoziagarrian. ☎948 452119.



DENETARIK
salerosketak

DONEZTEBE. 12 aulki rustiko salgai. Torneatuak. Gaztain zurarekin eginak. Telletxea altzari-dendan ikusgai, nahiz eta partikularrek izan. ☎646 799828.

AZPIROTZ. Proudex markako teila salgai, bigarren eskukoa. Eta teila arabea ere bai. ☎686 806152

ORONOZ. Egurra xehe-

tua salgai. Pagoa eta harritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.



ARESO. Sukalde industrial salgai. Lau su, bi plantxa eta labarekin. Oso egoera onean. ☎636 559204.



Idaz-mahaiak (pupitrea) eta funtzio anitzeko **HP Color Laser Jet inprimagailua** (inprimagailua, faxa eta eskanner) salgai. ☎649 224774.

Urria eta azaroan migrazioan usoak **ehizatzeoko puestoak** salgai. 20 metro edo guttiagora usok tirokatzeko guttienez, 100 aukera ziurtatzen dizkizugu. ☎629 317086.

Bigarren eskuko trikita bere kaxarekin, gutti erabilia, salgai. ☎688 641354 (deitu 18:00etatik aitzinera).

Belar bola idorrek salgai. ☎660 393436.

hemen agertu nahi duzu?

egin zure enbetea www.ttipi.net

IRABARKIA 8

MAIMUR

ttipi baztela

%10 eko
DESKONTUA
oparitzeko artikuluetan

Ford

ZALAIN MOTOR

ttipi baztela

%5 eko
DESKONTUA
errekunbioretan

Zaldia

ttipi baztela

%10 eko
DESKONTUA
produktuetan

TTIPI-TTAPAK kazetaria behar du
ordezkapenatarako

Eskatzen da:

- Kazetaritza edo euskal filologia ikasketak izatea
- EGA edo baliokidea den euskara maila

Kontuan hartuko da:

- Kazetaritza lanetan esperientzia izatea
- QuarkXPress programa erabiltzen jakitea
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea

Bidali curriculuma info@ttipi.net helbidera

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



MARKEL TORRES
ALEMANEK ekainaren 25ean 5 urte bete ditu. Muxu bat Oronoz eta Lesakako familia eta bereziki amaxo, aitako eta Unairen partetik.



Uztailaren 3an Labaiengo **MARIA TELLETXEA ITURRALDEK** 12 urte beteko ditu. Familia guztiaren partetik zorianak eta egun polita igaro dezazula.




Arantzako **OINATZ MARIEZKURRENA** MAIZEK ekainaren 23an lehendabiziko urtea bete du. Zorianak Oronozko ataubi, amatxi eta osaba-izeba guztien partetik.



Lesakako **ENAITZ BEREAUK** 2 urte bete ditu ekainaren 25ean. Zorianak eta aunitz urtez familia osoaren eta bereziki Unaxen partetik.




ANTON IPARRAGIRRE ITURZAETAK urteak beteko ditu uztailaren 2an. Aunitz urtez partetik! Prestatiko diguzu merendu goxoa, ez?



MARKEL ZELAIETA BERASATEGI beratarrak eta bere atatto **XEXELUK** urteak bete dituzte ekainaren 25 eta 16an. Zorianak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



Lesakako **XUBAN ALMANDOZ** SUSPERREGIK urtea bete du ekainaren 18an. Zorianak tiikito familiaren partetik eta bereziki Lorea, Ainara eta Julenen partetik.



Leitzako **MIKEL** eta **BENAT PORTU** BARINAGAREMENTERIAK 4 urte beteko dituzte ekainaren 29an. Aunitz urtez Lesakako familiaren partetik eta bereziki, Ori, Lexuri, Nahia, Elorri eta Aiert lehengusuen partetik muxu haundi bana.



Leitzako **MIKEL** eta **BENAT PORTU** BARINAGAREMENTERIAK 4 urte beteko dituzte ekainaren 29an. Aunitz urtez Lesakako familiaren partetik eta bereziki, Ori, Lexuri, Nahia, Elorri eta Aiert lehengusuen partetik muxu haundi bana.



Leitzako **NAROA** eta **UXUE MARIEZKURRENA** ALDUNTZINEK urteak beteko dituzte uztailaren 4 eta 13an. Zorianak eta muxu haundi bat familiako partetik, eta batez ere Saioa, Iera eta Irati lehengusuen partetik!



Sunbilkako **NEREA PETRIRENA** GOROSTERRAZUK urteak beteko ditu uztailaren 4an. Aunitz urtez eta eguna ongi ongi pasa zure familia guztiaren partetik baina bereziki Iraide eta Garaine iloben partetik eta zure semetxo Ibairen partetik. Berendu goxo-goxoa prestatu. Muxuak.

Egin zaitez **t tipi-ttapa**ren harpidedun

- Hego Euzkial Herria 30€
- Europa 30€
- Baitzer, Urtebetek eta Maitasuna 20€
- Amerika eta Australa 120€
- Ipar Euzkial Herria 30€
- Latza 10€

(0034) 948 63 54 58
www.ttipi.net

t tipi txartela

deskontuak + zozketak + aldizkari musuak

Eskatu zure 948 63 54 58 telefonoan

368. ALEKO IRABAZLEAK

- * **KATXIPORRETA CO** | Zuzendaria: Aritzane Arretxe Pascual | **SUNEILLA**
- * **BERAKO UDAL IGERILEKUA 2 SARRERA** | Jurena M^a Uribe Indart | **ELIZONDO**
- * **AQUARIUM 2 SARRERA** | Maider Arana Zugarramendik | **IRABAZ**
- * **IRABAZBAL 2 LIBURU** | Maita Zabalza | **ELIZONDO**
- * **ONDDO TA PUNTO KAMSETA** | Jhieser Iratxe | **ETXALAR**
- * **LANKU LIBURUA + 2 CD** | Maita Zabalza | **ELIZONDO**

ARKUPE | Gostogale - Txokolategi

TXOKOLATE LOTEA | Arkupe Gostogale

2 SARRERA, WUSKIZUNA | "Aunitz 2012. Hain ametsa gure da" | Gazteko Elkarteak | 2012-07-21 | Auzurren | 21-00000

TTARTYALO | 2 LIBURU | Txartela argitaratzen | www.ttipi.net

BERAKO UDAL IGERILEKUA 2 SARRERA | Berako Udal Igerilekua | www.berakoizena.net

AQUARIUM 2 SARRERA | Dorosteko Argitaratzailea | www.ardorosteko.com

KAMSETA BAT | (Dorosteko) | www.ardorosteko.com

AYLA | BERA | %10 | BERA | %10 | BERA | %10

IPINGI | BERA | %10 | BERA | %10 | BERA | %10

IPARLA kirolak | ELIZONDO | %8 | BERA | %10

OSTIZ | BERA | %10 | BERA | %10 | BERA | %10

XARTEK EITZENA ZENTROA | BERA | %10 | BERA | %10 | BERA | %10

TIPI-TTAPA | BERA | %10 | BERA | %10 | BERA | %10

t tipi-ttapa | Andueta 12, 31760 ETXALAR | Tel. 948 635 458 | Fax 948 635 457 | info@ttipi.net | www.ttipi.net

Udako merkealdia koltxoietan

%25eko deskontuak

+ ginearri lapizatuak
+ Edo apolo somierra

80	90	105	135	150	160	
190/	318€	318€	356€	438€	482€	514€

190ko luzera 200€tik gora

+ Urban kanapea

80	90	105	135	150	160	
190/	508€	514€	562€	676€	730€	798€

190ko luzerarekin 200€tik gora

confortplus koltxoia



+ ordesa kanapea

80	90	105	135	150	160	
190/	592€	598€	648€	752€	808€	888€

190ko luzera 200€tik gora

+ master kanapea

80	90	105	135	135 zatiak	150	160	
190/	582€	590€	640€	754€	790€	838€	914€

190ko luzerarekin 200€tik gora

koltxoia viscodreams



190ko luzera 200€tik gora

80	90	105	135	150	
190/	166€	166€	189€	236€	262€

koltxoia termovisco



OPARIA
duraria bakarrak

+ apolo somierra



80	90	105	135	150	
190/	302€	306€	362€	438€	476€

* 190ko luzera %5ean altxatuko da eta 200ekoak %10ean



Rosa Seminario, 12 • DONEZTEBE
T. 948 450 258 • 948 451 811
info@mueblestelletxea.com
www.mueblestelletxea.com



TEILA FRANTZESA

eta teilatuentzako sistemak



Etxeleku Baserria

GALIBANE 12 Rojo Occitan

les tuiles
SOLUTIONS

948 123 713

info@lestuiles.es

www.lestuiles.es

BERMEAK



Teilatua berria edo teilatua aldatzeko beharrean zaude?